



"Garrantzitsua da herria protagonista izatea"

Iñaki Zarraoa |

Gure Esku Dago ekimeneko kidea | 7



Munduko mago onenetakoak Elgetan

Gaurtik domekara
Magia Mostra izango da Espaloian | 31

'Gure Esku Dago' bideoklipa eta kanta grabatu dute Oñatin | 19



Zabaleta eta Cestaf, besteak beste, Gorlako Igoeran | 28



Frackingaren gainean Herri Ekimen Legegilea eskatzeko, sinadurak | 5



BERGARAKO MODA, PLAZARA

Herriko 32 dendaren eskaintzarekin moda desfilea egingo dute bihar, 70 bat herritarrek modelo lanak eginda | 16

Modelo izango diren herritarretako batzuk Bergarako dendetako jantziak erakusten, San Martin plazan. | JAGOBA DOMINGO

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"Herritarrek iritzia emateko unea da"

OXEL EROSTARBE
Elgetako alkatea | 26



Inoiz baino laguntza eskaera gehiago

Caritasek eta Elikagaien Bankuak ia inoiz baino eskaera gehiago izan dituzte | 2

Apirileko langabezia datuek langabe kopurua txikitu egin dela dioten arren, ez dute errekupe-raziorik ikusten Gipuzkoako Elikagaien Bankuko eta Debagoieneko Caritasen ordezkariak ibarrean. "Gauzak ondo egongo balira eta errekupeazio bat biziko bagenu, jendeak ez luke hona etorri beharko, eta gero eta gehiago dira gugana datozenak", dio Elikagaien Bankuko arduradun Jose Antonio Agirrebeñak. | 2

SINADURAK

Artaldean | 8
JUAN MARI OKINA

8 | Jaietan ez utzi plazak hutsik
AMAIA TXINTXURRETA

200 neskatilaren zoritzarra | 40
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 8
ELKARRIZKETA 7 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK
35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

AURRERATU
UDA GARAIARI

Ray-Ban
VOGUE
Oakley
arnette

eta askoz gehiago...

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* Promozio hau indarrean egongo da apirilaren 1etik ekainaren 15era. Ezlago da beste eskaintza batzuetan erabil.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Errekuperazioa errealia ez den bitartean, bide-lagunak

- ▶ Langabezia tasak oinarri hartuta, egoera ekonomikoari buelta ematen gabiltzala diote hainbatek
- ▶ Caritasek eta Elikagaien Bankuak inoiz baino eskaera gehiago izan zituzten joan den urtean

IRATI GOITIA | ARRASATE

Apirileko langabezia datuak jakin berri ditugu asteen. Debagoienari dagokionez, martxoan baino 25 langabe gutxiagorekin bukatu da apirila. Hain zuzen ere, 3.783 langaberekin. Hala, langabezia tasak %0,09 egin du

behera, eta %12,69an kokatu da bailaran.

Hego Euskal Herriari dagokionez, kasu horretan ere behera egin du langabe kopuruak. Bizkaian izan ezik, beste herrialde guztietan egin du behera. Gipuzkoan, 49.134 langabe zeuden

apiril bukaeran; martxoan baino 458 gutxiago (-%0,92).

Gizarte Segurantzaren gora egin du afiliazioak Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. 1.120.236 zeuden izena emanda apiril amaieran; martxoko datuekin alderatuta, 4.104 langile gehiago.

Argirik ez da ikusten

Datuek pixka bat hobera egin dute, baina ez da susperraldi nabarmenik izan. Hala eta guztiz ere, azkenaldian bagabiltza entzuten *errekuperazio* hitza edo egoera ekonomikoaren hobekuntzaren gaineko hainbat berba. Badago krisia gainditzen hasi garela dioenik ere.

Bada, Gipuzkoako Elikagaien Bankuko eta Debagoieneko Caritasko ordezkari banarekin egon nahi izan dugu, eurek duten ikuspegia jasotzeko.

"Guk ez dugu errekuperaziorik ikusten. Esatekotan, alderantzizkoa esango nuke. Izan ere, laguntza eskaeren kopuruak gero eta gehiago egiten du gora gure kasuan, behintzat", dio Jose Antonio Agirrebeñak, Bergarako Gipuzkoako Elikagaien Bankuko arduradunak. Gaineratzen du eurek horrenbeste eskaera izatea sintoma txarra dela: "Gauzak ondo egongo balira eta errekuperazio bat biziko bagenu, jendeak ez luke hona etorri beharko, eta gero eta gehiago dira gugana datozenak. Nik ez dakit ze neurketa egiten dituzten errekuperazioaz jarduten dutenek".

Iritzi berekoa da Debagoieneko Caritasko arduradun Xabier Jorriñen ere. Hark ez du hobekuntzarako sintomarik ikusten. "Guk momentuz ez dugu horrelakorik ikusten. Egia da, errekuperazioa egongo balitz ere, guregana etortzen diren pertsonengan ez litzatekeela bat-batean islatuko. Izan ere, guregana datozen gehienek denbora luzea daroate langabezia eta ez dute aurrezkerik izaten. Beraz, bizi duten egoera zailari buelta ematea ez da berehalako gauza izaten", zehaztu du.

Datuen esangura

Biek ala biek datuak erakusten dituzte eurek esanikoa babesteko. "Gure jardunaren jarraipen zehatza egiten dugu eta datuak oso nabarmenak dira. Argi ikusten da egoera ez doala hobera", dio Jorriñen. Hala, aipatzen du 2012an 1.821 pertsonari eskaini zirela laguntza Debagoienean; 2013an, 2.177 izan ziren eurengana jo zutenak. Igoera agerikoa da; zehazki, 356 lagun gehiago.

Agirrebeñak ere datuak hartzen ditu eskuetan. Horrela, zehaztu du 3.564 pertsonak jaso dutela laguntza Bergaran dagoen Elikagaien Bankutik aurten -apirila bitarte-. Goierrri, Debagoiena, Debabarrena eta Urola bailarako herriei ematen diete laguntza, 30 ingururi; eta 36 erakunderekin egiten dute lan (udalak, Caritas,



Pertsona bat Arrasateko Lanbideko egoitzara sartuta.



Bergaran dagoen Gipuzkoako Elikagaien Bankuko arduradunak.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

Unibertsitate honetan ekintzaile izateko birusa sartu didate.

Mikel Gonzalez,
Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza, 2. maila.

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATE · MAIATZAK 10
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 17
Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA
OÑATI · MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 17
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZA · MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center
DONOSTIA · MAIATZAK 24
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ELIKAGAIEN BANKUKO DATUAK, 2012

Jasotako janari kopurua	
Bergara	198.522 kg
Oiartzun	1.586.896 kg
Guztira	1.745.769 kg
Emandako janari kopurua	
Bergara	177.539 kg
Oiartzun	1.582.790 kg
Guztira	1.720.680 kg

ITURRIA: BERGARAKO ELIKAGAIEN BANKUA



hartzan, atzo. | IRATI GOITIA



n boluntarioak lanean, eguaztanean. | I.G.

Nagusilan eta etorkinen taldeak). 2011n jarri zen martxan Bergarako Elikagaien Bankua. Urte hartan 1.300 pertsona inguruk jaso zuten laguntza eta 2012an 2.300ek. "Datuek ikusi besterik ez dago jende gehiago etortzen dela ohartzeko. Orokorrean, herri guztietan egin du gora eman beharreko jan kopuruak", dio.

Behardunen profila

Beraz, nabaritu dute krisiaren eragina bi kasuetan. Gainera, egoera kaxkarrean dauden familia edo pertsonen profila ere aldatu da zertxobait. Nahiz eta zehaztu duten atzerritarrek jarraitzen dutela izaten laguntza eskatzera joaten diren gehiengoa. "Debagoieneko kasuen %90 etorkinak dira. Bertako jendea ez da gugana horren erraz hurbiltzen. Egia da, azken horien kasuan, familia eta lagunengatik jasotzen duten babesa ere handiagoa izaten dela; sostengu bat izaten dute. Etorkinen kasuan, berriz, ez da horrela izaten", zehaztu nahi izan du Jorrinek. Hala ere, badio bertakoei ere eragin diela krisiak, eta adibide batzuk jarri ditu: "Etorri izan da bikote bat edo beste, biak langabezian geratu eta hipoteka batean sartuta daudenak edo alokairu oso altua dutenak. Baita oso pentsio baxuak dituzten alargunak ere".

Agirrebeñak adierazi du, bestalde, denetarikoa jana behar izaten dutela egoera ekonomiko larrian daudenek. Azken kanpian, baina, umeentzako (0-3 urte bitartekoak) janaria batzeko deialdi berezia egin zuten, haiek jan barik gera ez daitezten.

Bestalde, azpimarratu nahi zain du oso garrantzitsua dela laguntza eskatzaileen kontrol bat eramatea: "Janaria jasotzeko, protokolo bat bete behar izaten da. Horrela, ziurtatzen da laguntza benetan behar duenak jasotzen duela".

Caritasen ere kasu bakoitza modu indibidualean aztertzen dute, bakoitzaren beharrak zeintzuk diren jakiteko. Hala, Jorrinek adierazi du pertsona helduek,

adibidez, askotan ez dutela jakiten laguntza publikoak eska ditzaketela eta hori azaltzea izaten dela euren eginbeharra. Beste batzuetan, laguntza zuzena eskaintzen dute. Hala ere, hark garrantzia eman nahi izan dio egin beharreko bideari edo harremanari. Hau da, egoera ekonomiko txarretik irteteko, bide-lagun izateari. Hor funtsezko jotzen du prestakuntza. "Lanbidek apenas antolatzen du ikastarorik

ESANAK

"Guk ez dugu errekupeziarik ikusten, gero eta eskaera gehiago ditugu janaria jasotzeko"

JOSE ANTONIO AGIRREBEÑA
GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

"Datuek nabarmen adierazten dute egoerak ez duela inola ere hobera egin"

XABIER JORRIN
CARITAS

une honetan eta horrelako egoeretan dauden pertsonak formatzarako behar handia izaten dute. Uste dugu hori dela bidea, eta baita proiektu ekintzaileak sortzea". Oñatin dagoen Bidebarrri enpresa jartzen du adibide bezala (erdia Oñatiko Udalarena da eta erdia Caritasena). Bazterketa sozialerako arriskuan daudenek egiten duten bertan lan.

Eskuzabaltasuna

Krisi garaian, jendearen beharrak areagotu dira, beraz; baina baita hainbaten eskuzabaltasuna ere. Hala diote behintzat bi ordezkariak. "Zorionez, jende gehiagok hartzen du bestea laguntzeko konpromisoa. Caritasak jasotzen dituen eskupekoen kopurua igo egin da, esaterako. Horrek argi erakusten du gizartearen sentsibilizazio maila. Askok eskertzen dugu hori", aipatzen du Caritaseko bailarako arduradunak.

Elikagaien Bankuan ere ugaritu egin dira dohaintzak. "Enpresa, lantoki zein pertsonengatik jasotako janari kopurua areagotu egin da. Adibidez, elikagaiak batzeko supermerkatu eta dendetan egin genuen azken kanpian oso datu onak lortu genituen. Gure aurreikuspenak ziren 120.000-150.000 kilo batzea Gipuzkoan. Gure zonan bakarrik, 112.000 kilo jaso genituen eta probintzia guztian 350.000", zehaztu du Agirrebeñak pozik.

"Gu ez gara soluzioa, ez dugu irtenbidea eskaintzen, laguntza baizik", dio Agirrebeñak, ordea. Hala, argi adierazten du krisiari buelta emateko beharrezkoak izango direla bestelako erabakiak. Bien bitartean, baina, bide-lagun izango dituzte Elikagaien Bankuko zein Caritaso boluntarioak egoera ekonomiko larrian daudenek. Euren ere esku zabalik hartuko dituzte.

DEBAGOIENENKO EROSKETA BONUAK

Debagoieneko Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, 10.000 euroko partida bideratu du **DEBAGOIENENKO EROSKETA BONUAK** kanpaina gauzatzeko. Horri esker, Debagoieneko herritarrek 25 euroko balioa duen bonua erosi ahal izango dute 20 euroren truke, Debagoieneko hainbat dendatan erosketak egin ahal izateko.

Debagoieneko denda oro atxikitu ahal izango da kanpaina honetara, betiere bere jarduera nagusia EJZn merkataritza txikizkariari dagozkion IEZren 64, 65 edo 66 epigrafeen barruan badago. Atxikitzeke, eskaera orria aurkezteaz gain, saltokiek IEZko alta-agiriaren kopia ere aurkeztu beharko dute maiatzaren 12tik ekainaren 30era bitartean ondorengo tokietako batean:

- ARRASATE: Debagoieneko **Mankomunitatean**, 943 79 30 90
- ARETXABALETA: Arkupe Kultur Etxea
- ANTZUOLA: Udaletxean (goizez)/ Liburutegian (arratsalde),
- BERGARA: Kultur etxeko sarreran, Errotalde jauregian
- ELGETA: Udaletxean
- ESKORIATZA: Ibarraundi Museoa
- OÑATI: Udal Bulegoetan

Kanpaina aurrera joan ahala, kanpainarekin bat egiten duten dendek zerrenda publikatuko da Debagoieneko Mankomunitateko webgunean (www.debagoiena.com). Honez gain, parte hartzen duten dendek kartel bereizgarri bat izango dute beraien establezimenduetan.

DEBAGOIENENKO EROSKETA BONUAK maiatzaren 19tik aurrera eskuratu ahal izango dira agortu bitartean eta pertsonako bonu bakarra erosi ahal izango da; horregatik, bonua erostean nortasun agiria dokumentua erakustea beharrezkoa izango da. Guztira, 2.000 bonu kaleratuko dira eta ekainaren 1etik 30era bitarteko indarraldia izango dute. Bonuak erabili ahal izateko gutxienezko gastuak 25 eurokoa izan beharko du eta erosketatik bakoitzeko bonu bakarra onartuko da.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA



DATUA

2.177

PERTSONA

Bailaran 2.177 pertsonari eskaini zien laguntza Caritasen joan den urtean.

CARITASEK EUROTAN EMANDAKOIA

	2012	2013
Eskoriatza	3.264	5.492
Aretxabaleta	13.571	19.062
Arrasate	62.263	86.043
Oñati	34.206	30.169
Bergara Parrokia	22.325	30.642
Bergara 'Inclusion'	37.539	42.086
Debagoiena, guztira	173.168	213.494

ITURRIA: CARITAS



Udalatx barrua zulatuta dago dagoeneko; orain, azpiegiturak eraiki beharko dituzte. | GOIENA

Bergarako lotunea aurten hasi gura dute

Eskaintza ekonomikoak aurkezteko epea aurtengo irailaren 9an bukatuko da

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

133.328.648,33 euro (BEZa barne). 2,9 kilometro; bi zubi; bi tunel eta Udalatx barruko tunelen zati bat. Horiexek dira Espainiako Sustapen Ministerioak asteon lizitaziora atera duen Abiadura Handiko Trenari dagozkion obraren ezaugarriak. Eguaztenean hala irarri zuen Estatuko Buletin Ofizialak. Bergarako lotunea dituen bost zatietatik lehena da orain lizitaziora atera dutena. Eta buletinean iragarritakoaren arabera, lanak esleitu ondoren,

34 hilabeteko epean bukatu beharko dituzte.

Udalatx barruko tunelak

Zati horrek izango dituen ezauzgarrien artean, nabarmentzekoak dira Karraskainen eraikiko dituzten bi tunelak: ekialdean eta mendebaldean eraikiko dituzte, eta 448 eta 543 metro luze izango dira, hurrenez hurren.

Esanguratsua izango da, baita ere, Udalatx barruko ekialdeko tunelaren zati bat eraikiko dutela (2,3 kilometro) eta men-

debaldekoaren beste zati bat (2,3 kilometro). Eta baita ere Kobate erreka zeharkatzeko bi zubi eraikiko dituztela: ekialdekoa 83 metro luze izango da eta mendebaldekoa 28 metro luze.

Zati horretaz gainera, *Bergarako korapiloa* gauzatzeko beste lau trenbide zati faltako lirarteke egiteko: Arrasate-Bergara (Zumalegi sektorea, 2,7 kilometro); Arrasate-Bergara (Angiozar sektorea, 2,6 kilometro); Elorrio-Bergara (2,6 kilometro) eta Elorrio-Elorrio (2,9 kilometro).

Handitzen segitzeko asmoarekin aurkeztu dute gurean Fiare

Banku etikoak 52 bazkide bereganatu ditu Debagoienean, baina gehiago lortu gura dituzte

U.M. | DEBAGOIENA

Aurkeztu dute Debagoieneko Fiare banka etikoa, atzo iluntzean aurkeztu ere (eguna). 45 pertsona fisikok eta zazpi juridikok osatu dute kooperatiba gurean.

Kide egin dira Bergarako eta Oñatiko Udalak, parrokia, beste bi erakunde erlijioso eta gobernu kanpoko bi erakunde. "Gainontzeko entitate juridikoen izenak ezin ditugu jakinarazi konfidentzialtasun kontuengatik", adierazi du Periko Etxeburuak, Fiareren Gipuzkoako arduradunak. Gogora ekarri du edozein egin daitekeela Fiareko bazkide. "Honako ekarpenak egin behar dira horretarako: gutxienez, 300 euro pertsona fisikoek; 600 euro irabazi asmo bako pertsona juridikok eta 1.800 euro gainontzeko entitateek". Etxeburuak jakinarazi du Gipuzkoan 500 bazkide direla Fiareko kide eta espero dute la 2014an 200 gehiago lortzea. "Debagoienean martxa onean dabil, kontuan hartuta 2013an eratzen hasi zela. Proiektua egingarria da eta kontsolidatzen doa (...) 2012 eta 2013an eman dira pauso garrantzitsuak. Tokiko taldeak eratu dira Aretxabaletan, Oñatin eta Arrasaten. Eta asmoa da gainontzeko herrietara ere zabaltzea".

DATUA

300

EURO

Fiareko bazkide egin nahi duten pertsonak 300 euroko ekarpenak egin behar dituzte.

5.000 bazkide

Fiarek 2005ean ekin zion ibilbideari, Bilbon. 5.000 bazkide eta 5 milioi euroko kapital soziala du orain. "Gainera, Fiarek 42 milioi euroko deposituak administratzen ditu eta 36 milioi euroko mailegu/kredituak onartu ditu irabazi asmo bako elkarreendako", azpimarratu du Etxeburuak. "Hori gutzia egin du zortzi lagunez osatutako lan-taldearekin eta 500 boluntarioekin, eta Estatuko 600 elkarrekin babesarekin. Horrek erakusten du 600.000 euro baino gutxiagoko aurrekontuarekin gauzatu ahal izan dela 2013an egindakoa. Bide batez, berankortasunaren koefizientea ez da %3ra iristen, ohiko banketxeetan, orain %13an dagoenean", gaineratu du Gipuzkoako arduradunak.



COPRECI, KOOP. ELK.

2014ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, **Aretxabaletako Kiroldegian**, egingo da 2014ko maiatzaren 16an, arratsaldeko 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenetan, 16:00etan, egun eta toki berean, hurrengo eguneko gai zerrendaren arabera:

GAI ZERRENDIA

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
 - 2.1. 2013ko gestioari buruzko akordioa.
 - 2.2. 2014ko Gestio Plana onartzea.
3. 2013ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
4. 2013ko Emaitzen banaketa.
5. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
6. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
7. Bazkideen maileguak 2014.
8. 2014 ekitaldirako Lan Aurrerakinen inguruko erabakiak.
9. Kooperatibako RIC 50. artikulua aldatzea.
10. Bazkide Berriak Hautatzeari buruzko Arauaren 7. artikulua ezabatzea.
11. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak.
12. Kanpoko Auditoreak izendatzea.
13. Fagor eta Mondragon Componenteseko Batzar Orokorrerarako ordezkarien hautapena.
14. Galderak eta eskaerak.

Kontseilu Errektoreko Idazkaria
Aretxabaleta, 2014ko apirilaren 28an



ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2014ko maiatzaren 16a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2013ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2014ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
5. 2013ko ekitaldiari dagozkion interesak sortzea.
6. 2013ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak.
9. Estatutu Sozialen testu bategina onartzea.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena.
12. Kontseilu Errektoreko lehendakaria izendatzea.
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
16. Auditorea izendatzea edo berrautatzea.
17. Ahalmenak eskuordetzea.
18. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituztenak. Bazkide gutzietan jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.eko egoitzan proposatutako Estatutu Sozialen testu bategina eta dagokion justifikazio txostena aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2014ko apirilaren 29a

Martxoan baino 25 langabe gutxiagorekin bukatu da apirila

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Langabezia zertxobait jaitsi da apirilean. Batez ere, hiru herritan hobetu da datua: Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin. Hala, apirila 3.783 langaberekin bukatu da (martxoan baino 25 gutxiago), %12,69ko tasa.

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	107	%9,81
Aretxabaleta	360	%10,65
Arrasate	1.672	%16,14
Bergara	841	%11,99
Elgeta	49	%9,04
Eskoriatza	261	%12,81
Leintz Gatzaga	10	%7,41
Oñati	483	%9,20
GUZTIRA	3.783	%12,69

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

Arantza Palacio eta Maritxu Goikoetxea | Fracking Ez taldea

"2015erako eskura ditzakete zundaketekin hasteko baimenak"

Debagoieneko Fracking Ez taldea sinadurak batzen hasi da Herri Ekimen Legegilea aurkezteko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Arantza Palacio (Bergara, 1944) eta Maritxu Goikoetxea (Bergaran bizi den gasteiztarra, 1948) dira Debagoieneko Fracking Ez taldeko kideak. Duela gutxi hirugarren bat ere gehitu zaizkie: Iker Carrasco eskoriatzarra. Frackingaren gainean duten kezka zabaltzeko sortu dute taldea eta sinadurak batzen hasi dira.

Zer dela eta orain horrelako kezka frackingaren gainean?

Herri Ekimen Legegilea aurkezteko asmoa dago Gasteizko Parlamentuan. EAEn 30.000 sinadura aurkeztu behar dira horretarako. Eta horregatik hasi gara sinadurak batzen. Horrez gain, jendea gaiaren gainean informatu nahi dugu.

Eta zergatik?

Ikusten dugulako frackinga oso praktika arriskutsua dela. Lehenik eta behin, lur eremu handiak behar dira. Gero, kontuan izan behar da gas kopuru gutxieneko batzuk ateratzeko sekulako putzuak eta zundaketak egin behar direla. Oso zulo sakonak egin behar dira, gasa dagoen lekuraino iristeko (2-3-4 kilometro lurpetik), eta ez dira

ohiko gas poltsak. Gasa pizarra edo eskisto motako harriok harrapatuta dagoenez, harriok apurtzeko sartu behar dituzte milioika litro ur, gehi harea gehi produktu kimikoak. Hori dela eta, akuiferoak, etxerako urak eta lurra kutsatu egiten dira. Gainera, bueltatzen den ura kutsatuta egoten da eta ezin da birziklatu. Eta airea ere kutsatu egiten da, ze gas kopuru jakin batek ihes egiten du.

Zergatik plazaratu dira orain kezka horiek Debagoiengan?

Batetik, Herri Ekimen Legegilea abian jarri dugulako. Eta bestetik, Espainiako Industria, Komertzio eta Turismo Ministerioak landutako mapa baten arabera, gure bailaran ere eskatuta daudelako baimenak zundaketak egiteko, Sustraiak izeneko esparruaren barruan. Hor sartu dituzte Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati, Arrasate, Antzuola, Bergara eta Elgeta. Araban aspaldi hasi ziren mobilizatzeko, Fracking Ez Araba taldea sortu zuten eta sekulako lana egin zuten herrialde guztian. Besteak beste, manifestazio oso handia egin zuten 2012an. Horregatik zenbaitek uste dute Arabako arazoa dela bakarrik.



Arantza Palacio eta Maritxu Goikoetxea, Bergarako Santa Ana parkean. | U.M.

Oso oker daude. Euskal Herri osoan dute frackinga egiteko asmoa, Enkarterrietatik Nafarroaraino. Ikusita Gipuzkoan eta Bizkaian ez zegoela ia informazioerik, hutsune hori bete egin behar zela ikusi genuen.

Hemengo arazoa da bakarrik?

"Frackingaren aukeren barruan Debagoien osoa sartu dute"

Ez, Europa osoa da. Eta leku bakoitzean erantzun desberdina eman zaio. Frantzian, adibidez, ez dute onartu; ezta Alemanian ere. Britainia Handian momentuz gelditu egin dituzte proiektuak, putzuen inguruan lurrikara txikiak sortu direlako. Nafarroako gobernuak ere ezezkoa emanda dauka...

Zundaketak arriskutsuak dira?

Bai, ze ustiaketa egiteko prozesu berbera egin behar dute.

Eperen bat badago?

Uztailerako entregatu behar dira sinadurak Legebiltzarrean.

Eta zela doa bilketa?

Arabian ondo, baina Gipuzkoan eta Bizkaian motel. Hala ere, guk Debagoiengan mahaia jartzen ditugunean jendea etortzen da sinatzera zein informazioa eskatzera.

Hurrengo hitzordua non da?

Bihar [zapatua] Bergarako azoka plazan, goizean. Zapaturako ahaleginduko gara mahaia jartzen. Eta eguenero kalean egongo gara, pintxo-potea aprobetxatuta, Bergaran, ze orain arte Arantza eta biok ibili gara taldean.

Eta eperik bada Debagoiengan zundaketak egin ahal izateko?

2015erako eskura ditzakete baimenak

Norbaitek Fracking Ez Debagoieneko taldeko kide izan nahiko balu?

Pozik hartuko dugu. Taldea sendotu nahi genuke. Sinadurak batzeaz gainera, beste ekintza batzuk egin nahi genituzke, hitzaldiak eman eta abar. Gurekin harremanetan jartzeko: Maritxu Goikoetxea: 685 72 83 27 (m.goikoetxea3@gmail.com) edo Arantza Palacio: 650627680 (arantzapalacio@gmail.com).

Oñatiko turismo zerbitzuak kudeatzeko deialdia

Besteak beste, Arrikrutz kobazuloen eta turismo bulegoaren kudeaketa kontratatu gura dute

ANE ELORDI | OÑATI

Oñatiko turismo zerbitzuez arduratuko den enpresa kontratatu nahi du Udalak. Bete beharreko gutxieneko zerbitzuak izango dira Oñatiko Turismo Bulegoa, San Migel errota eta Arrikrutz kobak kudeatzea. Horrez gain, bisitarien informazioa eskaini eta gidaritza lanak ere bere gain

hartu beharko ditu. Gainera, Oñatiko turismoa sustatzeko lan egingo du, besteak beste.

Eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 12an (astelehena) bukatuko da (Udaleko bulego orokorretan). Eskatzaileek Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasketen agiria aurkeztu beharko dute, baita C1 gidabaimena eta euskarazko C1 gaitasun-agiria ere (EGArekin parekidea). Frantsesaren eta ingelesaren ezagutza baloratuko da.

Prozedura irekia

Kontratuaren prezioa urteko 97.000 euro izango da, BEZa kanpo. Prozedura ireki bidez esleituko dute zerbitzua; kontratuaren iraupena, berriz, bi urtekoa izango da, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

EUSKADI GEHIAGO
IZASKUN BILBAO BARANDICA

EUROPA BERRIAN
www.izaskunbilbao.eu

I AM BASQUE

eaaj pnv

CEU

DATUA

2

URTE

Eskaintzen den kontratua bi urterakoa da, beste bi urte luzatzeko aukerarekin.



Manifestariak Mondragon Taldearen egoitzaren aurrean, pankartekin. | IMANOL GALLEGO

Martitzenean Fagorreko presidentearekin batzartuko dira Ordainduko ordezkariak

Manifestazio bateratua egin dute Ordaindu eta Eskuratu elkarteek

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Fagor Etxetresnetako eta Edesako 1.080 erretiratu eta langileren interesen ordezkari moduan eratu diren Ordaindu eta Eskuratu elkarteek manifestazio bateratua egin zuten atzo, eguena, Arrasaten. Hain justu, Mondragon Taldearen egoitzaraino joan ziren protestan. Helburua, lanean jardun duten urte guztietan pilotatutako aurrezkiak berreskuratu gura dituztela aldarrikatzea: "Negoziazioa eta konponbidea

dira nahi ditugunak. Erretiratuok hortxe ditugu auzerki guztiak eta nahi dugu horiek diruok lortu", adierazi du Klara Elkorobarrutiak, Ordaindu plataformako bozeramaileak. Eta hori lortu ahal izateko, bi plataformen oraingo helburu nagusia kooperatibako buruekin negoziatzea da.

Martitzenean, batzarra

Hori horrela, eta Arrasateko kooperatibaren "isiltasun eta irmotasuna" ere salatu duten arren,

martitzenean, maiatzaren 13an, Ordaindu plataformako kideak Fagorreko presidente Josean Alustizarekin batzartuko dira. Hala ere, orain arte moduan, arazoari konponbide bat eman arte, mobilizazioekin jarraituko dutela aurreratu dute; hori bai, "biolentzia barik eta trankil".

Korporazioaren egoitzan komunikatua irakurri eta gero Laboral Kutxako egoitzatik pasatu zen manifestazioa. Gero, beharrezko bidea hartu zuten.

Frogatu gura dute Kutxabanken klausulak gehiegizkoak direla

IRPH erabiltzeagatik zigortu egin du epaileak Kutxabank, eta Euribor + 1 erabiltzera behartu

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Debagoieneko Stop Kaleratzeak elkarteak positibotzat jo du Kutxabanken IRPH indizearen inguruko auziaren epaia. Salva Gonzalez taldekideak adierazi du helburua dela IRPH indizearen klausulak gehiegizkoak direla frogatzea, eta epaiaren bitartez lehen urratsa egin dutela dio.

Gonzalezek ustez, orain arte, Kutxabankek herritarrei iruzur egin die, eta epaiaren bitartez erakundearen jarrera agerian geratu da. Nahiz eta epaia Gipuzkoako IRPH Stop plataformako kideen aldekoa izan, Kutxabankek helegitea aurkeztuko du. Hori dela eta, Gonza-

lezen ustetan, garaipenaren lehenengo pausoa baino ez da, eta oraindik bidea dago egiteke. Europako 93/13/CEE direktiban oinarritzen da epaia, eta, Stop Kaleratzeen ustez, Europako araua izateak berme handiagoa ematen dio auziari; sententziak aurrera eginez gero, gehiegizko klausulak bertan behera geldituko dira.

Salaketen garrantzia

Edozelan ere, Gonzalezek dio salaketak jartzea garrantzitsua dela, eta hori dela konponbide bakarra. Beraz, Stop Kaleratzeak elkartetik kaltetutako herritarrek salaketa jartzera animatu nahi dituzte.

Arte-jardueretan diharduten Arizmendiko ikasle izandakoak gonbidatu dituzte Ikastolaren Eguna

Arizmendi Ikastolak ekainaren 13an, egubakoitza, Ikastolaren Eguna ospatu behar du Arrasaten. Arratsaldean hasi eta iluntzera bitarteko ospakizuna izango da. Eta aurten, artisauen postuekin eta artisten parte-hartzearekin antolatuko du jaiak. Bada, ohar honen bitartez artisautzan eta bestelako arte-jardueretan (musikan, margotzen...) ari diren ikasle ohiak gonbidatu nahi ditu jaiaren parte hartzera. Interesatuta egonez gero, hona idatzi behar da: arizmendi@arizmendi.ikastola.net.

Gobernuz kanpoko erakundeek elkartasun festa bihar, zapatua

UBANE MADERA | ARRASATE

Egun osoko egitaraua antolatu dute Arrasateko Seber Altube plazan bat egingo duten Harreman, Activos Por Un Mundo Solidario, Serse eta Mundukide gobernuz kanpoko erakundeek. Taulako ekitaldiorain gain, honako ekintzok ere izango dira: Ankurko (India) proiektuaren aldeko tonbola, gobernuz kanpoko erakundeek erakusketa, grafitigintza eta Arizmendik antolatutako jarduerak. Hori guztia, helburu dutelako ahalik eta herritar gehien ezagutaraztea gobernuz kanpoko erakundeek lantzen diharduten proiektuetara.

EGITARAUA

11:00 eta 16:30
Puzgarriak.

12:00 Arrasate Musikal

13:00 Txatxilipurdirekin jolasak.

17:30 'Kontaidazu beste bat'.

18:30 Txokolatada.

19:30 Herrixa Dantzan.

20:30 Eroski Bidaien sariaren zozketa.

Ekitaldiz betetako kanpaina aurkeztu du EH Bilduk Debagoienerako

Mezu "ezkertiar eta independentista" zabalduko du alderdi abertzaleak ibarrean, herririk herri

U.M. | DEBAGOIENA

Hiru ekimen nagusi iragarri ditu Debagoienerako EH Bilduk hauteskunde kanpainari begira: Oñatin astelehenean (maiatzaren 12an) 19:00etan izango dira Maite Aristegi diputatua eta Rebeka Ubera, Gipuzkoako Batzar Nagusietako kidea. Arrasaten, maiatzaren 16an (egubakoitza) 19:00etan Herriko Plazan izango dira Pello Urizar EAko idazkari nagusia eta legebiltzarkidea eta Marian

Beitilarrangoitia legebiltzarkidea eta Hernaniko alkate ohiak. Eta Bergaran, maiatzaren 22an, Munibe plazan izango dira Maite Aristegi eta Juanjo Agirrezabala legebiltzarkidea eta EAko nazio batzordeko kidea.

Ekitaldiorain gainera, baina, herririk herri hitzaldiak ere egingo dituzte, eta, besteak beste, astelehenean AHTren obren Bergarako zatian agerraldia egingo du Rebeka Uberak, 11:00etan.

Arrosak banatzen hasiko dute sozialistek kanpaina

Tradizioari eutsi eta gaurko (egubakoitza) hitzorduarekin estreinatuko du alderdi sozialistak maiatzaren 25eko hauteskunde kanpaina. 11:00etan elkartuko dira Arrasateko San Andres kalean Gipuzkoako idazkari nagusi Iñaki Arriola, Blanca Roncal legebiltzarkidea, Paco Gartzia Arrasateko idazkari nagusia, Aritz Arrieta Arrasateko udal bozeramailea eta bertako zinegotzi sozialistak. Besteak beste, arrosak eta kanpainaren gaineko eskuorriak banatuko dituzte.



PHONO GUNE

otorrinologikoa klinika

HEMEN GAUDE:

Udalaitz Mediku Zentroa

Nafarroa hiribidea 3 ARRASATE – 943 71 25 40

Urbietako Mediku Zentroa

Urbietako kalea 58 DONOSTIA – 943 47 01 44

Otorrinologikoa kontsulta berria ARRASATEN (Udalaitz Mediku Zentroan)

Juanjo Navarro eta Mikel Landa doktoarek

Azterketa diagnostikoa teknologia aurreratuarekin eta ENTZUMEN, SUDUR, EZTARRI eta LEPOko gaixotasunen tratamendu mediku-kirurgiko integrala:

- Gortasuna, zorabioak (bertigoak) eta akufenoak
- Arnasteko zailtasunak. Errinoplastia estetikoak
- Zurrungen eta loaren apnearen tratamendua.
- Ahotsaren patologia eta otorrinologikoa pediatrikoa

Iñaki Zarraoa | Gure Esku Dago ekimeneko kidea

"Herria protagonista izatea oso garrantzitsua da erabakitzeke eskubidea aldarrikatzeko"

- ▶ Iñaki Zarraoa jeltzale getxoztarrak Bergaran parte hartuko du ekainaren 8ko giza katean
- ▶ Oraingo egunetan Debagoiengan izan da giza kateko lekua eta antolaketa ezagutzen

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura sailletan ibilia da eta EITBko zuzendari nagusi eta Getxoko alkate izana ere bada. Iñaki Zarraoa jeltzalea erretiratuta dago eta politika ere albotik segitzen du, "herriko batzokian". Erabakitzeke eskubidearen alde lanean diharduen Gure Esku Dago ekimenean, ordea, buru-belarri dihardu. Ekainaren 8ko giza katean parte hartuko du eta, hain justu ere, gure eskualdean, Bergaran, parte hartuko du herrikide getxoztarrekin batera.

Bergaran izan zarete asteburuan. Zertara etorri zarete?

Ekainaren 8ko giza katean Getxok hiru kilometro izango ditu Bergara eta Antzuola artean, eta, kilometro horietako bateko arduradun naizenez, tokatu zaigun tartea ikusten egon gara Bergaran. Logistika kontuak eta aztertzeke. Horrez gain, Bergarako jaigunean zertzuk antolatu diren azaldu digute Bergarako Gure Esku Dagokoek.

Ze inpresio jaso duzue?

Oso ona: oso adeitsuak izan dira gurekin eta oso ondo hartu gaituzte. Azalpen zehatz eta osoak eman dizkigute, geure ekarpen edo zalantzak aintzat hartu dituzte, berehala erantzun digute...

Zenbat lagun espero duzue etortzea Getxo aldetik Debagoienera?

Getxo, Gorriluz eta Plentzia elkarrekin ari gara, eta, berez, 1.200 lagun tokatzen zaizkigun arren, gehiago joango gara bada. Astatik astera jende berria dator metroak erostera, eta 2.000 inguru izango gara. Ikusi beharko dugu, azken unean, antolakuntzatik zer esaten diguten, eta horren beteta ez dauden kilometroak betetzea tokatuko zaigu, agian; hau da, Bergarako gain, beste toki batzuk.

Noiz hasi zineten lanean Getxon Gure Esku Dago ekimenarekin?

Urtarrilean egin genuen aurkezpena, Faduran. 450 bat lagun elkartu ginen eta, hasiera batean, giro hotz samarra antzeman genuen kalera atera ginenean, batez ere informazio gutxi zegoelako. Baina hedabideetan eta agertzen joan denean, gero eta gehiago hurbiltzen zaizkigu. Euskaldunok, jeneralean, gauza hauek, azken unean ematen dugu izena. Gu Algortan ari gara batez ere eta Getxoko auzo horretan 1.500 bat lagunek egingo dugu bat giza katearekin.

Algortan talde zabala osatu duzue?



Iñaki Zarraoa Bergaran, joan zen egubakoitzean, Gure Esku Dagoen ormairudiaren aurrean. | IMANOL SORIANO

Hasieratik ahalegindu gara era guztietako jendea batzen. Hori oso garrantzitsua izan da, gerora ere, ideologia guztietakoak hurbildu ahal izateko. Adinari dago-kionez, bestalde, jende gaztea azkeneko asteotan hasi zaigu hurbiltzen. Une honetan, sentzibilitate politiko ezberdineko jendea ari gara taldean. Bizikidetzaren aldetik oso garrantzitsua da hori. Izan ere, behin eta berriro gabilta esaten bizikidetzako oso inportantea dela, ezberdinen artean konpondu behar dugula, alegia. Berdinen artean konpontzea erraza da, zailena da ezberdinen arteko harremana. Uste dut Gure Esku Dago gizaritari egiten dion ekarpena hori dela. **Giza katea diferenteen arteko ekimena dela aipatu duzu. PSE-EEko gutxi, ordea, erabakitzeke eskubidea aldarrikatzeko gertu...**

"Bergaran oso adeitsuak izan dira gurekin eta oso ondo hartu gaituzte"

"Bizikidetzarako ere oso-oso inportantea da Gure Esku Dago bezalako ekimena"

Kostatzen ari zaie, baina uste dut lehenago ere aitortu izan dutela erabakitzeke eskubidea. Eta Gema Zabaleta sailburu ohia, esaterako, gerturatzen ari da, eta Bilboko itsas adarraren ezker aldeko gazte sozialista geroago eta gehiago ere bai. Baina eragin handia dauka euskal sozialistengan PSOEk daukan jarrera gai honekiko. Uste dut, hala ere, hurbilduko direla, herri hau normalizatzeke eta bizikidetzan aurrera egiteko.

Bergaran, EAJko edo jeltzaleen inguruko jende gutxiago hurbildu da, oraingoan, ekimenera. Getxon ere hala da?

EAJrekin hitz egin zuen Gure Esku Dago ekimenak. Gainerako alderdiekin hitz egin zuten moduan. Azaldu zitzaizkien proiektua, herri ekimena dela nabarmenduz eta alderdien atxikimendurik ez dugula nahi, herrien atxikimendua baizik. Gure Esku Dago ekimenak lortu nahi du herria mugitzea helburu baten alde, giro bat sortzea, alderdi politikoek babes edo zoru bat izan dezaten dagokien erakundeetan dagokien ekimenak bultzatzen dutenean. Eskubide horren alde jende asko dagoela atzean. Baina ez dugu alderdien babes espliziturik nahi orain. EAJk libre utzi die alderdikideei, nahi badute, ekimenean parte hartzeke. Algortan, EAJko batzuk gaudu batzordean eta jeltzale asko dago, modu normalean, ekimenean parte hartzen. Badakit beste herri batzuetan ez dela horrela, baina

ezker abertzaleko batzuk ere ez dira horren bizkor apuntatu ekimenera. Herri batzuetan, alderdi ezberdinen arteko egoera edo arazoak handiak dira edo izan dira. Eta ulertzekoa da batzuei kostatzea elkarrekin aritzea. Baina kritiken ordez, gauzak lasai hartu eta apurka-apurka jendea geureganatzeko lanean jarraitu behar dugu.

Ekimen honek eta gizarite zibilak, oro har, zenbat eta indar handiago izan, alderdi ezberdineko jendea hurbiltzen joango da poliki-poliki?

Bai, sinistuta nago hori hala izango dela. Zenbat eta ezagunago izan ekimena, orduan eta arrakastatsua izango da giza katea, oihartzun handia izango du eta jendea hurbiltzen joango da. Batzuk damutu egingo dira giza katean ez parte hartzearen. Normala da

"Espainiak ez du errespetatzen nazioarteko eskubidea"

"Ibarretxeri ezezkoa eman ziotenean, gizaritea ez zen mugitu"

zalantzak edukitzea ea norik agintzen duen halako proiektu baten, baina ahaleginak egiten gabilta aniztasuna bermatzeko, eta, denon ahaleginarekin, jendea hurbilduko zaigu.

Ze espero duzue ekainaren 8an?

Aurreikuspenak gaindituko ditugu. 50.000 lagun parte hartzea gaindituko dugu erraz, baina ez gaindituko ere, aurrera egin behar dugu. Helburua ez da 50.000 lagun batzea, urrunago doa. Helburua da gizaritea mugiaraztea, alderdi politiko eta agintariei erabakiak hartzen laguntzeko.

Zertarako balioko du giza kateak?

Inportantea da erabakitzeke eskubidearen alde gaudenon diskurtsoa sendotzeko. Bestetik, herria protagonista izatea oso garrantzitsua da. Gero, bizikidetzarako ere oso-oso inportantea da.

Zela begiratzen diezu Kataluniari eta Eskoziari, eta han gertatzen ari denari?

Bi erreferente dira, ezberdinak biak ere. Bereziki, inbidiaz, Eskoziari begiratzen diot. Ez dute borrokatu behar izan erabakitzeke eskubidearen alde. Londresko gobernuarekin adostu dute, batere arazo barik. Guk eskatzen duguna Eskoziak badauka. Eskubide hori gauzatzera doa erreferendumean. Kataluniari, ostera, guri bezala, ez dio aitortu eskubide hori Espainiako gobernuak, ez du errespetatzen nazioarteko eskubide edo printzipioa.

Zein da oztipo nagusia herri galdeketa egin ahal izateko hemen?

Espainiako gobernu edo Estatua eta, batez ere, bi alderdi nagusien jarrera. Ez dezagun ahaztu PSOE ere. Baikor naiz, halere, PSE-EE ere gure aldarrikapenetara etorriko dela uste dudalako, baina PP beste kontu bat da.

Ibarretxe saiatu zen erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen. Ze ezberdintasun dago lehendakariaren ahalegin instituzionalaren eta Gure Esku Dago ekimenaren artean?

Alde nagusia da Ibarretxerena ekimen instituzionala izan zela. Eta ezezkoa eman ziotenean, gizaritea ez zela mugitu. Beste sasoi bat zen. Gure Esku Dago ekimenak, berriz, nahiko luke, poliki-poliki, indartzen joan eta Legebiltzarrean edo Gobernuan proposamen bat egiten denean, gizaritea atzean egotea.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

JUAN MARI OKINA
goiena.net/komunitatea/



Artaldean

Hona, nire aita izandakoak kontatutako *ipuintxo* bat. Bazen behin belarra lasai jaten zebilen ardi talde bat. Bat-batean, aurreko egunetako euriek eragindako zulo handi batera jausi ziren bi ardi. Gainerako ardiak zuloaren inguruan bildu, eta bere sakontasuna ikusita eta bertatik irtetea ezinezkoa zela iruditu zitzaizenez, bi ardi gaixoei esan zieten onena zela hil egin behar zirela onartzea.

Bi ardiak, *lagunei* jaramonik egin gabe, zulotik indar guztiekin irteten saiatu ziren. Goikoek, berriz, irteten ez ahalegintze-ko oihukatzen zuten, alferrik zela, gehiago sufrituko zutela.

Ordubetez irteteko ahaleginetan ibili eta gero, ardi batek goikoei kasu egin eta amore eman zuen. Lurrean etzan, eta handik gutxira hil egin zen.

Goiko ardiek gero eta oihu ozenagoekin errenditzeko esaten ziotela, beste ardiak ahaleginetan jarraitu zuen, gero eta salto handiagoak emanez... eta beste bi ordu *borrokan* jarraitu eta gero, zulotik irtetea lortu zuen!

Beste ardiek, guztiz harrিতuta, galdetu zioten: "Baina ez al duzu entzun zer esaten ari ginen?". Ardiak gorra zela azaldu zien. Ardiak oihuak zulotik irteteko animoak zirela uste zuela, eta animo horiei esker zulotik irteteko indarrak lortu zituela.

Hausnarketa: gizakiok *artaldean* bizi gara eta bestean hitzek eragin handia daukate gudan. Egungo egoera konplikatuan, askok *borrokan* dihardute egunero bizitzan aurrera egiteko. Kontuz, beraz, hitz *negatibo* batek desanimatuta dagoen pertsona bat *suntsi* dezake.

Kontuz zer esaten dugun. *Kontuz* zer entzuten dugun. Ez da beti ona besteek esaten digutena entzutea. Selektiboak izan gaitezten eta geuretzat ona eta erabilgarria dena bakarrik entzun dezagun. Geure inguruan daudenei poztasun eta esperantzarekin hitz egin diezaiagun. Eta gure inguruan gertatzen diren gauza on eta positiboak ikusteko jarrera eduki dezagun. Hori da aurrea egiteko eta pertsona moduan hobetzeko benetako indarra.

USTEAK USTE

AMAIA TXINTXURRETA | atxintxurreta@goiena.com

Jaietan ez utzi plazak hutsik

Asteburu honetan ospatuko dira Oñatiko San Migel Txiki jaiak. Horrek zer esan nahi duen? Irailean ospatzen ditugun San Migel jaiak pasa arte, behintzat, herrian ez dela festa girorik faltako. Baina ez bakarrik Oñatin, inguruko herri eta auzoetan ere badihardute festak ospatzen. Hori nabaritzen da baita jaietan abeslari moduan edota musika jartzen ibiltzen garenon artean; dagoeneko asteburuetakoa agenda bete-beteta daukat! Hala ere, esan behar dut tristeza dela plazak hutsik ikustea. Nire gomendioa: ez utzi plazak hutsik taldeak euren erromeriak edo kontzertuak ematen ari direnean edo DJa lanean dabilenean, animatu eta dantzatu zuek ere plazetan!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Benvenuti to East Belfast! (Edo Italiako Giroak auzo katolikoak nola saihestu dituen)

Jon Torner
argia.com/blogak/jon-torner/

Belfastetik abiatuko da bihar, ostirala, Italiako Giroa. Txirrindulariek hiru egun emango dituzte Irlandan, iparraldetik hegoalderako bidean. Herrialdea turistikoki promozionatzeko estrategia egokia dela uste dute agintariek; baita, Ostiral Santuko akordioa sinatu zenetik 16 urte igaro direnean, gatazka armatuaren zauriak apurka-apurka desagertuz ari direla erakusteko ere, bi etapa jasoko dituen Belfast "eraberriaren" kasuan nabarmendu duenez.

Zer ikusiko dute, ordea, lasterketa telebistaz jarraituko duten 800 milioi ikusle potentzialak?

Zer erakutsiko dute moto eta helikopteroetako kamerek?

Eman begiratu Italiako Giroko lehen etaparen ibilbideari. Erlojuz kontrako 21,7 kilometro dira, Titanic Quarter auzoan hasi, ekialderantz jo Stormont-eko parlamenturaino, eta handik erdialdera, udaletxe atarian amaitzeko.

[...] txirrindulariak ez dira pasako gehiengo katolikoa duten auzoetatik; bai, ordea, protestanteak nagusi diren ekialdeko zonaldeetatik.

Erabakiak haserrea piztu du komunitate katolikoan, Belfast mendebaldekoa apropos baztertu dutelakoan. "Ziklistak Falls kalean gora eta behera ikusteak irudi positiboa helaraziko luke mundu osora. Hiria promozionatzeaz ari gara; tristeza da hura lasterketatik baztertea", adierazi du Sinn Feinn alderdiko parlamentari Paul Maskeyk.

Ibilbidearen inguruko erabakiak Italiako Giroa kudeatzen duen RCS Sport taldeak hartu zuela adierazi du Irlanda Iparraldeko Parlamentuko ordezkari Alastair Rossek.

Gaineratu duenez Gobernuak 3 milioi libera ordaindu ditu lasterketa hartzeagatik. "Publizitate terminoetan, hamar bider

gehiago jaso dugu jada", azaldu du, Giroak izango duen inpaktu positiboaz mintzo.

Irlandar gatazkaren isla diren mural errepublikar ugari dago Belfast mendebaldean; baita unionistak ere, Shankill kale protestantean batez ere. Ez ditugu telebistaz ikusiko. Ez muralik -Belfast ekialdeko margolan unionistak salbu?-, ezta, ziurrenik, Giroa hasi eta 11 egunera egingo diren hauteskundeetarako kartelik ere, halakorik ez ipintzeko deia luzatu baitzaie alderdi politikoei.

Hala ere, pentsatzekoa da herritarrek haien sinbolo identitarioak ikusarazten saiatuko direla; eta horretarako aukera askoz ere handiagoa izango dute lasterketa etxe ataritik jarraituko duten auzotar protestanteek.

Informazio gehiago:
-Loialistek desfilea egingo dute larunbatean Belfasten, bigarren etapa abiatzean. (*Belfast Telegraph*)

-Banderak kendu eta muralak ezabatzeko deia (*U.tv*)

-David Stitt, UDAko preso ohia: "Belfast ekialdeko mural [loialistak] ez ditugu ezabatuko. Erakargarriak dira, ibilbide turistikoaren parte". (*Irish Mirror*)

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifiano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAN ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Erramu Zapatuko bazkaria

Beñat Iñarra Lasa

(Erramu Zapatuko lagun taldea) Bergara

Badira jada 7 urte Erramu Zapatua indartu behar zela ikusita lagun talde bat batu ginela. Bi arrazoi nagusi aurkitu genituen horretarako: alde batetik, euskal nortasuna eta ohiturak bultzatzea; eta bestetik, goizeko egitarau bat egun guztikoa bihurtu zedin lortzea.

Aurtengo edizioa ere joan zaigu eta orokorrean balorazio positiboa egiten dugu. Herri bazkarian jende asko eta giro ezin hobea, eta txarangarekin kale animazio ikaragarria.

Hala ere, hau guztia ez litzateke posible izango herriko hainbat merkatariri esker izan ez balitz. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Mizpaldi eta Konde okindegiei; Bixain harategiari; Mujika, Raizabal eta Larrañaga gozotegiei; Miner ardoei; Mertxe urdaitegiari; Berroia inprentari eta Bergarako Udalari.

Honez gain, eskerrak baita aurten bazkaria zerbitzatzten eta muntaian/desmuntaian lagundu diguten Gure Esku Dago taldekoei, lan handia egin dute, benetan. Baita bazkaria alaitu eta animatu duten txaranga eta trikitalariei ere. Kataluniaren eta Euskal Herriaren arteko giza kate txiki bat sortu dela uste dugu. Baita esker berezi bat zazpi urte hauetan gurekin lan egin duten sukaldariei. Ezin aipatu gabe utzi desmuntai egiteko geratu ziren hainbat pertsonaren laguntza ikaragarria. Gauzak pertsona askoren artean errazago egiten dira, noski!

Halako egunak antolatzean, ordea, dena ez da positiboa izaten. Jakin badakigu bazkarirako txartelak lortzeko arazoak izan direla, baina plazak mugatuak dira, bai espazio kontuak direla medio eta baita antolatzaileak talde txiki bat garelako eta ezin dugulako jende gehiagorentzat bazkaria antolatu. Horrez gain, txartelak salgai jarri dituzten tabernei (Depor, Eusebio, Ariznoa, Pol-Pol, Etxagi eta Frontoia) eskerrak eman nahi dizkiegu. Baina tabernari batzuen jarrera ez dugu inolaz ere ulertzen. Kritikak onartzeko prest gauden arren, ezin ditugulako errespetu faltak jasan aurten gertatu den bezala. Honelako egunak antolatzearekin etekin ekonomikoa nagusia (antolatzaileok honetatik ezer ez baitugu ateratzen) lortzen dutenen aldetik laguntasun handiagoa nahiko genuke.

Baina garrantzitsuena alde positiboarekin geratzea denez, orain dela zortzi urte Erramu Zapatua zer zen eta zertan bihurtu den ikusteak erabat

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

betetzen gaitu. Honetarako, baina, lan handia dago eta antolaketa honetan laguntza eskertuko genuke; izan ere, ereindako haziak fruituak ematen jarrai dezala nahiko genuke.

Besterik gabe, eskerrik asko eta hurren arte.

Eskuz esku, bagoaz!

Jon Zuloaga Ariño

Arrasate

Lehenik, eskerrik asko eta zorionak apirilaren 12an, Gure Esku Dago dinamikaren baitan, erabakitzeo eskubidearen aldeko atxikimendua helarazi zenuten horiei.

Ez zen argazki makala izan Kulturateko klaustroetan atera zena; ideologia, iritzi zein ikuspuntu ezberdina duen jendea eskutik helduta.

Hau ikusteko parada izan genuenok bihotzez eskertu nahi dugu herritar horiek elkarrekin agertzeko ahalegina bera egin izana, urte luzeetako konfrontazioari amaiera eman nahian eta guztiak oinarritzko eskubide baten aldarrian, itxaropentsu.

Herri honek, Euskal Herriak, urte luzeetan urratua izan du bere buruaren jabe izateko eskubidea, eta ez eskubidea soilik, erabakitzeo aukeraren hautua bera egitea ere ukatua izan zaio gaurdaino.

Nork ukatu diezaioke herri bati edo gizatalde bati zer izan nahiaren hautua bera egitea? Inork ez teoriar, baina fikziozko ipuin liluragarrietatik haratago, herri honek hori jasan behar izan du.

Arrasaten, bada, beste herri askotan bezalatsu, dinamika berri bat jarri da abian eta nik, bederen, geldiezina izan daitekeen zantzuak aurkitzen dizkiot.

Askotariko jendea elkarrekin ikustean, konturatu daiteke edonor oinarritzko eskubide batek guztiok hartzen gaituela bere baitan, nahiz eta bakoitzaren helburu edo herri egitura ikuspuntua desberdina izan.

Inork ezin baitezake bere helburu hori lortu, lantzeko eta hautatzeko eskubidea bera ere ukatua baldin badu.

Ez noa asko luzatzera.

Gustatuko litzaidake apirilaren 12ko argazkiak, atxikimendutik haratago, zerbait balekar berarekin; herri honi bere eskubideak bermatuko dizkion herri lanketa bat martxan jartzea, adibidez.

Ez da lan makala izango eta bere denbora eramango du, gainera, baina biharko fruituek gaur-gaurko lanketa eskatzen dute.

"Inon ez inor menpekorikan nor bere buruan jabe, herri guztiok bateginikan ez gabiltz gerorik gabe", dio euskal kanta batek, eta horri heldu behar diogu tamalez, beste aukerarik ez baitigute utzi handi-mandiek, baina indartsu bezain itxaropentsu.

Har dezagun bidea... Gure Esku Dago eta!

"Ez Jainkorik, ez jaberik, norbere errealitateari baino ez aginduta" (anarkisten lema bat)

Axu Cardenal

Aretxabaleta

Badira bi aste inguru, Aretxabaletako 5. edukiontziaaren plataformaren aldekoek berriro ere eszenatokira igo eta demokraziaren bandera aireratuz prentsaurrekoa eman zutela. Hortxe nengoen, telebistari begira, harri eta zur, une batetik bestera *"Ni Dios, ni amo, no obedeciendo cada uno más que su propia voluntad"* oihukatuz prentsaurrekoa bukatuko zutelakoan ni neu ere prest sofatik salto egin, eta ukabila altxatuz irrintzi bat botatzeko.

Barka egidazue eman zenuten prentsaurrekoaren gaineko begirada ironikoak mindu egin bazaituzte, baina hiri hondakinen inguruan antzetzutako psikodramari umore apur bat gehitzeak ikuskizuna entretenigarriagoa egingo duelakoan nago.

Zuen taldearen jardunbidea ez dut konprenitzen. Eta begirune osoarekin nire kritika helarazi gura dizuet. Maileguan hartu dudana metafora batekin hasiko naiz:

Errealitatea, tipula bezala, hainbat geruzatan antolatuta

dagoela irakurri izan dut. Kontakizunak beti edo gehienetan du geruza bat baino gehiago. Bada geruza bat kontatzen zaiguna, begi bistakoa baina bada beste azpiko geruza bat, lausoagoa, isila, lurpeko erreka bat bezala aurrera eramana gura dena.

Hiri hondakinen gaia desitxuratzen eta sinplifikatzen ari zareteela uste dut. Intoxikazio kanpaina guztien gainetik ezin duzue agerikoa dena ezkutatu: hondakinak kudeatzeko bi eredu arteko ezberdintasunak, gaur egun EH Bilduk bideratzen ari duena, birziklapena ardatz duen eredua, eta orain artean EAJk eta PSOEk defendatzen zutena, iraganekoa eta oraindik temati heldten diotena: errauste plantak eta zabortegeak, hau da, birziklatzearen aurka doazen politikak.

Pintada baten irakurri dudana testutxoak zuekin konpartitu gura dut.

Erraustegia eta zabortege toxikoak: burua ondo daukanak ez ditu bere etxe ondoan nahi, bihotz ona daukanak besteen etxe ondoan ere ez ditu nahi. Zero zabor, burua eta bihotza.

Jakinean aretxabaletarren borondateari esker tonak zabor Beasainera eramaten ditugula, non dago zuen *bihotza?* Zergatik ez duzue salatu aurreko agintarien *inposaketa* eta bide batez herri kontsultarik eskatu? PNVk eta PSOEk Zubietako erraustegia gipuzkoarrei inposatu nahi zigutenean non zeundeten? Etxean edo gainontzeko taldeekin batera kalean ingurumen jasagarri eta osasungarri baten alde borrokatzen? Zergatik...

Paco Alvarezen hitzaldia

Gorka Martinez

(Harreman Denda Bidezko Merkataritzako koordinatzailea) Arrasate

Pasa den astelehenean Kulturateko Areta Nagusira gerturatu ginenok *Ekonomia, Ongizatea eta Bidezko Merkataritza* kontzeptuen inguruko solasaldi batez gozatzeko aukera eduki genuen, Pacoren eskutik. Seguruenik, bakoitzak bere

barne-hausnarketak eta ondorioak aterako zituen, baina argi utzi ziguna da (aurretik ez bagenuen argi...) "ukaezina" den aldaketa bat behar dugula. Hau nola gauzatu, hor dagoela koxka. Gaur egungo goi-botereek (bai politiko eta ekonomikoek) erakutsi digute ezer aldatzeko borondaterik ez dutela; beraz, "guk" gure esparruan egin beharreko bide bat izan beharko dela. Kontsumitzaile bezala dugun botereaz

auto-konbentzitu behar gara, benetako kontsumo arduratsu batean oinarrituz, poliki-poliki aldaketa-nahiak errealitate bihurtzeko. Pacok ere nabarmentzen zuen bezala: enpresa mailan zenbait alternatiba (Ondasun Komunaren Ekonomia deritzona) martxan hasiak dira, gure enpresek poliki-poliki beste erabateko ekonomia egiteko helburuarekin, guztion ongizatea ardatz hartuz. Aipatu nahiko nuke gure bailaran, besteak beste, Fagor Industrialekoak hasiak direla irizpide ekonomikoek gain, sozialak eta ingurumenekoak enpresaren balantzeetan azalarazten. *Pausotxo* hauek ematera konprometi gaitezen!

Aprobetxatu nahi dut tarte hau hitzaldiaren diru-kontuak argitzeo: ez geneukanez fondorik jardunaldi hau antolatzeo, erabaki genuen bertaratutakoen borondatearekin aurre egitea gastuei (aurreko urtean Arcadiren hitzaldian egin zen bezala). Hona hemen gastuak; 793 euro. Kutxetan jaso genuena, berriz, 377 euro izan ziren. Beraz, antolatzaileok egingo diogu aurre diferentziari.

Bertaratzeko aukerarik ez zenutenok izan, laster saioaren grabazioa zintzilikatuko dugu www.harremandenda.org helbidean.

Eskerrik asko Ospitaleko lantaldeari

Maria Angeles Larrañaga Orozko

Bergara

Debagoieneko Ospitalean ingresatuta egon naiz Aste Santuan, ebakuntza baten ondorioz. Suposatzen dut halakoetan beldurra sentitzea dela normalena, eta halaxe joan nintzen ni ere. Zorionez, ebakuntza primeran atera zen eta laugarren solairuan eduki ninduten hurrengo egunetan, alta eman zidaten arte.

Bada, eskerrak eman nahi dizkiot egun haietan inguruan izan nuen lantalde profesionalari: ginekologo, erizain, laguntzaile, eta abar, guztiak primeran portatu zirelako nirekin. Ez dut ahaztuko han jasotako tratu bikaina.

DUELA 10 URTE

2004-05-14

AP-1 autobidea, eraikitzen

Maltzaga eta Bergara arteko zatia bakarrik zegoen irekita oraindik, eta denak ez zeuden ados Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoe-kin; Eskoriatzan, adibidez, izan zen mugimendua, eta hainbat proposamen aurkeztu zituzten, azpiegituraren ondorioak txikia-gotzeko. Aldaketak proposatu zituzten, adibidez, ehunka urteko 50 bat haritz salbatzeko. Oñatiko zubibideko lanak nola zeuden ikus zitekeen orduko alean.



Elorregi gaineko zubibidea, lanetan. | ENENKO AZKARATE

2004-05-14

Tranbiaren ibilbidearen gainekoak

Eta beste azpiegitura bat ere bai, kasu honetan azkenean egin ez dena. Eusko Jaurlaritzak garai hartan egin zuen tranbiaren lehen trazatuaren proiektua. Asmoa zen Vasco-Navarro trenaren bidea erabiltzea, eta baita herrien erdigunera sartzea ere. Baina arazoak zeuden, kale batzuk estuegiak zirelako tranbia, autoak eta oinezkoak sartzeko. Obrak 2005ean hastea eta bi urtean bukatuta egotea zen asmoa.

DUELA 5 URTE

2009-05-08

Jose Luis Elkoro preso

18/98 auzian, 55 laguntzako espetxe zigorra ezarria zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak 2007an, baina 2009ra arte kalean egon zen Elkoro. Epaileak, baina, baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu, eta preso eraman zuten. Alaba Kristinak zioen Soto del Realen zegoela uste zutela, baina ez zutela aitaren berririk.

OÑATI

Pili Irazabal Txantxiku Ikastolako irakasle izana eta liburuzale amorratua, hiru irakurle taldeetan dihardu, bat Pake Lekukoa, eta erretiratuen elkartean euskara irakatsi ere egiten du | JULEN IRIONDO

"Literaturak asko lagundu dit neroni kokatzen; niretzat, gozamenaz gain, salbamina da"

Odol emaleen taldekoa ere bada; eman dezan animatzen du jende dena. Eta odolean daramatza, esandakoa, literatura, eta irakasle izaera.

Irakasle izandakoa...

... hori ez da uzten, irakaslea naiz...

... hortik, hortik joan nahi nuen; izaera hori mantentzen da, beraz, behin jardura utzitakoan ere.

Bai, bai. Oso txikitatik dut barruan irakasle izatearena, horri ez zaio uzten. Ez da lanbidea bakarrik niretzat, izaera bat da, gustuko gauza bat, oraindik gustatzen zaidana, interesatzen zaidana; oraindik gainean egoten naiz.

Gaietan egon, baita lantoki izan zenueneko kontuen gainean ere?

Bai, oso hurbiletik. Bidaiatu ere egiten dut oraindik lankideekin, edo bazkari eta afarrietan egoten naiz, sarri-sarri. Interesatu egiten zaizkit euren arazoak eta euren lorpenak, dena; neureak dira, nik lehenengo pertsonan hitz egiten dut beti. Benoa, oraindik bazkide naiz gainera.

Zure izaeran zer dago irakasle- rako halako joera eragiten duena?

Gauzetako bat, behintzat, beti esan izan didatena da jendearekin lan egite hori badagoela nire seneari. Eta, gero, uste dut izaten direla irakasle batzuk aztarna

uzten dutenak norberarengan, eredu izan diren irakasleak.

Esan didate zorrotza baina irakasle ona zinela, oroitzapen onak dituztela zurekin.

Orain egitean norberaren ibilbidearen balorazioa, ardura gehiago ematen didate asmatu ez genuen pertsona haien kasuek: "Agian gogorregia izan nintzen nahi nuelako aurrera ateratzea, baina ez nuen asmatu; momentu honetan beste era batera egingo nuke..."; horrek ardura ematen dit. Ez dut uste irakasleek hainbeste eragin dugunik pertsona baten ibilbidean, ibilbide pertsonalean; eskola ibilbidean izan daiteke, baina gauza bat da eskola porrota, baina askoz gogorragoa da pertsona gisa porrot egitea. Baina egongo da jendea esango duena: "Eskolan ez zuten asmatu nirekin, ez ninduten ulertu...". Eta halakoetan pentsatzen duzu: "Egongo da jendea nire eskuetatik pasatuko zena". Eredu bezala marka zaitzake irakasle batek, baina kontrakoa ere izan daiteke. Eta ardura hori geratzen da.

Laguntza gelan ere jardun zenuen.

Bai, irakasle laguntzaile moduan egin nuen nire ibilbidearen zati handiena, curriculum jarraitzen ez zuten umeekin. Oso aberasga-

HERRITARRAK



Pili Irazabal, bankuan jarrita liburua irakurtzen. | J.I.

"Horri ez zaio uzten; irakasle izatea ez da lanbidea bakarrik, izaera bat da"

"Aurten, ez dakit zergatik, pare bat odol emate oso baxuak izan dira"

ria da: asko eskatzen dizu baina erakutsi ere bai. Ikustea umeak nola doazen aurrera zuk tiratuta... Gustuko lana hori izan dut.

Oso irakur-zalea zara.

Oso txikitatik. Beti debekatu egin izan zidaten, eta horren ondorio ere izan daiteke zaletasuna. Etxean ere bai, abadeak esanda, adibidez, asko irakurtzen zuen jendeak asko erantzuteko joera izaten zuela. Eta eskolan, berriz, ez genituen liburu asko eskura, eta, gero, manta azpian irakurri behar zen, edo komunean. Eta badakizu, debekatzen dena... Baina literatura asko lagundu dit neure burua ezagutzen, kokatzen. Niretzat literatura da gozamina ez ezik, salbamina ere bai.

Odol emale taldekoa ere bazara.

Bai, orain ezin dudana arren eman. Eta azken urteetan oso emaitza onekin ibili garen arren, aurten, ez dakit zergatik, pare bat oso baxuak egon dira, eta kezkatuta

nago. Ez dakit erlaxazio puntu bat den... Jendeak utzi egiten dio, arrazoi desberdinengatik, eta berriak behar dira. Egia da joan egin behar dela, askotan ilaran egon, orratza sartu... Baina ordu erdi edo ordu bate da hiruzpalau hilabetean behin. Eta ezin da *on line* egin, ze gazteak oso ohituta daude dena *on line* egiten. Baina zerbait gertatzen zaizunean eta ospitalera zoazenean ere hori ez da *on line*, eta baten baten odola sartu behar dizute. Ea jende gehiago animatzen den!

Kale Zaharrean bizi zara, asteburuan San Migel Txikiak...

Ospa! Gaietan bizi gara, eta esperientzia oso txarra da bertan egotea. Edo kalean zaude, gau-pasa egiten, edo... Garai batean geratzen nintzen, baina orain ez. Guk sobrea ematen dugu, jaiak antolatzen laguntzeko, eta gero alde; adinaren kontuak. Baina jaiak oso garrantzitsuak dira.

NIRE HERRIAN

ZERBITZUAK, OSO ONDO

Orokorrean, dena dut gustuko Oñatin: herri polita dugu, tamaina egokikoa; zerbitzu aldetik, oso ondo dago; aisialdirako aukerak gustu guztietarako ditu, ia. Gaur egun bizi dugun krisia bukatu eta lan aukerak gehitzen badira... bikain. Ez dut imajinatzen nire bizitza Oñati ez den beste leku batean, egia esan behar badut.

OINEZKOENTZAKO TRABA AUTOAK

Oinezkoentzako kaleak izan arren, goizetan ia ezinezkoa izaten da Kale Zaharrean eta Kale Barrian ibiltzea, batez ere orga, bastoi, aulki edo beste zerbaitekin mugitu behar baduzu. Autoak bazterrean, autoak aurrera eta atzera, eta oinezkoak non ibili edo non ezkutatu ez dakigula. Egoera arriskutsuak ia egunero ikusten ditut.

HERRIAK

ARAMAIO

Lorabbarri Astea, bertakoari balioa emateko erakusleiho

- Gaur hasi eta hilaren 17ra arte, denetarik egongo da: tailerrak, hitzaldiak, ibilbide gidatuak, azoka...
- Aramailur kontsumo taldeak antolatu du ekimena bigarrenoz, beste hainbat talderekin elkarlanean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko Aramailur kontsumo taldeak eta beste zenbait taldek elkarlanean, Lorabbarri Astea antolatu dute gaur hasi eta hilaren 17ra arte: "Aramaiok badu zer erakutsi, bai herriko jendeari eta baita bailarako jendeari ere. Hori da Lorabbarri Astearen helburua, zer dugun erakustea", adierazi du Aramailur taldeko Jokin Orobengoak. Iaz antolatu zuten lehen aldiz, eta, iazko "esperientzia ona eta arrakasta" ikusita, aurten berrito antolatzea erabaki dute.

Iazko antzeko planteamendua egin dute; aurtengoa luzeagoa da, akaso: "Azoka izan ezik, egitarauan ez dugu ekintzarik errepikatuko. Hitzaldiak eta tailerrak ezberdinak dira eta ibilbideak zein beste antzeko ekintzak ezberdintzen saiatu gara. Berrikuntzarik badagoen? Ekintza guztiak izango dira berriak aurten", dio Orobengoak. Hortaz, iaz parte hartu zuenak aurten ere ikasiko du zerbait: "Alde horretatik, ez da aspertzeko astirik izango".

Paul Nicholson dator

Egitarauari erreparatu, denetarik egiteko aukera egongo da aste osoan: elikadura burujabetza, herriko ondarea eta kultura eta bertako ekoizpenak ezagutu, herritarren artean ezagutzak konpartitu eta nekazaritza ekologikoaren nondik norakoak berri jaso, besteak beste. Lehen ekintza gaur bertan izango da, ogi ekologikoa egiteko tailerra. Izena eman dutenek Divina eta Rakel



Iazko Lorabbarri Aste azokan, herritar bat Arbaso garagardo ekologikoari begira. | ARAMAILUR

ESANAK

"Azoka izan ezik, egitarauan ez da ekintzarik errepikatzen; berrikuntzarik badagoen? Dena izango da berria aurten"

JOKIN OROBENGOA | ARAMAILUR

Arriolabengoaren teknika eza-gutzeko aukera izango dute: "Etxe azpian egiten dute ogia, bailaran nahiko ezaguna da. Ogia norberak egiteko aukera egongo da; euren teknika ikasi eta praktikan jarriko dugu".

Bihar, sendabelarren eta zuhaitzen erabilpenaren gaineko ibilbidea gidatuko du Gabi Villalbak: "Iaz egin zen, baina aurten beste paraje batzuetan ibiliko gara. Sendabelarren gaineko hainbat misterio kontatuko dizkigu". Orobengoak nabarmendu duen beste ekintza bat hilaren 12ko hitzaldia da: "Paul Nicholson ekartzeko

ko aukera aprobetxatu dugu, eta, pertsona ezaguna denez, edozein gairen gainean berba egingo balu ere, jendea erakarriko luke. *Via campesina* mundu mailako nekazaritza mugimenduaren gainean egingo digu berba", argitu du Orobengoak.

Ekintza horiez gain, bertako denetarik produktuak dastatzeko aukera egongo da. Amaitzeko, astea "borobiltzeko", azoka egingo dute: "Bertako zein kanpoko produktuak egongo dira, oraingoz Aramaion ez da-eta denetarik ekoizten. Gura duena gonbidatuta dago, animatu".

EGITARAUA

HILAK 9, EGUBAKOITZA

18:00 Ogi ekologikoa egiteko tailerra Divina eta Rakel Arriolabengoaren eskutik, Azkoaga auzoko abade-etxean.

HILAK 10, ZAPATUA

11:00 Sendabelarrak eta zuhaitzak ezagutzeko ibilbidea Gabi Villalbaren eskutik (gaztelaraz). Ibilbidea Bizente Goikoetxea plazatik hasiko da eta ondoren erakusketa jarriko dute Sastiñan.

HILAK 11, DOMEKA

17:00 Tellerien ibilbidearen aurkezpena Amillena turismo elkartearen eskutik. Ibarako kiroldegitik abiatuko dira.

HILAK 12, ASTELEHENA

18:00 *Via campesina*-ren gaineko bideo emanaldia eta hitzaldia Paul Nicholson-en eskutik, Sastiñan.

HILAK 13, MARTITZENA

Ekonomatuko produktuen dastatzea.

18:00 Ogi eta olio ekologikoa.

18:30 Marmelada ekologikoa.

19:00 Ardi eta behi gazta.

Bidezko merkataritza.

HILAK 15, EGUENA

18:30 Sagardo dastatzea Sastiñan. Aramaioko askotariko sagardoaren gainean berba egingo du Juan Zuriarrain enologoak (gaztelaraz). Izena emateko, deitu arratsaldean 669 94 65 94 telefono zenbakira. Prezioa lau euro da.

HILAK 16, EGUBAKOITZA

19:00 Baserriko konpostaren gaineko saioa eskainiko du Xabier Herrartek Sastiñan.

HILAK 17, ZAPATUA

Goizean zehar Lorabbarri Aste azoka: herriko produktuen salmenta, musika, landatzeak hurrekin batera, arropa trukea...

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin



LURRINGINTZA* OSOAN
PRODUKTUAK ETA MARKAK KONBINA ITZAZU

* Haurtxo-produktuak, barne-higienea, parafarmazia, preserbatiboak eta botikina izan ezik.



2. ALEA
50%



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarria 2014ko maiatzaren 14ra arte.

Takarraran egingo dute bihar, "eredu berrien" bila

Portaloitik abiatuko da emakumei zuzendutako herri lasterketa, 12:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaleko Berdintasun Sailak eta Aukeak antolatuta, emakumeendako Takarraran lasterketa egingo da bihar. Lasterketa Portaloitik abiatuko da 12:00etan -11:45ean taldean berotzeko aukera egongo da, Aukeako begirale baten eskutik- eta 3,5 kilometroko ibilbidean egingo dute korrika parte hartzaileek. Antolatzaileek 12 urtetik gorako emakume guztiei egin diete gonbidapena, eta, espero dutenez, Euskal Herri osoko emakumeak etorriko dira.

Aurtengoa lasterketaren sei garren edizioa izango da; aurreko bost urteetan Martxoaren 8aren bueltan antolatu izan da, baina aurten atzeratzea erabaki zuten, besteak beste, Donostiako Lilatoia martxoaren 9an egin zelako.

Jendetsuagoa izatea espero da Takarraran lasterketarekin emakumezkoen kirol praktika eremu publikora atera nahi dute: "Aukera eman gura diegu bai lehiatu gura dutenendako eta baita lagunartean goiz pasa ederra egin gura dutenendako ere. Gizarte-ari buelta ematen dioten eredu berriak islatu nahi ditugu: ama korrika, izeba korrika, alaba korrika, arreba korrika...", diote antolatzaileek.

Esandako moduan, lasterketa 12:00etan irtengo da Portaloitik eta alde zaharreko kaleetan zehar 3,5 kilometroko zirkuitua egin

ostean, Portaloian bertan bukatuko da. Parte hartzaile guztiei kamiseta bat emango zaie doan. Apirilaren 10a ezkerro egon da aukera izena emateko, baina bihar

bertan ere eman ahalko da, 11:30era arte. Beraz, bihar arte ez dago jakiterik zenbatek hartuko duten parte. Hala ere, internet bidez izena emateko aukera egon denez -www.herrikrossa.com helbidean-, antolatzaileek lasterketa jendetsua izatea espero dute.

Askotariko sariak

Honako sariak banatuko dira lasterketaren amaieran: podiumeko hiru sari, korrikalari gazteenari, korrikalari helduenari eta Takarraran egitera emakume korrikalari gehien ekartzen duen taldeari. Izan ere, kuadrillan parte hartzeko aukera egongo da.



Hiru korrikalari helmugara heltzen, iazko Takarraran lasterketan. | IMANOL SORIANO

Alberto Santana | Historialaria

"Debagoiena aitzindari izan zen baserria ondare moduan kontsideratzen"

Zuztarrak Errotuz taldearen Udaberriko Hitzaldi Zikloaren barruan, lehen saioa izan da asteon

J.B. | ARRASATE

Zuztarrak Errotuz taldeak antolatutako Udaberriko Hitzaldi Zikloaren barruan, Alberto Santana (Bilbo, 1960) historialaria Debagoieneko baserrien gainean egin zuen berba eguztanean Kulturaten; hainbat datu interesgarri eman zituen. Bergarako UNEDen Artearen Historia irakasten du Santanak.

Euskal baserriaren gainean egin zenuen berba, Debagoiena abiapuntu hartuta.

Hala da. Bailarako baserrien jatorriaz aritu nintzen, haien antzintasunaz eta ibarreko baserrien berezitasunez. Izan ere, duela bi hamarkada Debagoiena nire laborategi pertsonala izan zen euskal baserriaren historia hobeto ulertzeko. Hau da, hemengo baserrietan egingako aurkikuntzak baliatu ditut Euskal Herriaren barrena dauden 40.000 baserrien ezaugarriak berretsi edo gezurtatzeko.

Zein izan da ordutik gure baserriek izan duten bilakaera?

Kontserbazioari dagokionez, azken 25 edo 30 urteetan 40 bat baserri desagertu dira Debagoienean, 200 bat baserri errekupeatu dira eta beste 200 pasatxo eraldatu. Beraz, asko aldatu dira gauzak denbora laburrean. Baserria ondare kontsideratzeko joera bailara hone-



Santana, Kulturaten. | JOKIN BEREZIARTUA

tan hasi zen eta gero Gipuzkoa osora hedatu zen. Debagoiena aitzindari izan zen. Bestalde, ezagutzari erreparatu gero, asko aurreratu da. Lehen, baserriak esaten zigun horretan oinarritzen ginen, baina ez zen nahikoa. Hau da, baserriak baserriaren erabileraz bai, baina historiaren azken zatikoz; baserria baserri baina askoz zaharragoa da eta ahozko transmisioak ezin du hutsune hori bete. Duela 25 urtetik hona, baserriaren gainean historia egiten ari gara.

Ezer gaineratu nahi?

XVII. mende amaieran, Debagoienean hasi ziren eraikitzen egitura arkitektoniko ederrenak Euskal Herriko baserriaren barruan.

Mendi Tour jaialdirako sarrerak salgai daude Udalaren webgunean

Gaur ezkerro salgai daude Mendi Tour jaialdirako sarrerak Udalaren webgunean: www.arrasate-mondragon.org. Maiatzaren 13an hiru film eskainiko dira (19:30) eta sarrera bost euro ordaindu behar da. *Cascada*, *Valhala* eta *Cerro Torre* izango dira ikusi ahal izango diren pelikulak.

Uarkapeko taberna irekiko dute gaur, 19:00etatik 21:00etara

Aukeak jakinarazi du Uarkape pilotalekuko taberna irekiko dutela berriro. Inaugurazioa gaur izango da, 19:00etatik 21:00etara, eta tragoak zein pintxoak doakoak izango dira. Biharko 15 euroko menu berezi bat prestatu dute, eta aurrerantzean askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte.

Haurreskola publikoetan matrikulatzeko epea zabaldu dute

J.B. / U.M. | ARRASATE

Astelehena ezkerro zabalik dago matrikulazio epea Arrasate Herri Eskolako Bedoñabe eta Musakolako haurreskoletan. Irailean, urrian edo azaroan hasi behar duten umeen matrikulazio epea da horixe, 2013-2014an jaiotako neska-mutikoei zuzendutakoa.

Maiatzaren 14ra arte

Maiatzaren 14ra arte eman daiteke izena datorren ikasturterako. Bedoñabe eta Musakolako Haur Hezkuntza proiektuko ildo pedagogiko nagusiak honako hauek dira: "Abian jartzea pertsona eta haren garapena osotasunean eta besteekin elkarlanean hartzen

duen pedagogia, sormena eta jakin-mina aintzat hartzen dituen eta proiektuetan oinarritzen dena. Horrela, proiektuan parte hartzen dute irakasleek, ikasleek eta baita gurasoek ere. Beraz, hezkuntza komunitate bat osatzen dugu eta hor nabarmentzen dira, batetik, irakasleen etengabeko prestakuntza eta gogoeta pedagogikoa egitea eta, bestetik, gurasoen inplikazioa". Informazio gehiagorako: 943 79 20 69 edo arrasateesk@gieskola.net.



BEDOÑABE ETA MUSAKOLA HAURRESKOLAK

0-2 URTE

Matrikulazio epea maiatzaren 5etik 14ra
2013-2014an jaiotakoentzat

BEDOÑABE HAURRESKOLA. Alfonso VIII 1. Arrasate

Tel.: 943 79 76 86. bedonabe.arrasate@haurreskolak.net

MUSAKOLA HAURRESKOLA. Elkano 8. Arrasate

Tel.: 943 79 13 03. musakola.arrasate@haurreskolak.net



Erosketak egiterakoan ontzia erabili dutenak saritzen hasi dira

'Ontziratu zaitez' kanpainarekin kontsumo arduratsua bultzatu gura du Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko komertzioetan paper eta plastikozko poltsen erabilera murriztea eta arrasatearren artean kontsumo arduratsuaren aldeko jokaera zabaltzea da *Ontziratu zaitez, erosketak ganoraz! Erabili*

lizu tuperra! kanpainaren helburua. Martxoaren 31a ezker dago martxan Arrasaten, eta Udalak dagoeneko eman du apirileko zozketan sarituak izan direnen berri -ikus ondoko taula-. Kanpaina urrian amaituko da.

Edozein ontzi erabil daiteke

Udalak eta Kutxa Ekoguneak bultzatutako ekimena da eta diotenez, bi abantaila nagusi ditu tuperrak erabiltzeak: erosoagoa dela eta etxera heltzerakoan tuperra hozkailuan sartu daitekeela, modu garbi baten. Edozein tuper erabil daiteke. Hau da, kanpaina barruan dendetan saltzen dituzten ontziez gain, etxetik eramandakoa ere erabil daiteke.

Kanpaina barruko tuper bakoitzak 50 zentimoko prezioa du: "Kutxa Ekoguneari 2,6 euro kostatzen zaio tuper bakoitza eta Udalarari 1,65 euro kobratzen dio. Beraz, tuper bakoitzeko 1,15 euro jartzen du Udalak. Ontziei prezio bat jarri zaie, doakoa izatea ez dadin izan tuperra hartzeko arrazoi bakarra", argitu dute. Hala, herritarrei dei egin diete kanpainarekin bat egin dezaten.



Jose Ramon Otamendi harakina lanean, bi bezeroren aurrean. | JOKIN BEREZIARTUA

PSE-EE: "Banketxeei egindako erasoak erabat ulertezinak dira"

J.B. | ARRASATE

Maiatzaren Lehenaren bueltan banketxeei egindako erasoak salatu dituzte Arrasateko sozialistek: "Halako ekintzak iraganekeo parte zirela uste genuen". Udaleko Bozeramaileen Batzordeari urgentziak bilerak eskatu diote eta ekintzak salatzeko mozio bat aurkeztuko dutela aurreratu dute. Mozio hori bateratua izatea espero dute. PSE-EEko bozeramaile

Aritz Arrietak jakinarazi duenez, datorren astean aurkeztuko dute mozioa.

Ertzaintzari eskaera

Maiatzaren 2ko goizaldean gertatutako erasoaren harira, Arrietak uste du "ulertezinak eta erabat arbuigarriak" direla, eta, horregatik, Ertzaintzari eskatu dio eraso horien erantzuleak berehala identifikatzeko, epaituak izan daitezkeen.



Garibaiko BBVA banketxeak jasandako erasoaren irudia. | LARRAITZ ZEBERIO

Udalekuetan izena emateko azken eguna da gaur, Txatxilipurdin

Txatxilipurdiren udalekuetan izena emateko azken eguna da gaur; 943 79 54 46 telefonora deitzea edo Nafarroa etorbideko egoitzara joatea da modurik eraginkorrena -23. zenbakia, udaltzainen atzean-. Bihartik aurrera ez dute izen-ematerik onartuko. Begiraleendako ere gaur da izena emateko azken eguna.

OHARRAK

1970. ETA 1971. URTEAN JAIOTAKOAK

1970ean eta 1971n jaiotakoek afaria egingo dute. Ferixalekuan 8. mailan batera egon zirenek deitu dute, iraganeko garaia gogoratzeko asmoz. Oraindik ez dute afariko data zehaztu; izen-ematearen arabera erabakiko da. Hiru telefono zenbaki eman dituzte: 665 72 92 45 (Ana), 600 05 56 04 (Justi) eta 652 61 78 00 (Ana).

Bigarren eskuko azoka eta Pilotakadaz Pilotadaka ekimena bihar, presoan alde

Azoka, Herriko Plazan, goiz eta arratsalde; pilota partiduak, Zaldibarren, goizez

J.B. | ARRASATE

Euskal presoen eskubideak aldarrikatu eta sakabanaketa salatzeko bi ekintza antolatu dituzte biharko. Lehen ekimena da aurten bederatzigarren aldiz antolatu den bigarren eskuko arropen azoka. Herriko Plazan egingo da, 10:00etatik 20:00etara. Antolatzaileek aurreratu dutenez, askotariko arropak "oso prezio merkean" erosteko aukera egongo da: "Animatu azokara etortzen, eskaintza ederrak izango dira-eta".

Azokak irauten duen bitartean musika jartzea da antolatzaileen asmoa, eta aurten, gainera, sagardoa eta txistorra pintxoak egongo dira salgai goizean zehar.

Pilota, sakabanaketa salatzeko

Era berean, Etxerat-ek antolatuta, herriz herri zabaltzen doan Pilotakadaz Pilotakada ekimena Arrasatera helduko da bihar. Sakabanaketaren aurkako pilota partiduak jokatu dira goizean zehar, 11:00etatik aurrera. Antolatzaileek Zaldibarren egin gura dute, kalean bertan egin eta herriari "bizitasuna" emateko.

Hala ere, euria egiten badu, Uarkape pilotalekuan jokatu dira partiduak. Hasteko, bi norgehiagoka jokatu dira; herriko lau pilotazalek Arrasateko euskal presoan izenean jokatu dute, presoan izena eramango duten kamisetekin: "Sakabanaketa salatzeko beste urrats bat izango da", adierazi dute antolatzaileek. Bi partiduen ostean, gura duten



Iazko presoan aldeko bigarren eskuko arropen azoka Herriko Plazan. | ZVDM

herritarrek batera jokatu dute, kanporatze bidezko "pikean".

Zaldibarko frontoia girotzeko, bertsolariak eta herriko trikitalari bikote bat egongo da eta

presoen aldeko kamisetak egongo dira salgai. Pilotakadaz Pilotakada ekimena Tolosako Beotibar pilotalekuan amaituko da, ekaineko azken asteburuan.

ZUBI-LAN
KONPONKETAK ETA SALMENTAK



TRESNAK
Nekazaritza
Lorezaintza
Basogintza

MOTORRAK
Salmenta
Konponketa

Markulete poligonoa • Ekutio kalea 4, 17. pabilioia
Tel. /Faxa: 943 79 78 82 - 650 03 87 33 - jmabizeta@gmail.com
Arrasate

"Bastoiek kargaren %15 kentzen dute, eta artikulazioak babestu"

Oinarrizko 'Nordic walking' ikastaroa emango du bihar Xabier Madinak

JULEN IRIONDO | ARRASATE

9:00etan hasiko da ikastaroa, Musakolako kiroldegian, hiru ordu iraungo du eta Xabier Madina *Alfa coach*-ak -nazioarte mailako instruktorea- emango du. Hankei ez ezik, besoei eta, orokorrean, gorputzaren goiko alde guztiari eragiten dion ibiltzeko modua da *nordic walking*-a edo ipar martxa -iraupen eskiaren antzerako jarduera-, bi makil berezirekin -ez zeharkaldietarakoak- egiten dena, teknika jakin bat jarraituz. Ez da, beraz, bas-toiekin ibiltze soila.

Madina kide duen Euskadiko Nordic Walking Elkartearen informazioaren arabera -*www.nordicwalkingeuskadi.net*-, hainbat abantaila ditu diziplina honek: artikulazioak gutxiago behartzen dira korrika eginda baino; gorputzeko giarreen %90 lantzen ditu; gorputzari egiten zaion oxigeno horniketa areagotzen du; garondo eta zerbikalen tentsioa arintzen laguntzen du; bihotzaren lana eraginkorrago bihurtzen du; eta sistema immunologikoa indartzen, besteak beste.



Ipar martxa praktikatzeko. | ENWE

geno horniketa areagotzen du; garondo eta zerbikalen tentsioa arintzen laguntzen du; bihotzaren lana eraginkorrago bihurtzen du; eta sistema immunologikoa indartzen, besteak beste.

"Zenbat eta gihar gehiago mugitu, orduan eta energia gehiago xahutzen da, eta kaloria gehiago erre ere bai, ondorioz. Bastoiekin orkatilak, belaunak eta aldaka babesten dira. Kargaren

%10-15 kentzen dute, eta karga hori gorputzaren goiko aldean banatzen da", dio Madinak. Ondorioz, nekatu ere gutxiago egiten dela dio, esfortzua banatuago dagoelako gorputzean.

Jatorria Finlandian duen diziplina hau Alemanian, adibidez, gizarte segurantzak "erreze-tatu eta gomendatu" egiten duela dio Madinak, eta baita diruz lagundu ere: "Han askok dituzte etxean ipar martxarako bas-toiak".

Hamabi lagunentzako

Arrasateko zapatuko oinarrizko ikastarorako izena Musakolako kiroldegian eman behar da: 30 euro kostako da, eta makilak bertan utziko dizkiete parte-hartzaileei. Hamabi lagunentzako izango da gehienez, baina interesa gehiagok balute beste egun batean berriro egitea balegokeela dio Madinak.

"Hiru orduko formatu hau nahikoa da hasteko. Hortik aurrera, badituzu nahikoa tresna disfrutatzeko. Hori bai, teknika hobetuz gero askoz onura gehiago igartzen dira". Aukera egongo omen litzateke horretarako ere, eskaria balego.

Josu Larreategi | MUKo entrenatzailea

"Lehenengo postuan geratzeko aukera %1 da, baina ahaleginduko gara"

Aurreko asteburuan galduta, azken biak irabazi beharko lituzke MUK, eta liderrak biak galdu

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Elkarren kontra ariko dira bihar (Iturripe, 18:00etan) MU eta Bide Bide Donosti -Tolosako taldea-. Arrasatearrek asteburuan irabazi izan balute, erabakigarria zatekeen partidua; orain, ordea, liderrari irabaztea -lau puntu-gatik gutxienez- ez da nahikoa. Hala ere, bigarrenetik bosgarrenera artekoek jokatu duten lauko finala irabazita ere lortuko luke igoera MUK.

EBA ligara zuzenean igotzeko aukerarik gabe geratu zarete ia.

Lehenengo postuan geratzeko aukera %1 da. Erraza ez da izan-

go, baina gu ahaleginduko gara; bestela, lauko finala prestatzeko erabiliko ditugu bi partiduko.

Zuen planetan ez zen egongo aurreko astean galtzea.

Ez, hori ez zegoen gure planetan. Baina Deustuko Unibertsitate lehenengo bostetan dago sailkatuta, eta horrek esan nahi du ez dela talde txarra. Eta, gainera, bere etxean jokatu gero, ez da batere erraza irabaztea. Azken sei-zazpi partiduetan presio handia izan dugu tolosarregandik hurbil jarraitzeko, eta, zoritxarrez, aurreko partidua galdu egin genuen.



Josu Larreategi. | JOSETXO ARANTZABAL

Eta helbururik ezin lortu, hortaz.

Egia esan, hasieran ez zen gure helburua. Gure helburua zen partiduz partidu joatea eta gauzak ahal bezain ondo egitea. Baina denboraldi zoragarria egin dugu, ari gara egiten, eta, denborarekin, hori bilakatu da helburu. Beste

"Defentsako lana eta planteatutako gauzak ondo egin genituela uste dut"

urte batzuetan lehenengo biak igotzen ziren zuzen EBA mailara, baina aurtun gauzak aldatu egin dira. Horrela dira arauak, eta onartu egin behar.

Nolako eragina izan du ezusteko porrot horrek jokariengan?

Bilera egin genuen jokalariekin, ikusteko nola zeuden. Eta ikusi nuen oso ondo daudela mentalki. Eurek ere bazekiten Tolosako taldea lehenengo postutik kentzea zaila izango zela, eta onartu egin dugu, horregatik, aurreko asteburuan gertatutakoa. Komentatu genuen partidua detaile txiki batzuegatik galdu genuela; baina uste dut defentsako lana eta aurrez planteatutako gauzak ondo egin genituela. Partida itxia eta lehiatua izan zen, eta lehiatua eta itxia izanez gero, edozeinek irabaz dezake. Alde horretatik ez dago inolako arazorik.

Egoera honetan, nola egiten diezue aurre liga amaitzeko falta diren bi partiduei?

Tentsioarekin jokatu beharko dugu, gure sasoia mantentzeko, baina presiorik gabe ere jokatu dugu, oso zaila delako lehenengo postua eskuratzea.

Eskalada eta arroila jaitsiera ikastaroak Besaiderekin

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Horiek eta beste hainbat antolatu ditu Besaidek datozen bi hilabeteetarako. Honela, maiatzaren 17an eta 18an izango da, adibidez, kirol eskalada ikastaroa, Arrasaten. Izen-ematea *on line* egin beharra dago, webgune honetara sartuz: *www.gmf.fgm.org*. Hasi berriek eta federatuek 95 euro ordaindu beharko dituzte, eta federatuta ez daudenek, aldiz,

115 euro. Amateur federatuentzat prezioa izango da 195 euro, eta federatuta ez daudenentzat, 224 euro.

Bestalde, maiatzaren 18an mendi irteera egingo dute elkar-tekoek, Arabako lautada integralaren hirugarren etapa. Gasteizko gaina eta Azazeta arteko ibilbidea egingo dute. Izena emateko egunak maiatzaren 12a eta 14a dira, 19:30etik 20:30era.

Maiatzaren 31n, zapatua, Mondran Bike mendi bizikleta martxa egongo da, 09:00etan hasita. Izen-ematea egunean bertan egin behar da, 08:00etatik 09:00etara.

Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean, bestetik, Pirinioetako arroila jaisteko ikastaroa egongo da. Federatua izanez gero, prezioa 124 euro izango da, eta federatuta ez daudenek kasuan, 145 euro.

Ekainaren 7an, berriz, Beteranoen XIII. Martxa egingo dute Nafarroan. Ibilbideak lau zapabost orduko iraupena izango du: Ganuza (600 m), Ganuzako portua, Santiago de Lokiz baseliza, Sartzaleta (1.110 m), San Cosme (1.114 m) eta Galdeano (560 m). Amaitzeko, mendizale beteteranoek Ventas de Larrionen bazkaria egingo dute. Irteera 07:00etan izango da Garibaitik, eta 19:30erako bueltan izango dira. 46 eta 50 euro artean ordaindu behar dira izena emateko.

ZALDIBAR

PARTIDUAK

MAIATZAK 11, DOMEKA	
09:00	Betrayer-Sonografos / Fidel & D.
10:00	Fidel & D.-Haizea's / Sonografos
11:00	Ostantz-Abokajarro / Haizea's
12:00	Dribling-Iluntz / Abokajarro
13:00	Aldatz-Lasagabaster / Dribling
14:00	Sport in T.B. - Jibaros / Aldatz

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1	Dribling	16	3
2	Iluntz	10	3
3	Haizea's Weah	8	3
4	Fidel & Discipulos	6	3
5	Sport in tus bragas	5	3
6	Jibaros	4	3

B MULTZOA		P	J
1	Aldatz	16	3
2	Sonografos	11	3
3	Lasagabaster	10	3
4	Betrayer	6	3
5	Ostantz	5	3
6	Abokajarro	1	3

Sorpresak ere bai aurreko astean

A multzoan, atzeko taldeetako bik aurrekoen aurka irabazi zuten aurreko astean; B multzoan, sorpresarik ez.

Emaitza bikainak lortu dituzte herriko atletek Gipuzkoakoan

Ibai Fernandezek eta Eneko Carrascalek urrea lortu zuten 100 metroetan eta jauzi hirukoitzean, hurrenez hurren, eta Dani Martinezek zilarra 600 metroetan, kadete mailan. Juniorretan, urrea lortu zuten Istar Dapanak eta Malen Ruiz de Azuak pertikan. Eneko Carrasacal eta Maddi Garro -junior-, bestalde, bigarren izan ziren luzera jauzian.

Bihar, Leintz Eskola Kirolaren hiruko saskibalo txapelketa

Bihar, zapatua, izango da Leintz Eskola Kirolaren hiruko saskibalo txapelketa. LMH-4 eta DBH-2 mailen artekoentzat izango da txapelketa. Nesken txapelketa, mutilena eta mistoa ere egingo dute. Laubide plazan jokatu da, goizez eta arratsalde: 10:00etatik 13:00era goizez, eta 15:00etatik 20:00etara, berriz, arratsalde.

Arrasateko gimnastak Ordizian, Gipuzkoako Eskolarteko lehia

A eta B mailletako Eskolarteko Txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Ordiziako Majori kiroldegian, 10:00etan hasita. Goizeko eta arratsaldeko saioetan, bakarka zein taldeka lehiatuko dira. Dragoi taldeak, alebiletan Lorea Pierruguesek eta Uxue Azkuek eta infantiletan Leire Ugartek hartuko dute parte.

Literatur Lehiaketako sariketa, martitzenean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Maiatzaren 13an, martitzena, banatuko dituzte AEDren Arrasate Literatur Lehiaketan 27. edizioako sariak. Kulturateko areto nagusian izango da ekitaldia, 18:30ean.

Parte hartze handia

Guztira, 27. edizio honetan, 135 lan jaso dituzte; horietatik 84

ipuien atalean jaso dituzte, 26 poesien atalean eta 25 bertso-paperetan. AEDren arabera, sarituak izan diren lanak "nahiko garbi" nabarmendu dira besteen gainetik: "Epaimahaiak adostasun handiz hartu ditu erabakiak". Dena den, ez da dena positiboa izan: "Bost sari banatzeke geldituko dira, lanik aurkeztu ez delako edo aurkeztu direnak epai-

mahaiak eskas baloratu dituelako", diote AEDtik.

John Andueza gonbidatu

Azken urteetako ohiturari eutsiz, gonbidatu berezi bat izango da aurten ere Kulturateko sari banaketa ekitaldian: John Andueza idazlea, alegia.

Aurtengo finalistak

Hauek dira finalistak: Ipuinen atalean, Joseba De la Maza, Maria Oses, Naia Zuazubiskar, Alaitz Beltran de Heredia, Ane Arrieta, Amaia Telleria eta Nerea Gil. Poesian; Ane Santa Cristina, Lorea Rodriguez, Marixe Ruiz de Austria, Arantzazu Letona, Ane Zuazubiskar eta Maialen Gallastegi. Azkenik, bertso-paperetan; Olatz Zuazubiskar, Izar Ruiz de Austria, Oihana Arana, Mikel Etxezarreta, Marixe Ruiz de Austria eta Ainitze Biteri.

Sanjuanetako kartel lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik

M.A | ARRASATE

San Juan jaietarako kartel lehiaketan lanak entregatzeko azken eguna maiatzaren 30a izango da -19:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira BAZen-. Kartel irabazlearen egileak 750 euroko saria jasoko du. Era berean, dagoeneko jarri dituzte aurtengo leloa aukeratzeko zerrendak herriko hainbat tabernatan.

Lan originalak sarituko dira

Obra originalak sarituko ditu epaimahaiak. Teknika libre erabili ahalko da eta formatuak bertikala izan beharko du, nahitaez. Kartelak 50x70 zentimetroko neurria izan beharko du eta

honako testua jaso beharko du, derrigorrez: *2014 San Juanak Arrasate*. Gainera, testu horri, oraindik erabakitzeko dagoen leloa gehituko zaio. Jaietako materialen euskarri desberdinetan erabil daiteke aipatu esaldi laburra; bakarrik, kartel irabazlearen irudiarekin lotuta edota kartela osatzen duen elementuetako batekin batera. Egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzealdean lelo bat duela aurkeztu beharko dira lanak. Horrekin batera, gutun-azal itxi baten lelo bera eta egilearen datuak adieraziko dira.

Oinarriak osorik irakurgai daude www.arrasate-mondragon.org webgunean.



lazio sari banaketa ekitaldia, Kulturateko areto nagusian. | GOIENAZ

Denetariko ekintzak antolatu ditu Corazon de Encinak astebururako

Extremadurarrek Kultura Astea ospatzen dihardute

M.A | ARRASATE

Jaia eta festa izango dira protagonista gaurtik domekara bitartean Corazon de Encina taldearen Arrasateko egoitzan. Urtero antolatzen duten Kultura Astearen barruan, askotariko ekintzak antolatu dituzte.

Erakusketak ere bai

Gainera, bi erakusketa ikusteko aukera ere izango da Araba etorbideko egoitzan: Sierra de Gata eskualdeko irudiz osatutako erakusketa bat, batetik, eta Marcelino Segoviaren lanez osatutako beste erakusketa bat, bestetik.

EGITARUA

MAIATZAK 9, EGUBAKOITZA

20:00 Bideo emanaldia.

21:30 Saihets-jana.

23:00 Kantu flamenkoak Isabel Fernandez eskutik. Gitarran, *El Rubio* maisua.

00:00 Tolin transformista.

MAIATZAK 10, ZAPATUA

12:00 Tortilla lehiaketa.

13:00 Lehendakariaren brindisa.

18:30 Folklore ikuskizuna Ermuko kultura zentroko taldearekin.

19:30 Al Andalus taldearen emanaldia.

21:30 Aste kulturalako afaria.

00:00 Dantzaldia Javisound-ekin.

MAIATZAK 11, DOMEKA

13:00 Txikiteo herrikoia.

16:30 Txapelketen finalak.

19:30 Sari banaketa eta itxiera.

Korrikan Trail denda, pertsona guztiek kirola egiteko materiala izan dezaten

Kirola egiteko eskaintza zabala daukate Arrasateko Korrikan Trail denda espezializatuan. Zapatilak, arropak eta osagarriak dituzte, bai mendian eta baita kalean korrika egiteko, edo paseoa ibiltzeko.

Korrikan Trail denda espezializatua izan arren, pertsona guztiendako zapatila erosoak dituzte, udarako, negurako edota euria egiten duenerako. Nagusienak eta baita umeendako ere.

Euren helburua da bezeroak erosten duten horrekin gustura egotea; horregatik, bakoitzari, bere ohituraren eta pisuaren arabera, dagokion materiala eskaintzen diote eta komeni zaionari buruz aholkatzen diote. Martxoan zabaldu zuten denda, "Debagoienak horrelako denda tekniko bat" behar duela uste dute eta jabeek.

Marka berriak gurean

Marka berriak ekarri dituzte Debagoienara Korrikan



Ander Agirrebeitia, Korrikan Trail dendako arduraduna, dendan.

“Zapatila garestienak ez du zertan beti izan zapatila onena; dendan bezeroak aholkatzen ditugu, egin behar duten jarduerarako zapatila egokienak eraman ditzaten.”

Trail dendaren bitartez. Marka ugaritako arropa dute bertan. Modelo askotako motxilak ere badituzte; hidrataziozkoak, gerrikoak, arruntak egun txikietarako, handiagoak egun gehiagotarako edo trabesietarako, besteak beste.

Osagarrien aldetik ere, burutik hasi eta hanketainoko materiala eskaintzen dute. Neguko edo udako materiala daukate; gorroak, puffak, eskularruak, kamiseta eta praktikoak, galtzerdiak, frontalak, bisera, eguzkitarako betaurrekoak...

Kirolarientzako elikadura-dagokionez, badituzte barra energetikoak, hidrataziozko sortak edo gelak. Kirola egin aurretik edo ondoren giharrak berotzeko gelak edota errekupe-ratzen laguntzeko lcepower-en kremak ere badituzte dendan salgai.

Ikusi Makusi produkzioak 'Kontaidazu beste bat...' azken ikuskizuna aurkeztuko du bihar, 17:30ean

Eguraldi onarekin batera iritsiko dira gurera kale ikuskizunak. Horietako bat ikusteko aukera bihar izango da, 17:30ean, Seber Altube plazan. Jon Gardokik, Igor Salak eta Vanesa Gonzalezek osatutako hirukoteak *Kontaidazu beste bat...* izeneko ikuskizuna aurkeztuko du. Lan musikatuak da bihar aurkeztuko dutena. Izan ere, Oinarria Vanesa Gonzalezek ipuinak badira ere, horiek musikaz lagunduta etorriko dira. Ipuin musikatuak, beraz, bihar Seber Altube Ikusi Makusi produkzioak aurkeztuko duena.

Korrikan
TRAIL
Arrasate
Zure running denda berria!
Otalora lizentziaduna 21 - 943 79 60 96



Moda desfilean parte hartuko duten dendariak eta modelo lanetan arituko diren herritarrek Zabalotegin egindako entseguan. | AMAIA TXINTXURRETA

Herriko modaren erakusleiho izango da bihar San Martin plaza

- Herriko 30 bat dendak desfilea egingo dute, 18:00etan, Bergara Bizi ekimenaren barruan
- "Bergarak eskaintza zabala" duela erakutsi nahi dute, "adin, sexu eta gustu guztiendako"

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dena gertu dago bihar, zapatua, egingo den Bergara Bizi lehen moda erakustaldirako. 18:00etan, San Martin plazan, herriko 30 dendak baino gehiagok hartuko dute parte –ikus parte-hartzaileak ondoko taulan–; Bergara Bizi ekimenaren baitan diharduten bultzatzaileek, hain zuzen.

Herriko moda eskaintza zabalenez gozatzeko aukera paregabea izango da biharkoa. Herriko arropa, zapata eta osagarri dende duten berriena erakutsiko dute, eta orrazkera eta makillajea dauden azken joerak ikusteko aukera ere egingo da.

Ume, gazte, gizon zein emakumeak goitik behera apaintzeko herrian dagoen moda eskaintza erakusleiho izango da, azken batean, Bergara Bizi lehen moda erakustaldia: "Gure dendetako hormak gainditzea da helburua. Bergara bizia dela eta eskaintza zabala duela erakutsi nahi dugu, adin, sexu eta gustu guztiendako", diote ekimeneko kideek. "Azken boladan, dendak zabaltzen ari dira herrian eta Bergarako merkataritza eskaintza gero eta zabalagoa da", gehitu dute.

Hamar metroko pasabidea

T letraren formako hamar metroko pasabidea egokituko dute San Martin plazan, Udalaren laguntzarekin. Eguraldiaren arabera Udal Pilotalekuan egiteko aukera aztertu zuten arren, iragarpenak onak direla-eta plazan egitea erabaki dute.

10:00etan hasiko dira Bergara Bizi ekimeneko kideak pasabidea egokitzen. Udaletxetik Seminariorantz aterako da egitura eta udal brigadaren laguntzarekin

DESFILEKO PARTAIDEAK

A.J. poltsak

Ainhoa erloju denda

Alga lurrindegia

Amparo ile apaindegia

Amua jantzi denda

Anezka jantzi denda

Annika jantzi denda

Bego&Marije ile apaindegia

Disdira ile apaindegia

G21 gizonendako oinetako denda

Galarreta oinetako denda

Igaro lurrindegia

Jaizki ile apaindegia

Jauja kirol denda

Jean Louis David ile apaindegia

Joka jantzi denda

Jolas jantzi denda

Junbiju jantzi denda

KB Photoestudio argazki denda

Kilika jantzi denda

Keixa ile apaindegia

Lonbide oinetako denda

Maka oinetako denda

Manso optika

Miluk ile apaindegia

Mujika sastreria jantzi denda

Ninika loradenda

Ostadar ile apaindegia

Subijai umeendako jantzi denda

Sugoi bazarra

Xuxu jantzi denda

Zubikua jantzi denda

muntatuko dute. Horrez gain, 500 bat eserleku ere jarriko dituzte, "herritarrek desfilea ahalik eta erosoan ikusteko".

Modeloen kasuan, 70 bat herritarrek beteko dute zeregin hori. Bestalde, desfilea Aitziber Azkondo bergararrak aurkeztuko du eta bi zatitan banatuta egingo da. Erdian egingo den atsedendian, berriz, Camdem Town zumba taldeak erakustaldia egingo du.

Zozketak, amaieran

Desfilea dela-eta zozketa eta lehiaketa ere antolatu dituzte Bergara Biziko bultzatzaileek. Hain zuzen ere, zozketari dago-kionez, aste osoan barrena, des-

DATUA

70

MODELO

Horixe da desfilean modelo lanak egingo dituzten herritarren kopurua.

filean parte hartuko duten dendak txartelak ematen ibili dira bertan erosiz gero, eta zozketa desfilearen amaieran egingo da. Irabazleak 150 euroko bonua lortuko du herriko dendetan gastatzeko.

Desfile egunean argazki lehiaketa ere egingo dute; desfileari lotutako argazki onena bilatuko dute. Parte hartzeko bideak izango dira Twitter eta Instagram sareak, *BergaraBizi* etiketarekin argazkia igota. Asteleheneko 13:00ak arte jasotakoak sartuko dira lehiaketan. Bestalde, jasotako argazki guztien artean bozkatzeko eta onena aukeratzeko epea datorren barikuan itxiko dute eta saria bikoitza izango da: argazki onenaren egileak 50 euroko bonua eskuratuko du herrian gastatzeko; botoa ematen dutenen artean ere diru-bonua zozkatuko dute.

Bergara Bizitik gonbidapena egin diete herritarrei bihar, zapatua, desfilea ikustera joateko.

LEIRE IRUIN | MERKATARITZA ZINEGOTZIA

"Dendari gehienengan ikusten dudana ilusioa eta inplikazio handia da"

2012an merkataritzaren ganean egindako diagnostiko eta lan estrategia batetik abiatu zen Bergara Bizi egitasmoa. Mahai horretan, Udalak, Bedelkarrek eta zenbait dendak parte hartzen dute.

Iaz azaroan hasi zen Bergara Bizi mahaia martxan.

Ilusio handiarekin ari gara lanean, komertzioen inplikazioa oso handia da. Taldeko kideen arteko harremana geroz eta handiagoa da eta horrek izaera indartzen du. Oraindik hasieran gaude, baina ekintza ezberdinak bideratu ditugu, egiten dugun balorazioa oso positiboa da. Hemezortzi ordezkari osatutako lantaldea da, zonakako antolaketarekin. Taldea finkatu dela esango nuke, nahiz eta irekita gauden norbaitek parte hartu nahi badu; hala ere, argi utzi behar



GOIENA

da lantaldeko kideak ordezkariak direla. Ekintza bakoitzean komertzio ezberdinek parte hartzen dute, interesaren arabera. Bergarako kale gehienetako ordezkari bat daukagu, eta hori zen hasierako helburua.

Nola hartu dute dendariak ekimena?

Gehienengan ikusten dudana ilusioa eta inplikazio handia da. Behar argi bat ikusten dute eta kontziente dira zerbait egin beharra dagoela. Herrira ireki diren ekintzek formazioak nahiz dinamizazioek oso erantzun ona izan dute.

Bihar moda desfilea. Eta gero?

Plangintza osatua dugu, baina ez noa ezer aurreratzera. Hori bai, eskerrak eman nahi dizkiet gurekin lanean dabiltzan mahaiko kideei, benetan lan handia egiten ari direlako. Bolondres ari dira eta eurak gabe guzti hau ezingo litzateke bideratu. Moda erakustaldian parte hartuko duten guztiak ere eskerrik asko. Eta bukatzeko esan, guztiok gonbidatuta zaudetela desfilea; benetan ikusgarria izango da.

KZgunea goizez eta arratsaldez ireki dute zerbitzua hobetzeko

I.G. | BERGARA

Aste honetatik aurrera herriko KZgunea goizez eta arratsaldez egongo da irekita herritarren erabilerarako, 09:00etatik 20:00ak arte. Guneak etenik gabeko ordutegia duen arren, bertako dinamizatzaile Ane Untzurruntzaga ez da ordutegi osoan bertan egongo. "Hil honetan 09:00etatik 13:00etara egongo naiz, eta hurrengoan 16:00etatik itxiera ordura arte", aipatu du Ane Untzurruntzagak.

Dinamizatzailea bertan egongo ez den arren, zortzi ordenagailuak martxan egongo dira egun osoan, eta inprimagailua dinamizatzailea dagoen ordutuan soilik egongo da martxan.

Orain arte bezala, gunea erabiltzeko 16 urte izatea eta formulario bat betetzea ezinbes-

tekoa da. Jendea itxaroten bada, gehienez 45 minutu nabigatzeko aukera egongo da.

Hil honetako ikastaroak

Hil honetan, oinarriko Internet, Minube, Impress, Kizoa, Youtube eta Gmail ikastaroak eman go dira. Minube eta Kizoa ikastaroak euskaraz izango dira; gainontzekoak, gaztelaniaz. Izen-ematea 943 02 36 26 telefonon edo tutor.bergara@kzgunea.net helbidean egin daiteke.

Hil honetan, dinamizatzailea goizez bakarrik egongo da bertan

Giza katerako metro eta bonuak kultura etxean

I.G. | BERGARA

Ekainaren 8an egingo den erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katerako metroak eta bonu-laguntzak aurrerantzean herriko kultura etxean 5 euroren truke salgai egongo dira. Txartela erosi nahi dutenek 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango dute aukera.

Bihar, 12:00etan, Martinez de Irala kalean metroak saltzeko postuarekin batera, zortzi talde politikorekin lotura duten hainbat pertsona esanguratsuk argazkia aterako dute, ekimenarekin bat egiten dutela adierazteko.

Harrera elkarteak astelehenean egin zuen zozketa

I.G. | BERGARA

Lehen saridunak domekan Athleticek eta Realak jokatu duten derbia ikusteko bi sarrera eskuratzeaz gain, 200 euro poltsikoratuko ditu. Sari potolo hori 2.785 zerbakiaren jabeak jasoko du.

Bigarren saria, aldiz, 945 zerbakiari egokitu zitzaion. Bada, nekazaritza turismo batean aste bukaera pasatuko du hark.

Saridunak agertu ezean, hurrenez hurren, erreserbako 3.310 eta 3.885 zerbakiek jasoko dituzte sariak. Erreklamazioak egiteko, 722 73 02 32 zenbakira deitu.

Astelehenean irekiko dute udalekuetako izen-ematea

Aurtengo udaleku irekiak ekainaren 30etik uztailaren 18ra izango dira

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Uda garaia gero eta gertuago dago, eta nagusien buruetan oporrak ageri diren arren, etxeko txikiek udalekuak noiz hasiko diren zain daude. Urtero moduan, Udalak udaleku irekiak antolatu ditu ekainaren 30etik uztailaren 18ra, 10:00etatik 13:00era, 2002-2011 urte bitartean jaiotako eta Bergaran erroldatutako umeentzako.

Ekintza gehienak herrian bertan egingo dituzten arren, ez dute aspertzeko astirik izango. Herriko kale eta plazak gazteen jolasleku bihurtuko dira, eta, euskara tresna bezala erabilia, herria ezagutu eta ederto pasatzeko aukera ugari izango dituzte.

Izena nola eman

Udaleku irekietan izena emateko epea astelehenean ireki eta maiatzaren 23an amaituko da. Prozesu hori errazteko, gainera, bi modutan eman daiteke izena. Nahi duten gurasoek astelehenetik egubakoitza 09:00etatik 21:00etara kultura etxera gerturatu besterik ez dute. Bertan, izen-emate orriarekin batera, bankuko ziurtagiria ere eraman da. Teknologia berrie-



Joan den udan gazte mordoak hartu zuen parte udalekuetan. | GOIENA

tan iaioagoak diren gurasoek www.bergara.net webguneko *Udaleku irekiak* atalean topatuko dituzte izena emateko prozedura eta eskakizun guztiak.

Ordainketa Laboral Kutxaren 3035 0009 16 0090900017 zenbakian edo Kutxabanken 2095 5070 71 1062071534 zenbakian egin behar da hauraren izen-abizenen ostean *Udalekuak* hitza jarrita. Izena

ematen duten seme-alaba kopuruaren arabera izango dira kuota. Lehenengoa: 50,50 euro; bigarrena: 45,45 euro; hirugarrena eta hurrengokoak, doan.

Eskaintzen diren plazak baino eskaera gehiago badaude, zozketa egingo da. Horrez gain, ekainaren 17an, 18:30ean, Zabalotegi aretoan bilera bat egingo da guraso guztientzat.

Herriko arteak plaza beteko du aurtengo Beart egunean

I.G. | BERGARA

Beartek, herriko margolarien elkarteak, bere eguna domeka honetan ospatuko du. Elkartearen eguna izango den arren, bertako kideek herriarekin partekatu nahi dute data berezi hau, eta, horregatik, euren artelanak kalera aterako dituzte. Kalera baino gehiago, aurtun San Martin plazan erakutsiko dituzte margoak.

Erakusketa 12:00etatik 14:30era izango da; baina lanen bat erakutsi nahi duten bazkideek 11:30ean bertaratu beharko dute, antolatzaileek guztia prestatzeko astia izan dezaten. Jendearen aurrean erakutsiko dituzten lanak hobeto erakusteko, elkarteko bazkide bakoitzak Beartetik eroango dituzten kaballete bana erabili ahal izango du. Eguraldi txarra egiten badu, lanok udaltxeko eta seminarioko arkupeetan egongo dira.

Artistek, goiza bergararrekin ospatu eta gero, 15:00 aldera bazkaria egingo dute. "Erakusketa bukatu eta gero, guztia jaso ostean Ama Mia jatetxean egingo dugu bazkaria", azaldu du Juanjo Altunak, elkarteko presidentek.

Udaberriko jolaslekuak eta zapi lehiaketa Jardunen eskutik

I.G. | BERGARA

Urtero moduan, etxeko txikien gozamenerako, Jardun euskara elkarteak udaberriko jolaslekuak antolatu ditu.

Maiatzaren 16an 17:00etan frontoian egingo dute lehen jolasleku eta maiatzaren 23an 16:30ean bigarrena Matxiategin. Gune bakoitzean, bi orduz ari tuko dira, eta Jardunetik haxe adierazi dute: "Haur eta gurasoendako jolasak egingo ditugu, familia transmisioaren lanketa helburu izanda". Ziur jolaslekuetara gerturatzen diren familiek ederto baino hobeto pasako dutela".

Zapi lehiaketa

Aurtun ere, Pentekoste jaietako zapiak izango duen marrazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du herriko euskara elkarteak. Bertan, edonork parte har dezake eta nahi beste marrazki bidali daitezke. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 20a da.

Lanak Jardueko bulegora eroan edo jardun@topagunea.com helbidera bidali beharko dira, bi gutun-azal edo artxibotan, aukeraketaren anonimotasuna bermatzeko. Marrazki irabazlearen egileak 60 euroko saria jasoko du.

OHARRAK

65EAN JAIOTAKOEN KINTADA

Bazkaria bihar egingo dute, Tartufon, 15:00etan (autobusa 14:30etan). Txikiteoa 13:00etan Depor tabernan hasiko dute. Argibideak 639 47 18 63 telefono zenbakian eska daitezke.

LANGILEZAIN ESKAINTZA

Udalak, obra eta zerbitzuen brigadarako, aldi baterako eta txandakako kontratuarekin, obretako langilezaina kontratatuko du. Oinarriak, idazkaritzan eta Bergara.net-en.

1954KOEN KINTADA

Maiatzaren 17an Lizarrara joan nahi duenak martitzena baino lehen 75 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxaren 3035 000911 0091145651 kontu zenbakian.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 25ean izango diren Europako hauteskundeetarako botoa postaz eman nahi dutenentzat, bulegoa jarri du Bergarako EAJ-PNVk. Ordutegia: 11:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Gogoan izan behar da eskaera egiteko azken eguna maiatzaren 15a dela. Edozein kontsulta egiteko, deitu 943 76 47 00 telefonora.

MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULAZIO KANPAINA

2014-2015 ikasturterako Bergarako Musika Eskolak matrikulazio epea ireki du. Nahi duenak, musika hastapenak jasotzeaz gain, instrumentuak edo abesten ere ikas dezake. Epea ekainaren 15ean amaituko da.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Aitor Arrate | Bergarako futbol taldeko entrenatzailea

"Une honetan, ohorezko mailari eustea gure esku dago"

Zapatuan, jaitsiera postuetan dagoen Getariako hartuko du etxean Bergarak (17:30)

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Aitor Arrate markinarrak (1977) denboraldi hasieran hartu zuen herriko taldea gidatzeko ardura. Taldeak, baina, ez du denboraldi ona egin, eta, hain zuzen ere, Ohorezko Erregional mailari eusteko puntuen bila irten behar du Arrateren mutilek ligari gelditzen zaizkion hiru partidu erabakigarrietan.

Hiru jardunaldi besterik ez da geratzen liga amaitzeko, baina taldea ez dago oso toki erosoan.

Halaxe da, bai, egun gauden tokia ez da batere eroso. Egia da aurreko asteko garaipenari esker hobeto gaudela, baina, oraindik ere, mailari eusteko lan asko egin behar dugu.

Joan den jardunaldiko hiru puntuek asko lagundu dute?

Erabakigarriak izan dira; egia da oraindik ez garela zulotik irten, baina mailari eusteko egiten ari garen ibilbide honi bultzada polita eman diogu.



Aitor Arrate entrenatzailea. | GOIENA

Hala ere, lasaitzeko astirik ez.

Ez, horixe, hurrengo hiru partiduak guretzako hiru final izango dira. Gure helburua mailari eustea da, eta gaur egun hori gure esku dagoen arren, ezin dugu punturik galdu.

Zein da mailari eusteko taldeak duen estrategia?

Estrategia baino gehiago, behar edo konpromiso bat dela esango nuke. Bospasei talde gaude Erregional Preferente mailara jaiteko arriskuarekin; gure kasuan, baina, joan den jardunaldiko hiru puntuek arnasa hartzeko aukera eman digute. Garaipen horri esker, Baskonia eta Zarautz atzean uztea lortu dugu.

Zapatuko norgehiagoka etxean izango da, eta matematikoki jaitsiko den Getariakoren aurka; horrek gauzak zaildu ala erraztu egingo ditu?

Futboleko iragarpenek ez dute askorako balio, guztia zelaian erabakitzen da-eta. Hurrengo partidua etxean izateak eta dagoeneko jaitsita dagoen talde baten kontra izateak gauzak gure alde jarri beharko lituzke, baina ezin gara erlaxatu. Geratzen diren hiru partiduetatik bi etxean jokatuko ditugu, eta, irabazle irtenez gero, kategoriari eustea bermatuta izango genuke.

Etxean jokatzea positiboa ala negatiboa dela uste duzu?

Etxean jokatzea berezia da, eta gauden lekuan are gehiago. Jendearen babesa eta indarra sumatzea izugarria da.

Datorren astean, gainera, Antzuolaren kontrako derbia izango duzue. Partidu berezia da?

Berezitasuna harmailetan igartzten da, partidua ikustera jende gehiago joaten delako, baina guretzat beste partidu bat izango da. Punturen bat eskuratzera irtengo gara Antzuolako futbol zelaira.

Sakabanaketaren aurkako pilota partiduak bihar goizean Udal Pilotalekuan

11:00etan hasita, lehen zatian 'barru herrikoiak' izango dira, nahi duten guztiek parte hartzeko

M.B. | BERGARA

Bihar, zapatua, *Pilotakadaz pilotakada, sakabanaketaren aurka* delako ekimena egingo da Udal Pilotalekuan. "Dispersioa amaituz, euskal preso eta iheslarien aurka oraindik ere indarrean dauden salbuespeneko neurriak salatu eta behin betiko amaitu daitezkeen aldarrikatzea" da ekimenaren helburua, antolatzaileen esanetan. Hori horrela, "herritarrak parte hartzera" animatu nahi dituzte.

11:00etatik 14:00ak arte izango da eta bi atal izango ditu: lehen-goan, *barru herrikoiak* izango dira eta nahi duten herritar guztiek hartu ahal izango dute parte, haur, gazte zein helduek. Bigarrenean, bi norgehiagoka izango dira: Jon Perez eta Beñat Iñarra, Dani Diez eta Aritz Rezustaren aurka arituko dira. Ondoren, partidu nagusian, Lazkano eta *Kanto*, Gaztelu eta Azkondoren aurka ikusteko aukera egongo da.



Ekimenaren antolatzaileak. | IÑIGO ARREGI

Finkatu dira azokak izango dituen ekimen zehatzak

Aurrerantzean, hilabete bakoitzean, ohikoaz gain, Oxirondon mota ezberdineko azokak egingo dira

I.G. | BERGARA

Otsailaren 26an herritarrei egingako aurkezpenarekin batera abiatu zen Azoka Bergaraten prozesu parte hartzailea. Bertan jasotako ekarpenak bateratu ondoren, azoka dinamizatzeko zenbait ekimen finkatu dituzte.

Eguaztenean, lore eta landareekin apainketa ikastaroa eta maiatzaren 17an, aldiz, lore eta landare mintegiaren azoka berezia. Azoka Bergaraten leloarekin, azokako merkatari eta baserri-

tarrek banatzeko, poltsa berberak erabiltzeko ere egingo dituzte. Eta tokiko eta sasoiko produktuen inguruan informazio panelak jarriko dituzte.

Azoka bereziak

Ekainetik aurrera, herriko base-ritar eta bestelako jardueren azoka berezia antolatuko da, hileko lehen eguaztenean, arratsaldean. Horrez gain, bigarren eskuko-truke azokak edo ikastaroak egitea ere aurreikusten da.

Pentekoste jaietako kartela bozkatzeko aukera dago 'Bergara.net' webgunean

I.G. | BERGARA

Herriko jai luzeenak ate joka ditugu eta Udalak, lehiaketa deitu eta gero, Pentekosteak iragarriko dituen kartel guztiak batu eta herritarren botoekin aukeratu nahi ditu. "Hasieratik herritarrak jaietan inplikatu eta presaketan ere parte hartzeko modu bat da", azaldu du Maider Osak, Kultura teknikariak.

Aurtengoa uzta oparoa izan da. Guztira, askotariko teknika eta sormen ugaridun hamasei lan batu dituzte.

Non bota daiteke?

Kartel guztiak www.bergara.net webgunean daude, eta webgunean bertan eman daiteke botoa. Hain zuzen, irabazleak 400 euroko saria eskuratuko du.

LABEGARAIETA

EMAITZAK

T.C.C. - Beti Jai	8-5
Diego Valor - Irama Elgeta	5-2
Minimou Taldie - Komando Piperrak	10-4
Diego Valor - T.C.C.	4-2
Birgerias - Minimou Taldie	1-5
T.C.C. - Irama Elgeta	4-6

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1 Poteo Izarrak	12	5
2 Minimou Taldie	9	4
3 Komando Piperrak	6	4
4 Birgerias	0	5
B TALDEA	P	J
1 Diego Valor	15	5
2 Irama Elgeta	6	4
3 T.C.C.	6	6
4 Beti jai	3	5

PARTIDUAK

MAIATZAK 10, ZAPATUA
19:15 Poteo Izarrak - Minimou / Komando Piperrak
20:15 Birgerias - Komando Piperrak / Poteo Izarrak
MAIATZAK 11, DOMEKA
18:00 Minimou Taldie - Komando Piperrak / Irama Elgeta
19:00 Diego Valor - T.C.C. / Minimou Taldie
20:00 Birgerias - Minimou Taldie / Beti Jai

Partidu guztiak

Koadroko sailkapenak Pazko astean eta maiatzeko lehen astean jokatutako partiduak aintzat hartzen ditu.

200 bat gaztek hartuko dute parte zapatuan Agorrosinen egingo den igeriketa txapelketan

Bihar, Debagoieneko eta inguruko kimu eta benjamin mailetako neska-mutikoak lehiatuko dira Agorrosingo igerilekuan. 16:00etatik aurrera, ohiko estiloetan jardungo dute igerilariak nor baino nor gehiago; 200 bat lagunek, guztira. Eskualdetik, Aloña Mendi, Arizmendi eta Bergara Igeri Elkartekoak arituko dira. Txapelketa dela-eta, igerilekuak itxita egongo dira.

Pazkoetako txosna eta San Martzialgo kantina eta txosnaren esplotazioa arautuko duten baldintzak

Pentekosteetan, San Martin plazan jarriko den txosna ustiatzeko baldintzak, astelehenean aurrera eskuragarri egongo dira udal-letxean eta bergara.net web gunean. Eskuerak aurkezteko epean hilaren 23an bukatuko da. San Martzialgo kantina eta txosnaren baldintzak ere egun eta toki berberetan argitaratuko ditu udalak, kasu honetan baina, epea ekainaren 9an amaituko da.

Lou Topet taldea eta Bakelite bikotea izango dira Egubakoitzak Kartzelaren bigarren kontzertuan

Lou Topet taldea soinu amerikar lasaietan oinarritzen da, baina, era berean, euskal kantautoreen tradizioa modu leunean barneratuta. Bizkaiko Bakelite bikoteak, aldiz, erro anglosaxoiko euskal musika jorratzen du, urruneko joerak euskarara ekarritak. 22:00etan, gaurko bi taldeek zuzeneko eklektiko eta indartsua eroango dute gaztetxera.

Udal Musika Bandak udako denboraldia hasiko du domekako kontzertu pedagogikoarekin

Udaberriko lehen eguzki printzak ikusi eta gero, Udal Musika Bandak urte honetako lehen kalejirarekin hasiko du domekako kontzertua. "11:00etan ekingo diogu alde zaharrean zehar egingo dugun kalejirari", azaldu du Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak. Kaleko emanaldiaren ostean, 12:30ean, Udal Pilotalekuan, pedagogikoa izango den kontzertuari ekingo diote.



Iñigo Ugarte, Evaristo eta Pello Zabala elkarrekin abesten bideokliparen grabazioan. | JULEN IRIONDO

'Gure Esku Dago' kanta eta bideoklipa, Oñatiko erara

Domekan erakutsiko dute, San Migel Txikitan, eta azken planoak hartuko

J.I./O.E. | OÑATI

Gure Esku Dago ekimenaren abestia moldatu dute herriko musikariek, eta kantuan jarri dituzte bertako musikari eta abeslariak. Txalapartariak, batukada, abesbatzak... Dozenaka lagun, batzuk Oñatitik kanpo ere ezagunak. Guztiak batu dira erabakitze eskubidearen alde.

Pello Zabalak, La Polla-ko abeslari ohi Evaristok eta Malenkoniako Iñigo Ugartek, esaterako, elkarrekin abestu zuten kantaren pasarte bat. "Erabakitze eskubidea ez litzateke eztabaidagai ere izan beharko", adierazi zuen Evaristok bideokliparen grabazioan.

Astelehenean batu ziren denak gaztelekuan eta arratsaldeko bos-

tetatik goizaldeko ordu txikieta bitartean egin zituzten grabazioak, nork bere momentuan. Emaizta asteburuan, San Miel Txikitan entzun ahal izango da tabernetan, eta bideoklipa domekan estreinatuko da, jaietako bertso saioaren ondoren, 20:15 aldera. Bideokliparen azken irudiak, gainera, hantxe hartuko dituzte.

Iñigo Ugartek eta herriko beste hiru lagunek hartu dute parte

Herriko lau musikariek egin dute kantaren moldaketa eta egokitzapena

kantaren Oñatiko moldaketan eta egokitzapenean "Erronka bat izan da. Tabernetan sartzeko modukoa izatea ere egin gura genuen", adierazi du Ugartek.

Urbian giza katea

Bestalde, erabakitze eskubidearen aldeko giza katea egingo dute maiatzaren 18an Urbian. Debagoienetik, Urolatik eta Goierritik eta Aguraingo Kuadrillatik joandako jendea batuko da, 12:00etan, ekainaren 8korako motorrak berotze aldera.

Metroak saltzen

Bestalde, giza kateko metroak salduko dituzte datozen egunetan. Asteburu honetan, adibidez, Kale Zaharrean egongo dira.

Eskolabus ekainera arte egongo da proban

O.E. | OÑATI

Astelehenean hasi zen Eskolabus proiektua. Orain arte herriko ikastetxe bakoitzak bere aldetik eskaintzen zituen autobus zerbitzuak optimizatu eta arrazionalizatzeko helburuarekin jarri dute martxan, eta, hala, ikasturte bukarrera arte autobus zerbitzua partekatuko dute Elkar Hezik eta Txantxiku Ikastolak. Herriko hiru ikastetxeek eta Udalak osatzen duten Hezkuntza Mahaian du iturburua proiektuak. Ekainean erabakiko dute datorren ikasturtean ere proiektuak jarraituko duen edo ez.

Aurrerantzean, bi autobusek eroango dituzte umeak Txantxiku Ikastolara eta Elkar Hezi ikastetxera: autobus handia izango da



Eguazten eguerdian Olakuako geltokian. | O.E.

bat, eta txikia bestea. Nerea Zubia- ren esanetan, sistema berriarekin autobusek ez dituzte lehen be- zala ibilbide bikoitzak egingo: ibil- bide motzagoak izango dira, eta

horrek onurak ekarriko ditu bai ekonomikoki eta baita ingurume- nari dagokionean ere. Umeek bizi diren kalearen arabera hartuko dute autobus bat edo bestea.

Herriko zerbitzu turistikoa kudeatzeko deialdia egin du Udalak, bigarrenaz

O.E. | OÑATI

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak turismo bulegoa eta bertan dagoen San Migel errota eta Arrikruzteko kobak kudeatuko dituen enpresa kontratatze deialdia egin du, bigarrenaz. Aurreko prozesuan aurkeztu ziren enpresek ez zituzten eskatutako baldintzak betetzen, eta horregatik egin du bigarren deialdia. Astelehe-

na, maiatzak 12, da lehiaketara aurkezteko azken eguna. Intere- sa duten enpresek udal bule- goetan aurkeztu behar dituzte euren proposamenak.

Proposamenak aztertu ostean, udarako erabakiko da herriko zerbitzu turistiko inte- grala kudeatuko duen enpresa. Bi urterako kontratatuko da, baina beste bi urte luzatzeko aukerarekin.

Kurtzetxo paretik Lizaur kalera bitarteko errepide zatian semaforoa egongo da hilabete eta erdian

Ur eta saneamendu lanak egiten ari dira Kale Zaharreko Kurtzetxo paretik Lizaur kalera bitartean. Horrela, bide bat itxita dago eta bestean ezin da aparkatu. Lanek iraun bitartean izango da horrela, hilabete eta erdi inguru. Kalearen ezkerreko aldean ari dira lanak egiten, eta hesiekin babestuta dago alde hori. Beste bidea erabiliko da ibilgailuek zirkulatzeko, eta semaforoa egongo da aldizkako zirkulazioa bideratzeko.



Kale Zaharra, martitzen eguerdian. | O.E.

Eguaztenean egingo dute Eltzia proiektuaren lehenengo bateratze saioa, Eteon

Datorren eguaztenean, maiatzak 14, hasiko dira Eltzia proiektu- ko bateratze saioak. Bi izango dira eta lehendabizikoa egun horretan egingo dute, 19:00etan. Eltzia guztiek hartuko dute parte eta orain arteko bileretan jasotako informazioa aurkeztu eta parte hartzaile guztien artean kontrastatzea da helburua, etorkizuneko proiektuak betetzeko. Bigarren bilera 28an da.

Odola ematera joateko deialdi berezia egin du herriko Odol Emaileen Elkarteak, beharragatik

Gaur, egubakoitza, egingo dute maiatzeko odol ateratzea, eta herriko Odol Emaileen Elkarteak deialdi berezia egin du herri- tarrak odola ematera joan daitezen. Aurtengo ateratzeak eskas samarrak ari dira izaten, eta dagoen beharra ikusita egin dute deialdi berezia elkartetik. Gaurko odol ateratzea ere 17:30etik 19:00etara izango da, Txantxiku ikastolan.

Realak denboraldi berrian aurkeztuko du Oñatiko Txantxiku Txuriurdiak lagunartea

Txantxiku Txuriurdiak lagunarteko kideek bazkaria egingo dute maiatzaren 31n Soraluze ostatuan. Maiatzaren 15a aurretik eman behar da izena, Izarraitz tabernan, eta menua ere hantxe ordain- du behar da. Bazkaria lagunarteko kamisetarekin joateko dei egin dute. Bestalde, Realak denboraldi berrian egingo du Oñati- ko lagunartearen aurkezpena.

2013an eta 2014an jaio direnendako matrikulazioa zabalik dago Txiki Txoko haurreskolan

Txiki Txoko haurreskola zabalik du matrikulazioa maiatzaren 14ra arte. Ordura arte, 2013 eta 2014. urteetan jaio diren umeak matrikula daitezke. Hala, gurasoek aukera izango dute umeak noiz eraman: irailean, urrian edo azaroan hasi ahal izango dira. Informazio gehiago Txiki Txoko haurreskolan bertan emango dute, Olakua auzoan.

Azken aukera etzi, Euskadi mailara igo ahal izateko

O.E. | OÑATI

Euskadi mailara igo ahal izateko azken aukera du Izarraitz-Aloña Mendi saskibaloitaldeak. Bizkaiko Gaztelueta taldearen aurka jokatu du domeka eguerdian, 12:15ean, Zubikoan, eta irabaztera derrihortuta dago Euskadi mailara igozko.

Maila horretara zein talde igoko diren, baina, hurrengo asteburuan erabakiko da. Izan ere, igoera fasea jokatzeko hasi diren sei taldeetatik lauk jokatu dituzte goiko maila horretako bi postuak. Hala, datorren zapatuan finalerdiak jokatu dituzte eta domekan, finala. Final hori jokatu duten bi taldeak igoko dira Euskadi mailara. Partidu horiek guztiak Irunen jokatu dituzte, lehen postuan talde hori dagoelako eta hark erabaki dezakeelako azken partiduak non jokatu.

Orain arte, igoera faseko lau partidu jokatu ditu Rafa Zulueta taldeak. Lehen biak eta laugarrena galdu egin zituen eta hirugarrena irabazi. Domekan bosgarrena jokatu du.

Unai Osaren errekorra apurtzeko, 90 txirrindulari Oñatin

Arantzazuko 45. igoera jokatu da zapatuan, Aloña Mendiko txirrindularitza sailak antolatuta. Gazte mailako 90 txirrindulari inguru bilduko dira, tartean Ulma-Aloña Mendi taldeko hiru: Julen Umerez, Xabi Aiastui eta Beñat Azkoaga. Irteera 16:30ean izango da Portalekuan eta helmuga, Sindikan. Txopokuan tarteko helmuga egongo da eta Urtiagainen, mendiko saria.

Arantzazuko igoerako errekorra Unai Osak ezarri zuen 1993an.

Bihotz-birikak suspertzeko nola erabili erakutsiko dute

Larrialdi egoera batean bihotz-biriketako bizkortzea eragiten duten aparailua eta desfibrilagailu automatikoa erabiltzeko tailerra antolatu dute Zubikoa kiroldegian.

Maiatzaren 15ean izango da ikastaroa, kiroldegian. Berez, lehen tasuna izango dute kirol taldeak entrenatzen dituzten teknikariek, baina gainerako herritarrek ere parte har dezakete, tokia egonez gero. Doan da eta izena emateko azken eguna astelehena da, maiatzak 12.



Hainbat ume patinajea egiten udako kirol eskaintzan. | OÑATIKO UDALA

22 kirol eskaintza ezberdin 16 urte arteko gaztetxoendako

Datorren astean apuntatu behar da aurtengo udako kirol eskaintzan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

4 urtetik 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoek zuzendutako 22 kirol eskaintza jasotzen dituzte aurtengo udal kanpainak. Hain zuzen ere, lau txandatan antolatu dituzte, ekainaren 30ean hasi eta abuztuaren 29ra bitartean.

Nagusiagoendako ere badago eskaintzarik.

Datorren astean

Aurreko urteetan egin ohi den moduan, aurten ere aurretik eman behar da izena gustukoa den kirol eskaintzan. Izena eman ostean,

zozketa egingo da eta ondoren, kirol hori egin ahal izateko izen-ematea eta ordainketa egin behar da. Hala, datorren astelehena, martitzena eta eguaztena dira apuntatzeko egunak. Eguenean, maiatzak 15, zozketa egingo da eta 19tik 23ra izen-ematea eta

ESANAK

"Normalean egiten ez diren kirolek eskaera handia dute"

OSKAR CARRASCAL | KIROL TEKNIKARIA

eskaintza horri dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dira. Ordainketari dagokionez, bi tarifa daude: bata, kiroldegiko bazkide direnendako; eta bestea, bazkide ez direnendako.

Bi hilabete

Lehenengo txanda ekainaren 30etik uztailaren 11ra izango da; bigarrena, uztailaren 11tik 28ra; hirugarrena, abuztuaren 1etik 14ra; eta laugarrena, abuztuaren 19tik 29ra. Norberak aukera ditza egin gura dituen kirolak eta txandak. "Normalean urtean zehar egiten ez diren kirolek izaten dute eskaera handiena. Esaterako, erraketarekin egiten direnak, patinajeak eta natur ingurukoak", adierazi du Oskar Carrascalek, Udako Kirol teknikariak.

Begiraleak behar dira

Udako kirol eskaintza hori betetzeko, baina, begiraleak ere behar dituzte. Eta dagoeneko zabalik dago horiek kontratatatzeko izen-ematea. Udal webgunean dago informazio guztia.

Bihar, zapatua, jokatu dute San Migel Txiki jaietako Esaera Zaharren II. Txapelketa

O.E. | OÑATI

San Migel Txiki jaiak dira asteburuan. Gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean, beraz, egongo da zer entzun, ikusi eta egin Kale Zaharrean. Zapatuan, esaterako, Esaera Zaharren II. Txapelketa jokatu da.

Iluntzean botako dute jaiei hasiera emango dien etxafuegoa. Gauean, kontzertua egongo da Gela Berezia, Ixilik eta Malenkonía taldeekin. Bihar ere egongo da musika zuzenean entzuteko aukera, Potx eta Motx pailazoak ere bai, eta baita herriko artisauen azoka ere.

Domekan, berriz, Amets Artzallusek eta Maialen Lujanbiok bertso emanaldia egingo dute.

Jaien denboraldia

Olabarrietako jaiak izaten dira maiatzaren lehenaren bueltan. Eta haren segidan datoz herriko jai seinalatu asko. San Migel Txiki ostean Kasablankako jaiak izango dira, datorren asteburuan. Eta maiatzeko azkenean, berriz, Errekaldekoak. Ekainean Olakuakoak, Corpus jaiak eta Zubillagakoak izango dira, eta uztailan, Trianakoak. Urrira arte ez da atsedunik egongo.



Erraldoiak, Kale Zaharrean, San Migel Txiki jaietan. | GOIENA



Biaín eta Regeiro, kontzertuko eta kanpainako kartel banarekin. | IRATI GOITIA

Bazkideentzako kontzertu berezia egingo du Ganbarak urtero

O.E. | OÑATI

Oñatiko Ganbara Abesbatzako kontzertu "berezi eta ezberdin" bat emango du urtero bere bazkideendako. Aurtengoa maiatzaren 17an izango da, Arantzazuko santutegian. Bazkideek etxean jasoko dituzte sarrerak, baina bazkide ez direnek ere izango dute aukera emanaldiaz gozatzeko. Sarrerak salgai daude.

Maiatzaren 17an

Egin dezagun kultura elkarrekin kanpaina jarri zuen martxan Ganbarak joan den irailean, bazkideak lortzeko. "300 ume baino gehiago dituen eskola gara, ekin-tza asko egiten ditugu eta erakundeetatik edo kontzertuetatik

lortzen dugun dirua ez da beti nahikoa izaten", adierazi du Aitor Biaín zuzendariak. Hala, finantzazio pribatua izateko jarri zuten bazkideak egiteko kanpaina.

Eguaztenean emandako prentsaurrekoan adierazi zuten moduan, asmoa da urtean kontzertu bat egitea bazkideendako. "Ganbara normalean ikusten ez den egoera batean izango da. Aurten, euskal musikari zuzendutakoa izango da", aurreratu du Biaínek. Egun, 70 bazkide ditu Ganbarak, eta 150era iritsi gura dute bost urtean. "Eskerrak eman gura dizkiegu guztiei, proiektuak aurrera eramaten laguntzen digutelako", adierazi du Xabi Regeiok, Ganbarako presidenteordeak.



Martitzen arratsaldean egindako osoko bilkura, udaletxeko areto nagusian. | MAIDER ARREGI

Duintasuna elkarrearen mozioa onartuta bilkuran

Antzuolako jaiek 39.000 euroko aurrekontua izango dute aurten

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Maiatzaren 6an egindako osoko bilkuran hainbat gai onartu ziren. Hala, zenbait batzorde informatzailearen osaera aldatzeko erabakia onartu zuten: Ima Beristain alkateak Euskara eta Hezkuntza batzordeen ardura hartuko du; Iker Mansok, Hirigintzarena.

Mozioa onartuta

Onartuta geratu zen Duintasuna elkarrearen mozioa, baina EAJ-ko kideak abstenitu egin ziren. "Gu ere berrordainketaren aurka gaude, itzulketaren formula ez da erosoena, baina automatikoa balitz lege-iruzurra egingo litzateke", azaldu zuen EAJko bozeramaile Maria Eugenia Arrizabalagak. Izan ere, elkarreko kide Juan Ramon Arangurenek botiken dirua bueltatzeko formularioa betetzea oso zaila dela azpimarratu zuen: "Gure haserrea azaldu nahi dugu eta berrordainketa ezabatzea eskatu gura dugu". Pertsona nagusi batek betetzeko formularik onena ez dela esan zuen alkateak: "Nik uste dut Jaur-laritzak bilatu beharko lukeela modu errazagoa erretiratuei diru itzulpen hori egiteko".

Aldundiarekin hitzarmena

Mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena sinatzearen aurka azaldu zen EAJ. Arrizabalagak desadostasuna azaldu zuen; esan zuen Aldundiari dagokiola kudeaketa horri erantzutea, berea delako egoitza. "Proposamen hori ez da onargarria, Udalaren kalterako

da. Aldundiak modu honetan ez dagokion diru bat aurrezteko formula bat bilatu du Gipuzkoako herrietan".

Ima Beristainek, horri erantzunez, konpentsazioa bilatzeko lanetan dabilzala azpimarratu du: "Gipuzkoako Aldundiak egoitzak berreskuratu nahi ditu, eta etxez etxeko zerbitzua indartu. Oraingoz, Udala galtzen irteten bada ere, bagabiltza gai hori bideratzen, konpentsatzeko".

Jaiek aurten murrizketa garrantzitsua izan dutela adierazi zuen EAJk: "2013an 44.000 euroko aurrekontua zuen eta aurten 39.000 eurokoa, %11 gutxiago". "Iaz murrizketa izan ez duen arlo bakarra jaiak izan ziren. Aurrekontuen araua betetzeko egin behar izan dugu", azaldu zuen alkateak.

Onartutako proposamenak

Bestalde, herriko berdeguneen mantenturako kontratua Goroldi enpresari urtebetez luzatzeko proposamena onartu dute. Torresoroako etxebizitza babestuen eta eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa kontratua, aldiz, Eulen enpresari eman zaio.

ESANAK

"Botiken diru itzulpena modu errazagoan egin behar litzateke"

IMA BERISTAIN | ALKATEA

"Lege-iruzurra da diru itzulera automatikoki egitea"

M. E. ARRIZABALAGA | EAJ

Saskiola kontsumo taldea hoge familietara dago mugatuta

Kontsumo taldean parte hartu gura duenak itxaron zerrendan egon beharra dauka, norbaitek baja eman arte. Kudeaketa errazteko, hoge familietara dago mugatuta taldea. Interesa dutenek informazio-batzarretara joateko aukera dutela azaldu digute taldeko kideek. Aurrera begira taldea handitzea ez dute baztertzeko, ordea.

'Plazatik gaztetxera' bertso saioko lehen kanporaketa gaur

Txapelketaren lehen faseko saioa bikoteka egingo da, 22:30ean hasita, gaztetxean. Hauek dira parte hartuko duten bikoteak: Eneko Beretxinaga eta Txaber Ormazabal; Adur Gorostidi eta Asier Azpirotz; Aitzol Iturbe eta Endika Igarzabal; eta Amaia Urbieta eta Aitor Urbieta. Txapelketa jokatuko aurretik afaria egingo da.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJIKA
HARATEGIA**




Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Anbulatorioko ateko kristala eta eskolako patioko eserlekuak apurtu dituzte

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Joan den apirilaren 23an, hainbat mutikok anbulatorioko ate nagusiko ateko kristala apurtu zuten, Torresoroako ziburueta baloiarekin jolasean zebiltzala, zehazki.

Antzuolako Udalak gogorazi nahi du Torresoroako ziburuak ez direla baloiarekin edo futbolekin ibiltzeko lekurik egokiena eta horretarako toki aproposena handik metro gutxi-

tara dagoen eskolako patioko aterpea dela.

Eserlekuak ere apurtuta

Bestalde, Udalak berak jakinarazi nahi du Aste Santuko oporetan eskolako patioan bederatzi eserleku apurtuta azaldu zirela.

Beraz, hemendik aurrera patioan jarleku gutxiago egongo direla azaldu dute Udaletik.



Anbulatorioko ateko kristala, hautsita. | ANTZUOLAKO UDALA

Torresoroako harmaila berriak hilaren 16an estreinatuko dituzte herritarrek


MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Maiatzaren 16an, barikuan, bertso saioa egingo da Torresoroa aretoan. Aitzakia ezin hobea antzularrei modu ofizialean harmaila berriak aurkezteko.

Hala, Ima Beristain alkateak herritarrei erakutsiko die harmaila nola batu eta zabaltzen den: "Antzularrei funtziona-

mendua azalduko zaien arren, beti Torresoroako teknikariak erabiliko du; ez dute herritarrek maneiatuko".

Hala ere, asteon, Landatxopek antolatuta, erretiratuek *Ikusi Makusi* antzezlanaz gozatzeko aukera izan dute Torresoroan; baina modu ofizialean hilaren 16an estreinatuko da herritarren aurrean.



Torresoroako harmaila azken ukitua ematen martitzenean. | MAIDER ARREGI

Joseba Larrinaga hil zela urtebete, baina beti gogoan

'Kemenak' argazki erakusketa dago Arkupen haren omenez

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astean bete da urtea Joseba Larrinaga *Mardo* hil zela; eguaztenean, hain zuzen. Hala ere, hark utzitako hutsunea handia da, eta askok dute gogoan. Hala, hainbat ekitaldi egingo dituzte egunotan hura omentzeko eta, era berean, hurbil sentitzeko.

Sydneyko argazkiak

Kultura Sailak *Kemenak* liburuan jasotako argazki erakusketa eroan du Arkupera; kirol egokituaren gaineko argazki erakusketa, hain zuzen. 2000. urtean Sydney (Australia) egin ziren Paralinpiar Jokoetan Juan Armentia argazkilarik ezagunak ateratako argazkiekin osatutako bilduma da, eta Larrinaga bera ere agertzen da argazki baten. "Josebaren ibilbidea oparora eta esanguratsua izan zen kirol arloan, eta hortik erakusketa", laburtu du Asier Muxikak, Kirol teknikariak.

Euskadiko Kirol Egokituko Federazioaren eta Saiatuz fundazioaren laguntza izan dute argazkiok ekartzeko: "Estimu handian zutela esan ziguten, hainbat paralinpiarretan eurekin jardundakoa zela, eta laguntzeko gertu agertu ziren. Hortik etorri da erakusketa", dio Muxikak.

Otala Zelaiko krosa

Bestalde, hemendik aurrera *Joseba Mardo-ren oroimenezko Otala Zelai kros herrikotia* izango du izena Otala Zelai eguneko laster-



Arkupen dagoen kirol egokituaren gaineko erakusketa. | M.A.

ketak. Maiatzaren 18an egingo da aurrekoa, eta kros egokituko lasterkariak ere hartuko dute parte; ez hori bakarrik, Euskadiko txapelketa izango dute jokoan horiek.

Ekitaldi horiek *Mardo*-ren kirol ibilbidea izango dute gogoan, baina Larrinaga beste hainbat esparrutan ere erabat inplikaturako aretxabaletarra zen, eta horregatik oso maitatua.

Bizikleta jarriko dute istripuaren tokian

Joseba Larrinaga hil zen tokian, Aramaion, bizikleta bat jarriko dute haren omenez. Iaz ere jarri zioten bizikleta zuri bat lagun txirrindulariek; maiatzaren 19an bizikleta martxa egin zuten Aretxabaletatik Aramaiora, eta omenaldia bertan. Baina bizikleta hura desagertu egin zen handik hilabete gutxira, eta orain beste bat jartzea pentsatu dute lagunak.

Zapatuan izango da omenaldi ekitaldi hori, 18:30ean, eta hamar minutu inguru iraungo du.

Areantza auzotik abiatuta Kurtzebarriko haitzetara egingo dute ibilaldia bihar

Loramendi elkarteak antolatutako seigarren ibilbide historikoa da

M.A. | ARETXABALETA

Irteera antolatu du Loramendi elkarteak biharko: Areantza auzotik Kurtzebarriko haitzetara. Inguru hartako parajeen izenak, artzainen kontuak eta beste hainbat kontu izango dituzte berbetagai gidari lanak egingo dituzten hainbat laguni esker.

Hitzordua 08:00etan da Herriko Plazan dagoen 82. kilometroan. Antolatzaileek jakinarazi dute ibilbidea ez dela samur-samurra; horregatik, "mendian ibiltzera apur bat bada ere ohituta egon beharko da".

Toponimia proiektua

Ibilbide historikoen barruan antolatutako seigarrena da biharko. Loramendi barruan sortutako Toponimia Taldea 2009an hasi zen toponimia proiektua garatzen, eta 2010eko maiatzean, Euskara-



Kurtzebarriko haitzen argazkia, liburuxkaren azala. | LORAMENDI

ren Egunean, aurkeztu zuen lehenengo, herri barruko ibilbidea hain zuzen. Ondoren beste bost etorri dira, tartean Arkarazotik Goroetara artekoa eta Bedoñatik Orora bitartekoa.

Ibilbide bakoitzaren gaineko argibideekin, gainera, liburuxka egin dute. Eta azken hori, Areantzatik Kurtzebarriko bideoan ere jaso dute; Youtuben dago zintzilikatuta.

Hamabost bat lagunek egingo dute Gorriñaren martxa

M.A. | ARETXABALETA

Bihar egingo dute *Gorriñaren bidetik* mendi martxa, Murruxiko mendizale elkarteak antolatuta. Hamabost bat lagunek eman dute izena, eta hiru taldetan banatuta egingo dute Aizkorrirainoko joan-etorria.

Hiru taldetan banatuta

Durana kalean Murruxikok duen egoitzatik abiatuta, Aizkorriraino joan eta bueltatuko dira. 44 kilometro egingo dituzte, 2.400 bat metroko desnibelarekin. Hiru taldetan banatuta egingo dute martxa: zazpi orduko taldean lau lagun daude eta 06:00etan abiatuko dira; sei orduko taldean sei lagun, eta 07:00etan abiatuko dira; eta bost orduko taldean bost lagun daude eta 08:00etan irtengo dira. Antolatzaileek egin dituzten

aurreikuspenen arabera, zazpi ordukoak 10:00 aldera izango dira Aizkorrin; sei ordukoak, 10:20 inguruan; eta bost ordukoak, 10:45ean. Helmugaratzea, ostera, elkarren inguruan egingo dutela uste dute; hau da, 13:00 ingururako Murruxikoren egoitza aurrean.

Zazpi ordu baino gutxiago

1932ko urrian egin zuen Gorriñak martxa hori. Zazpi ordu baino gutxiago beharko zituela egin zuen apustu orduan; baita irabazi ere. Gorriña 06:00etan irtetzen Aretxabaletatik, 09:20an iritsi Aizkorrira eta 12:45ean bueltan zen. Antolatzaileek jakinarazi dute ez dela lasterketa izango biharko, taldekako martxa baizik, baina zazpi ordu baino gutxiago egiteko asmotan joango dira lasterkari guztiak.

Athleticen eta Realaren arteko partidua aitzakia, jaia egingo dute domekan

Aretxarte elkarteak tabernariak antolatu dute: gosaria, zaleen arteko partidua eta bazkaria

M.A. | ARETXABALETA

Athleticen eta Realaren arteko partidua ikustera San Mamesera joateko aukera gutxi izango du, eta Aretxarte elkarteak tabernariak herrian bertan ospatzea pentsatu dute. Hala, goizean goizetik izango da jai giroa; izan ere, kamisetak jantzi eta gosaltzeko elkartuko dira (10:30): Realzaleak Express tabernan, eta Athleticzaleak Eguzkin. Ondoren, txikiteoari ekingo diote Aretxarteko gainerako tabernetan: Orly, Gurea, Dagda, Izartu, Arlutz, Izotz, Urbaltz, Haizea eta Akorde.

Eta 11:30ean lagun arteko partidua jokatuko dute Arlutz ostean dagoen kantxan.

Bazkaria, Mitarte kalean

Mitarte kalean izango da bazkaria, 14:30ean. Antolatzaileek mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta jatekoak norberak eroango du. Musika lagun, giro ederrean egoteko aukera izango dute zale batzuek zein besteek, derbia hasi baino lehen.

Sariak ere banatuko dituzte Aretxarteko kideek. Izan ere, taberna horietan kontsumituz gero, zozketa batean parte hartzeko txartelak bana-



Zozketatuko duten materiala. | M.A.

tuko dituzte. Sariak izango dira Athleticeko eta Realeko kamiseta bana eta bi baloi, laurak talde bakoitzeko jokalariek sinatuta. Zozketa astelehenean egingo dutela iragarri dute.

Bertso bazkaria egingo dute herriko emakumeek lehenengoz

40 bat emakume elkartuko dira, Maddi Sarasua eta Ane Zuazubiskar lagun

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Lagun artean sortutako burutazioari forma eman eta bihar, zapatua, Aretxabaleko emakumeen I. bertso bazkaria egingo dute. Urbaltz elkartean izango da 14:30ean, eta 40 bat lagun elkartuko dira mahaiaren bueltan Maddi Sarasua eta Ane Zuazubiskar bertsolari gazteak lagun dituztela.

Emakumeok, emakumeondako

Bazkari horren atzean ez dago elkarterik, ezta talde eraturik ere, lagun taldea baizik: "Bazkariaren ideia lagun artean sortu zen. Urbaltz elkartearekin berba egin eta aurrera egitea erabaki genuen", dio Itsaso Pagoaga antolatzaile lanetan jardun dueneta batek. Zergatik, baina, bazkari hori, eta zergatik orain: "Aspalditik geneukan buruan emakumeok emakumeondako zerbait egitea, eta bertso bazkariaren ideia aproposa iruditu zitzaigun", eta gaineratu du: "Orain arte emakumeok aukera gutxi izan dugu espazio publikoan geuretako kontuak antolatzeke eta guk geuk gozatzeko". Hala, berdintasunaren bidean gizonendako eta emakumeendako ekintzak antolatzea ondo deritzo



Maddi Sarasua aurrean eta Ane Zuazubiskar atzean, Kurtzebarri eskolan. | M.A.

"baina baita bakarrik emakumeondako egitea ere".

Txikiteoa eta bazkaria

Eguerdia partean, 12:30ean, Mitarte plazan elkartuko dira txikiteoa egiteko, eta 14:30ean joango dira bazkaltzera. Herriko emakume guztiak gonbidatu gura izan dituzte, eta txartelak poliki-poliki joan dira saltzen. Hala, 40ren bat izango dira; izan ere, Urbaltzen ez dira gehiago sartzen. Eta lagun arteko giroa gehiago gozatzeko

bertsotan jardungo dute Maddi Sarasua lapurtarrak eta Ane Zuazubiskar arrasatearrak.

Aurtengoa lehenengoa da baina gehiago izango direla uste du Pagoagak: "Ondo badoa datorren urtera begira Lekaixoka bertso eskolakoekin edota beste elkarteren batekin elkarlanean antolatzea izango litzateke asmoa. Eta herri gehiago zabaltzea ere bai. Izan ere, aurtengoa proba besterik ez da". Ea, bada, luzarorako finkatuta geratzen den ospakizuna den.

Euskararen Eguneko bazkariko txartelak salgai jarri dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Gaur zortzi, maiatzaren 17an, ospatuko da Euskararen Eguna, Loramendi Elkartearen eskutik. Goizetik iluntzera arteko egitarau dotorea gertatu dute, euskara ezpain artean hartuta jai giroan bizi izateko eguna.

Hitzen bingoa bazkalostean

Urteroko ekitaldiak eta berriak bateratu dituzte egitarauan; berrikuntzen artean daude, herri kirolak koadrilaka goiz partean eta bazkalosteko hitzen bingoa. Horrez gain izango dira: umeendako jolasak eta bertso-triki poteoa goizean; herri bazkaria; eta umeendako ikuskizuna, elektrotzaranga eta larrain-dantza arratsalde partean.

Bazkarirako txartelak salgai

Herri bazkarirako txartelak dagoeneko salgai jarri dituzte Taberna Barri jatetxean eta Loramendin bertan. Elkarte bazkideek eta ikasleek 16 euroren truke eskuratuko dituzte; eta gainontzekoek, 19 euroren truke.

Menua honakoa izango da: entsalada, okela gisatua, ijito-besoa, sagardoa, kafea eta kopa.

Hiruutxekoak eta Okilakoak

Bestalde, Hiruatx elkarte kideek bidezko merkataritzako produktuak jarriko dituzte salgai Herriko Plazan, urtero legez. Eta Okila taila elkarte kideek egurrarekin egindako lanak erakutsiko dituzte.

Otala Zelaiko erromerian egingo den paella txapelketarako izen-emate epea zabalik dago

Maiatzaren 18an ospatuko da Otala Zelaiko erromeria Aozaratza auzoan dagoen zelai ezagunean. Urteroko hitzorduak antolatu ditu Kultura Sailak, horien artean paella txapelketa. Bertan parte hartzeko aurrez eman behar da izena Arkupen, eta 5 euro ordaindu. Hogei lagunendako dago lekua; hortaz, horiek bete arte egongo da zabalik izen-ematea. Antolatzaileek jarriko dituzte honako osagaiak: arrosa, olio, tipula, berakatza, gatza eta koloratzailea. Gainerakoak norberak eroan beharko ditu. Eguraldi txarra eginez gero, bertan behera geratuko da txapelketa.

'Erdaldun berrien kluba' antzezlan gaur Arkupen

AED elkarteak ekoiztutakoa da eta Olatz Pagaldai eskoriatzarrak eramango du oholtzara

M.A. | ARETXABALETA

AED euskara elkarteak ekoiztutako *Erdaldun berrien kluba* antzezlan izango da gaur, 22:00etan, Arkupen (sarrera, 4 euro).

Idoia Etxeberria oñatiarrak idatzitako gidioa da eta Olatz Pagaldai Eskoriatzako aktoreak eramango du oholtzara.

Euskararen erabilera

Irantzu da istorioaren protagonista; euskaraz pentsatzen, euskaraz sentitzen eta, ahal duen

guztietan, euskaraz jarduten duen neska eskoriatzarra. Horrek hamaika arazo sortuko dizkio egunerokotasunean, eta bizipen horien kontaketa oinarritzen da antzezlanaren hari nagusia: "Euskaraz bizi garenok erdaldun berriak gara, gaztelaraz hitz egiterakoan esan beharrekoak pentsatu eta askotan hitzak faltan ditugu", dio aktoreak.

Euskararen erabilerearen inguruko gogoeta bultzatzea du helburu antzezlanak AEDko kideen



Olatz Pagaldai. | IMANOL SORIANO

esanetan, betiere umorea lagun. Emakumearen ikuspegitik landutakoa da, gainera, hizkuntza-transmisioaren eta genero rolen inguruko gogoetak ere eraginez horrela.

OHARRAK

IPUIN KONTALARIA BIHAR

Belen Azkarate kontalariak *Txokolatzeko ipuintxoak* saioa eskainiko die neska-mutikoei bihar, 11:00etan, Udal Liburutegian. Sarrera, debalde.

'GAZTA ZATI BAT'

DOKUMENTALA BIHAR

Gure Esku Dago dinamikak antolatuta, *Gazta zati bat* dokumentala emango dute bihar, 22:00etan, Arkupen.

BIOLIN ETA BIOLONTXELO

EMANALDIA MARTITZENEAN

Martitzenean, hilak 13, Leizarra musika eskolako biolin eta biolontxelo instrumentuen ikasleek emanaldia eskainiko dute Arkupen, 18:00etan.

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS 23AN

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek *Bizipoza* azken antzezlan eskainiko diete neska-mutikoei hilaren 23an, egubakoitza, Herriko Plazan; sarrera, debalde.

BOTOA POSTA BIDEZ

Aretxabaleko EAJ-PNV alderdiak jakinarazi gura die kideei eta zaleei maiatzaren 25ean egingo diren Europako Parlamenturako hauteskunde bidei botoa posta bidez eman gura dutenentzat batzokiko bulegoa irekita dutela astelehenetik egubakoitzera; hona ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.



Amaia-Berri S.L.

Iturgintza

Iturgintza

Berokuntza instalazioak eta mantentze-lanak

Gas instalazioak

Energia berriztagarriak

Aire erauzketa eta aireztapen instalazioak

Irisgarritasuna

Otalora 18 - ARETXABALETA

Tel.: 943 77 06 49

www.amaiaberri.com

amaiaberri@amaiaberri.com



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea

ARETXABALETA

Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Carlos Malagon | Nerabezaroan aditua

"Mugarik ez izateak gazteen garapena galarazten du"

Helduendako ipuin kontaketa eta familiendako tailerra eskainiko ditu adituak datorren astean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Nerabeekin urteak lan egiten daramatzen Carlos Malagon irakaslea Eskoriatzan izango da datorren astean. Nerabeekin izan beharreko harremanaz egingo du berba gurasoekin.

Hilaren 16an Carlos Malagon, un maestro que cuenta cuentos izeneko helduendako ipuin kontaketa eskainiko duzu Huhezin, 22:30ean. Zertan datza?

Eskola-bizitza zati daitekeen hiru adini zuzendutako ipuinak kontatzean datza: txikitxoendako maitagarri buruzko bat, Lehen Hezkuntzakoendako mitologia zeltaren gaineko bat eta Bigarren Hezkuntzakoendako Bucayren ipuin bat kontaketa ditut. Berez, umeendako diren ipuinak oso baliagarriak dira helduendako. Kontaketa ditudan ipuinen artean, izarra *Peronik, el idiota* izenekoa da: magia-ipuina horretan gauzak ez dira ematen dutena eta kalteak



Carlos Malagon. | GOIENA

hori baino ez dira; errealitatearen egia indargabetzeko balio dute horiek.

Maiatzaren 17an, berriz, familiendako tailerra emango duzu 10:00etatik 13:00etara?

Askotariko gaiak landuko ditugu bertan: guraso edo irakasleen nerabezaroa nolako izan zen, seme-alabena zelakoa den, seme

-alaben bizitzaren ezagutzea edo zer den nerabezaroa eta adin tarte horretan jarri beharreko mugak, besteak beste.

Eta nola egin behar zaio aurre nerabezaroari?

Kutsatuta egongo balira moduan tratatuak dira askotan gazteak. Txikiak direnean arreta handiz zaintzen ditugu umeak... eta ahaztu egiten gara behar gaituzten neska-mutilez. Erronka egiten digute beraien ideiak berresteko, proban jartzen gaituzte gizakien egiazkotasuna azalarazteko eta ihes egiten dute beldurrak dituztelako. Helduekin duten duela hori guztia hazteko eta topatu ahal izateko da. Lagundu behar diegu, nerabea izatea zaila da, baina nerabea izatea nerabea den gizarte batean balio berezia duten ausartendako da: horiek dira gure gaurko gazteak.

Nolako izan behar da gurasoen eta nerabeen arteko harremana?

Ezin gara seme-alaben lagunak izan; heldutasunetik jarduteko kapaz izan behar gara. Garena izan behar gara. Komunikazio bidea ez da inoiz galdu behar; eta komunikazio hori mugekin orekatu behar dugu.

Hortaz, mugak jarri behar dira...

Hazi ahal izateko aurre egiten duten trabak dira mugak. Mugarik ez izateak autonomiaren eta berezko senaren garapena galarazten du. Mugak bidea islatzen duen ispilu bezala ikusten dituzte gazteak. Konfiantza garatze aldera, kontuan hartuko dituzten idealak eskaini behar dizkiegu.

Bide Ertzean eta Akerbeltz taldeak bihar, zapatua, Aitzorrotz Egunean

Aitzorrotz Kultura Elkartek askotariko ekintzak gertatu ditu, eta egun osoan izango dira

M.B. | ESKORIATZA

Egitarau zabalak gertatu dute bihar egingo den Aitzorrotz Kultura Elkartearen egunaren barruan. Eguerdi partean hasiko dira ekintzak: erdiko kalea itxita egongo dela aprobetxatuta, umeendako puzgarriak jarriko dituzte plaza inguruan, eta jokoak ere egingo dituzte. Etxeko txikiak ederto pasatzen duten bitartean, helduek sagardoa eta taloa dastatzeko aukera izango dute aurten ere.

Bazkaltzeko ordua heltzen den bitartean, gura duena kultura etxera ere joan ahal izango da, lehen solairuan dagoen toponimoen erakusketa ikustera.

Sagardotegiko menua

Herri bazkarian berrikuntzak daude: herriko harakinen laguntzarekin, sagardotegiko menua prestatuko dute aurten plazan. Txartelak bihar, zapatua, goizera arte erosi ahal dira; elkarteko bazkideendako 13 eurotan salduko dira eta gainerakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte; eta umeen txartelak 10 euro balio dute.

Bazkaldu ostean, 17:00etatik 19:00etara, puzgarrietan eta



Talogleak ere izango dira. | GOIENA

tailerretan ibiltzeko aukera izango dute, ostera, haurrek. Musikariek ere ez da faltako. 18:30ean, Bide Ertzean taldeak kaleratutako azken lana aurkeztuko du Inkernu kanpoaldean. Iluntzean, triki-poteoaren ostean, Akerbeltzen txanda izango da; 21:00etan hasiko da dantzaldia, toki berean.

Bestalde, Aitzorrotz Kultura Elkartetik jakinarazi dute biharko eguna aprobetxatuko dutela harpidetza-kanpaina martxan jartzeko.

Salgai daude hilaren 16ko Apotzagako bertso afarirako txartelak

Urtero moduan, bertso afari musikatua egingo dute maiatzaren 16an, egubakoitza, Apotzagako elkartearen; eta dagoeneko salgai daude horretarako txartelak. Interesa dutenek Inkernu, Aldatz eta Goxo Txiki tabernetan eros ditzakete 15 eurotan. Hilaren 15era arte egongo da erosteko aukera.

Eingeinke gazte ekimenak eta Hankamotx bertso eskolak elkarlanean gertatutako saio horretan lau bertsolarik hartuko dute parte: hain justu, Jon Martinek, Egoitz Zelaiak, Egoitz Aizpuruk eta Xamoa-k. Afaria 21:00etan hasiko da, esan bezala, Apotzagako elkartearen.

OHARRAK

KANPO JOLASAK

Asteroko ekintza berezien barruan, umeendako kanpo jolasak gertatu dituzte gaurko Tortolis ludotekan.

TAILERRA ETA IRTEERA

Gaztelekuan zirku tailerra egingo dute gazteek gaur eta bihar. Etzi, berriz, mendira joateko asmoa dute; 11:00etarako asmoa dute hitzordua.

KIROL HITZORDUAK

Kirol hitzordu bakarra dago oraingo asteburuan Manuel Muñoz kiroldegian: bihar, zapatua, areto futboleko 1. erregionalean, Eskoriatza eta Laudioko Uxo taldeak lehiatuko dira, 18:00etan.

Bernabe Errastik 104 bete ditu: zorionak!

104 urte bete zituen maiatzaren 4an Bernabe Errastik. Hori dela eta, martitzenean, hilaren 6an, etxean umoretsu hartu zituen hura zoriontzera joan ziren Udaleko eta Olazar elkarteko ordezkariak, eta baita Goienako lankideak ere. Izan ere, sasoioko dago oraindik ere Errasti. Zorionak eta urte askotarako!



MAIALEN TORRES

LENIZ
ESKORIATZA

SUZUKI

KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Txirritola pozik dago ipuin lehiaketarekin

Gaur banatuko dira sariak, 'Pantxika Lamur' obraren ostean; kultura etxean, 17:00etan hasita

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritola euskara elkartearen ipuin lehiaketako sariak banatuko dira gaur kultura etxean, 17:00etatik aurrera. Antolatzaileak pozik daude aurtengo parte hartzearekin, elkarteak kide Olga Parraren arabera: "Iazko kopurua mantendu da. Lehiaketa errotuta dago eta orain heldu gehiago erakartzea da erronka". 92 ipuin jaso dira guztira eta horietatik lau baino ez dira izan helduenak.

Sariak banatu aurretik antzezlan bat ikusteko aukera egongo da. Topaguneak proposatuta, Zirkura Zirkus taldearen *Pantxika Lamur* obra ikusi ahalko da.

'Irakurri, gozatu eta oparitu'

Bestalde, aurten ere martxan dago *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu eta honakoan datza: liburutegian euskarazko liburu bat maileguan hartuz gero eta itzultzerakoan liburuazainak emandako fitxa beteta -irakurritako horri buruzkoa-, erosketa txartela jasoko du irakurleak Arrasate ala Gasteizko Elkar dendetan liburu hori bera ala euskarazko



Pantxika Lamur obra. | SAIOA 'GAUILUNAK'

beste edozein erosteko. %25eko deskontu-balioa duen erosketa txartela jasoko dute irakurleak orokorrean, eta %50ekoa Txirritolako bazkide izanez gero. Haur zein helduei dago zuzenduta, ekainaren 30era arte.

Alaiak-ek mus, tute eta briska txapelketak antolatu ditu

J.B. | ARAMAIO

Urtero moduan, aurten ere karta txapelketak antolatu ditu Alaiak erretiratu elkarteak. Hain justu, mus, tute eta briska lehiaketak izango dira eta maiatzaren 13an eta 14an jokatuko dira (16:00). Hilaren 13an briskan arituko dira da eta hilaren 14an, berriz, tutean eta musean. Edozein txapelketatan izena emateko azken eguna maiatzaren 10a da; zuzendaritza batzordeko kideren bati abisatuta nahikoa izango da.

Sari interesgarriak

Hainbat sari izango dira lehen hiru bikoteendako; hiru txapelketetan sari berberak izango dira: gazta bi lehen bikotearendako, bi botila xanpain bigarrenendako eta bi botila ardo hirugarrenendako. Aurkezten diren guztiendako tragoa musu truk egongo da Alaiak elkartearen egoitzan.

Antolatzaileek bereziki eskertu gura dute Aramaioko Udalaren, Arabako Aldundiaren eta Uxarte nezakaritza etxearen laguntza.



HAIXEOLA

Presoen aldeko pilotakadak

Euskal presoen eskubideak aldarrikatu eta sakabanaketa salatzeko, Pilotakada ekimena abiatu zen joan den aste bukaeran. Hamaika bikotek jokatu zuten eta horietatik sei sailkatu ziren hurrengo faserako. Hurrengo partiduak jokatuko dira gaur Legutian (18:00) eta bihar, hilak 10, Aramaioko pilotalekuan, 11:00etan eta 17:00etan.

'Aulki hutsak' dokumentala hilaren 14an kultura etxean

Hilaren 14an, *Aulki hutsak* dokumentala ikusteko aukera egongo da kultura etxean, 19:00etan. Iñaki Peña medikua da filmeko zuzendaria eta gidoigilea; dokumentalak dolua du abiapuntu, hainbat testigantzarekin. Arteman komunikazio enpresak ekoiztutako lana da.

Odol Emaileen Elkarteak pozik dago azken bisitarekin

Arabako Odol Emaileen Elkarteak eta Udalak eskerrak eman dizkiete aramaiotarrei erakutsitako prestutasunagatik. Izan ere, astelehenean autobusa egon zen parkean -lehenengo-, orain arte osasun etxean egiten zelako -eta 37 pertsonak eman zuten odola; horietatik bik, lehen aldiz.

Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!

Izan haien berri gure webgunean

www.sukia.com

ONGI
ETORRI

Bista ederrak
Atikoak 198.000 €-tik
hasita

Zatoz eta hitz
egingo dugu

600 902 224



Oxel Erostarbe | Elgetako alkatea

"Herritarrek iritzia emateko unea da"

Elgetako alkatea Goiena telebistako 'Harira' saioan izan da asteon; hondakinen gaineko kontsulta eta egoera ekonomikoa izan ditu hizpide, besteak beste



Oxel Erostarbe, martitzenean, Goiena telebistako platoan. | ENEKO AZKARATE

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Erreplikarako aukerarik ez zuela eta oposizioan dagoen EH Bilduk ez du saioan parte hartu. EAJko ordezkari Patxi Basaurik jakin gura izan du Erostarbe alkategai izango den datorren urteko udal hauteskundeetan. **Zazpigarren urtea alkatetzan. Ezberdinak izan dira bi agintaldiok?** Aurreko agintaldian gobernu sendoa osatu genuen ANVko ordezkariekin, eta uste dut balio izan zuela herrian zeuden beharrek detektatu eta etorkizuneko asmoak proiektuetan jasotzeko. Orduko erabakiek balio izan dute agintaldi honetan hainbat gauza aurrera ateratzeko. Agintaldi honen hasieran Bilduk erabaki zuen gobernuan ez sartzea, eta beste modu batera antolatu gara. Uste dut herriaren alde ardurak hartuta dihardugunok ondo egiten gabiltzala.

33.000 euro inguruko soberakinarekin itxi duzue 2013a.

Iazkoa erronka handiko urtea izan zen. Eskolatik urteetan egin den eskaera bati erantzuna eman diogu; ingurua txukundu eta jolastoki duina egin. Jaurlaritzaren eta Diputazioaren babesarekin lortu dugu. Guretzako ere urte zailak dira. Ez gara sekulako ondo doan udal bat, baina ez gaude hain txarto ere. 760.000 euro inguruko zorra dugu eta aurten ere aurrekontuaren erdia —160.000 euro inguru— aspalditik datozen zorrak ordaintzera bideratuko dugu.

Bolatoki inguruan ere jolastoki berria sortu dugu, inguruko herrietatik gero eta jende gehiago erakartzen duena. Nahiz eta dirulaguntzak lortu, iazkoa esfortzu ekonomiko handiko urtea izan zen. Hala ere, soberakinarekin ixtea azpimarratzeko moduko dela iruditzen zait.

Ze egitasmo duzue 2014rako?

Planteatu dugu herriko elkarteak eta eragileak dirulaguntzetan murrizketarik ez aplikatzea eta batzorde guztietako diru larroak mantentzea. Inbertsioetarako

gelditu den diru apurrerako lehen-tasunak finkatu ditugu. Eskolak, zorionez, gero eta ikasle gehiago ditu eta handitu eta egokitu egin behar da bi urteko umeen gela. Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa ere gai horretan erreferente izaten jarraitzea nahi dugu, eta iaz egiterik izan ez genituen mantentze-lanak ere egin nahi ditugu aurten.

Egoera ekonomikoa ezberdina izan da bi agintaldiotan?

Eraikuntza geldi dago, ez da enpresa berririk etortzen, dauden etxebizitzak ez dira ez saltzen ez eraberritzen... Horrek bere eragina du Udalaren sarreretan. Horri gehitu behar zaio Foru Aldunditik datorren Fondo Forala ere gero eta txikiagoa dela, nahiz eta erraztasun batzuk eman dizkiguten.

Zelakoa da industria jarduera Elgetan? Enpresaren bati ordainketa bat barkatu diozue, ezta?

"Guretzako ere urte zailak dira: 760.000 euro inguruko zorra dugu Elgetan"

"Garrantzitsua da herritarrek ze bilketa sistema lehenesten duten argi lagatzea"

"Nire ustez, kultura proposamen bat egin nahi duenak sekulako aukera du Espaloian"

Enpresek oso aholkulari onak dituzte, eta orain sei bat urte ekin genion enpresaz enpresa azterketa bat egiteari. Eskatu dieguna da ordaindu beharrekoa ordaintzeko, eta azterketak eman duena da enpresa batzuek ordaindu beharrekoa ordaintzen zutela eta beste batzuek gutxiago. Horien artean zegoen enpresa bati —zein Enplegu Erregulazio Espedientean dagoen, eta zeinek sekulako ahalgina egin duen Elgetara etortzeko— isun bat barkatu diogu, udalbatzak aho batez erabakita. Ez diogu zerga bat barkatu, eta jasota ditugun arauetan dagoen gauza bat egin dugu. Legez kanpoko ezer ere ez.

Hondakinen inguruko herri kontsulta deitu duzue ekainaren 22rako.

Edukiontzia berdearen sasoia amaitu da. Uste dut argi dugula denok, eta Udaleko hiru talde politikoak adostasun batera iritsi gara: %70-80ko sailkapen tasara heltzea helburu moduan ipinita bilketa sistema bat proposatzen diegu herritarrei. Orain, herritarrek esan behar dutena da ados dauden sistema hori ezartzearekin. Elgetarrei esango nieke sistema honen alde badaude ekainaren 22ko kontsultan parte hartzeko. Herenak parte hartzen badu emaitza loteslea izango da Udaleko talde politikoendako, eta garrantzitsua da herritarrek ere zein sistema lehenesten duten argi lagatzea.

Zer gertatuko da Espaloia kafe antzokiarekin?

Onartutako baldintza-agiriak horretarako aukera ematen duela nahiko nuke orain arte zeukan dinamikarekin edo antzerakoarekin jarraitzea. Espaloia, nire ustez, erreferente izan da kultura arloan. Elgeta kokatu egin du mapan. Hala, hurrengo datozenek eginda daukate bide bat, eta pleguek bide horri eusteko aukera ematen dute.

Espaloia hamar urteotan auzolanean oinarritu den proiektu bat izan da. Herriko eragile guztiek zabalik izan dituzte ateak, eta Udalarendako oso garrantzi-

OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

Patxi Basauri | Elgetako EAJ

"Gestioa nahiko positiboa da"

"Agintaldi hasieran erabaki genuen bai EH Bilduk bai guk gobernuan ez sartzea. Udaleko lanak aurrera ateratzeko, ordea, EAJtik erabaki genuen bi batzorde hartzea: baseritarrena eta turismoarena. Bideak konpondu ditugu, urak bideratu ditugu, Interpretazio Zentroa martxan da, Finalista Eguna, pintxo lehiaketa... gauza asko egin dira. Babestu genuen baita ere 2013ko aurrekontua eta horrek ahalbidetu du Asentzioko parkeko lanak eta frontoi zaharrek edo eskola inguruko lanak egitea. Gobernu honen gestioa orokorki nahiko positiboa dela uste dugu. Hutsune bat ipintzekotan esango genuke ez dela askorik sakondu industrialdea bultzatzeko ahaleginean".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Alkatetza hartu genuenean gobernu batzorderik ez eratzea erabaki genuen, eta ardurak banatzea. Udal erabakigune guztiak publikoak dira Elgetan, eta uste dut ardurak dituzten zinegotziek ondo dihardutela lanean. Industrialdeari dagokionez, uneotan enpresariak eta beharginak nahiko lan dute daukatena mantentzearekin. Ez da unea arlo horretan ditugun hutsuneak betetzeko. Hori bai, duela pare bat urte El Casco enpresa etorri zen Eibartik, eta erraztasun guztiak ematen saiatu gara".

OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

Egungo gobernu taldeak badu herrira enpresak erakartzeko ahalegina egiteko asmorik?

"Erronka da Berraondoko industria handik ateratzea. Momentua da horretarako kontuan hartuta, gainera, enpresa txiki asko daudela hor? Lurraren prezioa merkeagoa da Elgetan inguruko herrietan baino, baina ez da horretarako momentua. Krisi garaiotan enpresek nahiko lan dute eusten. Ez dut uste Elgetara etortzeko edo zabaltzeko asmoarekin direnik. Dena den, inor udaletxera galdezka etortzen denean beti saiatzen gara erraztasunak ematen".

Aurkeztuko zara hurrengo udal hauteskundeetara?

"Urtebete falta da oraindik udal hauteskundeetarako eta goiz da ezer esateko. Egia da taldean mahai gainean dugun puntu bat dela, baina ez diogu behar den denbora eskaini. Pentsatzen dut opor ostetik urte amaierara bitartean helduko diogula gaiari. Hori esanda eta ikusita gure herria zelakoa den, ez litzateke hobea herritarrei herritarrekin osatutako zerrenda bat aurkeztea? Taldean eginda daukagu hausnarketa hori, eta uste dugu baietz. Eta, seguruenik, hortik egingo dugu ahalegina".

tsua dena: autogestionatu den gune bat izan da. Ezohiko egoera baten aurrean gaude. Goibeko elkarteak dirua ipini du, hamar urtean sekulako lana egin eta gunea erreferente bihurtu du. Gainera, inbertsio guztia herri-rako laga du, eta orain kultura proposamen bat egin nahi duenak sekulako aukera du gune horretan. Seguru nago aukerak etorriko direla. Udaletik, orain arte moduan, laguntzen eta gauzak errazten saiatuko gara.

Hainbat arlotako zerbitzuak bateratuta daukazue eskualdeko beste herri batzuekin. Emaitza ona ematen du formula horrek?

Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina uste dut eskualde mailako plangintza bat egitea beharrezkoa dela, eta Mankomunitatean badihardugu horretan. Bideberri ere hor dago. Izan da guretzako ganorazko eta herri-tarren beharrei behar den moduan erantzuten dion ongizate zerbitzu bat izateko bidea. Egoera goitik behera aldatu da Elgetan; asko hobetu da. Ahal den herri gehienetan ahal den batuen lan egitearen aldekoa naiz. Hau da, ahal den gauza gehienetan elkarlanean jardutea, eta beharrezkoa ikusten dut herrien artean elkarlanean jarduteko dinamika indartsu bat egotea. Horrek ekar dezake Udalok erabakitze ahalmena galtzea, baina sinesten dut horretan eta uste dut gurea moduko herri batek asko irabazten duela, gehienbat dugun tamainarengatik.

Garraio publikoa bada elgetarren aspaldiko beste eskaeretakoa bat. Hobetu da egoera?

Elgetako Udalak aurreko Diputazioarekin adostutakoak errespetatu ditu gaur egungo Diputazioak, eta uste dut gaur egun

dugun garraio zerbitzuak ez dela ezer ikustekorik orain sei urte genuenarekin. Egia da ez dela izatea gura nahiko genukeen bestekoa, baina elgetarrok egin behar duguna da ipinitako zerbitzuak erabili. Uste dut badugula hor erronka bat eta kultura aldaketa bat egin beharra. Baina egia da baita ere kultura aldaketa hori emateko zerbitzuak eskaini behar direla... Azken urteotan batzar dezente egin ditugu Elgetan gai honi buruz eta Diputazioak egin duen azken prozesu honetan hutsune horiek guztiak irten dira beste behin. Herritarrek egindako proposamenak aurkeztuko ditugu berriz, eta espero dugu batzuk onartuko direla. Eta onartzen badira Udaletik nahiko genukeena da herritarrek erantzutea. Zerbitzu berriak ez badira erabiltzen denbora kontua izango da kentzea.

Wi fi gune librea da Elgetako herriko plaza. Erabiltzen da?

Hor pauso bat ematea falta zaigu. Kostata baina sare guztia martxan da. Saltoa, orain, sare hori etxetara zabaltzea da. Laster egingo dugu horren gaineko hitzaldi bat *Guifi.net*-eko kideekin. Proiektu honek ate asko zabaltzen dizkigu: Internet konexio bizkorragoa, hainbat gauza elkarbanatzeko sare bat sortzea, konpainien gehiegizko tarifak saihestea... Bost bat euroko hileko kuotarekin etxean Internet edukitzeko aukera izan dezakegu. Erronka da proiektua behar den moduan garatzea.

Elkarrizketa osoa:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Elgeta kantuan, udazkenean, Haizea tabernan. | L.Z.

Maiatzaren 18rako ari dira prestatzen Elgeta Kantuan

Kantuzaleak errepertorio berrituarekin datoz eta liburuxka berria aurkeztuko dute maiatzean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetan ere bere ibilbidea egin ari den ekimena da Elgeta Kantuan. Duela urtebete sortua, gero eta lagun gehiago elkartzen dira lagunartean kantuan egiteko.

Egun seinalatuak dira eta maiatzaren 18rako egin dute hurrengo hitzordua. Ohikoa duten moduan, 13:00etarako egin dute hitzordua herriko plazan, eta, ekintza irekia denez, nahi duen orok izango du parte hartzeko aukera. Oraingoan ere Jose Gardoki soinu-jolearen konpainian egingo dute tabernaz tabernako ibilbidea kantuzaleek. 15:00 ingurura arte ibili dira kantuan.

Berrikuntza, oraingo honetan, kantu errepertorioa da. Orain arteko kantuak alde batera utzi eta abesti sorta berria aurkeztuko dute bultzatzaileek liburuxka eta guzti. Soinu-jolearekin batera doena bat lagunek entsegu bat baino gehiago egin dute azkenaldian.

Asteburuan Magia Mostra

Barikutik domekara bitartean, bestetik, magia izango da protagonista Elgetan. Nazioarteko zortzi magok hartuko dute parte eta 7 urtetik gorako umeendako tailerrak ere egongo dira, doan, zapatuan 16:00etan eta domekan 10:30ean, hain zuzen ere -ikus 31. orria.

LEINTZ GATZAGA

Etkez etxeko laguntza zerbitzua, Udalaren esku

Zerbitzuaren beharra duenak martitzenetan jo dezake Ongizate Sailera (09:00-13:00)

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak datozen bi urteetarako hitzarmena adostu dute menpekotasuna dutenen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Izan ere, gizarte zerbitzuei dagokien legean, etkez etxeko laguntza zerbitzuak udalen eskumena izan behar duela jasotzen da, eta, horren ondorioz, bat-batean ez bada ere, modu progresiboan udalek zerbitzuaren finantzazioa bere gain hartu beharko dute.

Jakina, Gatzagako Udalak ere egin beharko du hori, eta, bertako Ongizate Sailetik emandako informazioaren arabera, joan den asteko osoko bilkuran berretsi zuten bi erakundearen arteko hitzarmena.

Astelehenetik egubakoltzera

Edozelan ere, etkez etxeko laguntza zerbitzua erabiltzaileek ez dute aldaketarik igarriko zerbitzuan. Gatzagan bi lagunek jasotzen dute etxean laguntasuna. Zerbitzua astelehenetik egubakoltzera eskaintzen da eta egunero bizitzan oinarritzeko diren ekintzak gauzatzeko eragozpenak dituzten pertsonen edo familiei euren etxean ematen zaien laguntza da. Laguntza horren helburua da pertsonak ohiko inguruan bizi izaten jarraitzeko oinarritzeko premiak beteta izaten laguntzea.

Zerbitzu horren beharra duenak Ongizate Sailera jo behar du, aurretik txanda hartuta: 943 71 47 46. Martitzenetan egoten da gizarte laguntzailea, 09:00etatik 13:00etara.

Izendatuta daude hauteskunde-mahaiko ordezkariak

Zozketaz izendatuak dira: Maider Sangroniz (presidentea), Ana Maria Sousa (1. bokala) eta Rafael Carmona (2. bokala). Ordezkoak dira: Julen Barrutia eta Maite Agirregomezkorta (presidente kargurako), Xabier Ubera eta M. Lourdes Elgeta (1. bokala) eta Jose Gartzia eta Iraia Sarasketa (2. bokala).

OHARRAK

IPUINEN ORDUA

Umeendako saioa gaur, 17:20ean, liburutegian.

WIFI SAREA ELGETAN

Informazio bilera, eguaztean, 19:00etan, udaletxean.

HAURRESKOLA

Zabalik da matrikula epea maiatzaren 14ra arte.

EAJ-PNV

Elgetako EAJk martxan du botoa postaz emateko prozedura. Eskatu argibideak alderdiko ordezkarietara.

ONTZIRATU ZAITEZ

Apirileko zenbaki sarituak dira 262 (Ugari), 1.408 (Goikoetxe harategia), 1.558 (Erdiko denda) eta 3.275 (Amagoia arrandegia).

UDALEKUKO BEGIRALEAK

Lan poltsa osatzeko interesatuek udaletxean aurkeztu behar dute dokumentazioa ekainaren 5erako.

LEINTZ GATZAGA



Eugenio Otsoa. | GOIENA

Eugenio Otsoa, Goiena telebistako 'Harira' saioan, maiatzaren 13an

Datorren martitzenetan 22:00etan du hitzordua Eugenio Otsoa Goiena telebistako platoan, Eneko Azkarateren galderei erantzuteko. Herriari gori-gori dauden gaiak, proiektuak, inbertsioak eta beste erreparatuak ditu Otsoak. Herritarren galderei ere erantzungo die alkateak. Halakoak helarazteko bideak dira: *harira@goiena.com*; Whatsapp, Telegram edo erantzungailu automatikoa: 688 69 00 17.

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Etxebizitza hutsei %150eko igoera aplikatzen zaie kontribuzioan. Zergatik? Sumatu duzue eraginik?

"Etxebizitza hutsik duenak jakin behar du hori pribilegio bat dela. Hutsak egonda gehiago eraike behar ditugu? Egia da ez dela une onena, baina etxejabe horiek ahalegina egin beharko lukete etxebizitza horiek merkaturatzeko. Batzuk hutsik daude, beste batzuk egoera txarrean eta arriskutsu bihur daitezke, badaude behar den moduan alokatuta ez daudenak... Horregatik neurria".

Elgetan gero eta gutxiago eta gero eta eskasago egiten da euskaraz. Udalak badu plangintzarik?

"Zoritxarrez, errealitate bat da eta uste dut horretan ardua handia dugula euskaldunok. Udaletik zer? Argi dugu antolatzen ditugun eskolaz kanpoko edo aisialdi eskaintza guztiak euskaraz behar dutela. Udalaren funtzionamendua ere euskaraz da. Non detektatu dugu hutsunea? Euskaldunak ez diren artean eta diru lerro bat dugu euskaraz ikasi nahi dutenentzako. Baina egia da saiakerak egin arren ez dugula lortzen talde bat osatzea".

Errepide batek zeharkatzen du erdigunea, eta oinezkoen kezka hor dago. Nola hobeto daiteke egoera?

"Bagabiltza horretan, baina ez da samurra. Horrela erabakita, plaza inguruko semaforo sistemak oinezkoen ematen die lehentasuna. Ona litzateke, baina Aldundiaren lehentasunen artean ez dago Elgetan saihesbidea egitea, eta, egoera zein den ikusita, normala ere iruditzen zait. Hori esanda, gehitu behar du bai ikusten dudala beharrezkoa Aldundiak eta Udalak elkarlanean jardutea Elgetako oinezkoen segurtasuna hobetzeko".

PILOTA

Arrasate eta Bergara Herri Artekoan lehiatuko dira

Abian da Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketa, eta Bergarakoek gaur bertan, egubakoitza, jokatu dute lehenengo kanporaketa, final-hamaseirenetakoa. Hala, etxean jokatu dute, Errenteriakoan kontra (19:30ean, Udal Pilotalekuan). Arrasatekoek, ostera, hurrengo fasean hasiko dute lehia, Astigarragaren kontra.

TXIRRINDULARITZA

Joseba Larrinaga gogoan izango dute, lehen urteurrenean

Urtebete pasa da Joseba Larrinaga hil zenetik, bizikletan zebilela Aramaion auto batek harrapatuta. Eta zaturako, haren gertukoek omenaldi txiki bat prestatu dute. Bizikleta berria jarriko dute zendu zen tokian, haren omenez, eta ondoren, afaria egingo dute. Aretxabaletan, Larrinagaren kirol ibilbidearen gaineko erakusketa ere jarri dute.

FUTBOLA

Aretxabaletak, Aloñak eta Bergarak etxean jokatu dute

Hiru jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, baina UDAK eta Aloñak promozio fasea jokatzeko aukera ematen duen bigarren postuagatik lehian jarraitzen dute. Bergarak, ostera, mailari eusteko finala izango du Getariakoren kontra. Eta Hondarribiara joango da Antzuola. Mondrak, berriz, agur esango dio ligari etzi, Eibartarrakena kontra.

SASKIBALOA

EBAr igotzeko Lauko Finala Arrasaten jokatu du MUK

Joan den asteko porrotaren ostean, MUK ia aukera guztiak galdu ditu EBAr zuzenean igotzeko. Berez, bihar zuen partidu erabakigarria, lider dagoen Bide Bideren kontra, baina gata galdu du partidu horrek, tolosarrek dagoeneko bi garaipeneko alde dute-eta. Horrenbestez, MUK, bigarren sailkatuta, Lauko Finala Arrasatera ekarriko du.

MENDIKO BIZIKLETA

Musakolako jaien barruan, mendiko bizikleta irteera

Musakolako mendiko bizikleta martxak zazpi urte beteko ditu domekan (09:00etan, Ziar-Ola elkarte aurrean). Ibilbideak 35 kilometro izango ditu eta izena emateko 15 euro ordaindu beharko dira, hasi baino lehenago. Horrekin batera, hurrengo ere bizikleta jaia egingo dute (10:30). Informazio gehiago www.musakola.com atarian.



Aitor Zabaleta, irteera puntuan, lehenengo txanda hasteko gertu. | IMANOL SORIANO

AUTOMOBILISMOA

Gorlako kurbak auto azkarren testigu, bihar

Aitor Zabaletak eta Markel Cestafek Opakuako emaitza errepikatu nahi dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

Auto igoeren denboraldia Opakuan hasi zuten apirila erdian, eta bertan Debagoieneko bi pilotu izan ziren jaun eta jabe: Aitor Zabaleta (Lola BMW) bergararra eta Markel Cestafe arrasatearra (Mitsubishi Evo VI). Hala, egutegiko bigarren hitzorduan, Gorlako Igoeraren 23. edizioan ere

aurre-aurrean egon nahi dute (zapatua, 15:00, Bergara). Zabaleta etxean ibiliko da, eta, Opakuan erakutsitakoaren arabera, badi-rudi autoa mekanikoki puntuan jarri duela, azken bi urteotako arazoak atzean utzita. Turismotan, ostera, Cestafek lehen txandan egindako denbora onari esker irabazi zuen, bigarren txandan

arazo mekanikoak izan zituen -eta. Jakinekoea da bi horiek indartsu joango direla, baina kontrario gogorak izango dituzte aurrean. Batetik, CM kategorian lehia polita izango da, hiru silver Car -Iraola, Ordoki eta Nogueiras- eta beste bi Demond Car egongo dira-eta -Egozkuetarrak-. Eta turismotan bertan, aipatze-

ko moduko beste lagun asko: "Izen-ematearen zerrendari bizitza bota eta auto azkar asko ikusten dut", diosku antolatzaile lanetan dabilen Gorla Racing taldeko Xabier Zabaletak.

Ramirez ibiliko da BMW 320 ST autoaz eta Gerard de la Casa, Seat Cordoba WRCaz. Cestafek eta Tarsiciok Mitsu-ak izango dituzte esku artean, eta Erdoiza, Corcuera, Duperou, Alberdi eta Txus Jaio pilotuak ere irteera puntuan izango dira, baita bai-larako hainbat ordezkari ere.

Segurtasun neurriekin argi

Bada, dena behar den moduan joan dadin, antolatzaileek *errespetua* berba errepikatzen dute behin eta berrito: "Jende guztiak errespetu ditzala kurbetan jarritako zintak, eta baita lasterketa-komisarioek esandakoak ere. Eta amaitzeko, utzi mendia zegoen moduan, mesedez".

KROS-COUNTRYA

Blazquez: "Fisikoki zirkuitu exigentea da zapatukoa, txukun geratu da"

X.U. | ARRASATE

Bihar egingo dute, Bergaran, Euskal Herriko txapelketarako baliagarria den kros-country txapelketa: "Eta horrekin batera, Kantabriako txapelketarako ere puntuagarria izango da; horrenbestez, zona hartatik ere pilotu asko espero ditugu", azaldu du Asier Blazquezek. Kontrara, baina, asteburuan bertan egingo dute Talaveran motokroseko mundiala, eta pilotu asko

bertara ikusle moduan joango diren beldur ere bada: "Guztira 100 pilotu inguru espero ditugu, baina bai, hitzordu biek bat egiteak ez digu mesederik egiten".

15:00etan hasita

Lasterketa arratsaldeko lehenengo orduan hasiko dute, errekonozimenduko itzuliaz. Ondoren (15:30ean), parrilla bakoitza hogeita pilotu osatuko dute, eta 30 segundotan behin irtengo dira kategoria guztietako ordezkariak: eliteak, seniorrak, gazteak, E1, E2 eta beteteranoak: "Eta egun bateko lizentzia atera duten pilotuei ere egingo diegu lekua".

Ibilbidearen zati bat zirkuituan bertan izango da, eta ondoren basora sartuko dira: "Zazpi kilometro ditu, eta fisikoki nahiko zorrotza da, bai. Hamar minutu behar dira itzuli bat egiteko".



Pilotu bat, Bergaran. | GOIENA

MENDI BIZIKLETA

Aramaiok Euskadiko Opena hartuko du domekan, zazpigarren urtez

X.U. | ARRASATE

Mendiko bizikleta gainean Euskal Herriko ordezkari azkarrenak batuko dira domekan Aramaion, Barajuenen. Gainera, kategoria guztietako ordezkariak izango dira, gaztetxoetatik masterretara.

Zaletasuna sustatu guran

Aurtengo nobedadeetako bat da 2000. eta 2001. urte artean jaiotako gaztetxoendako lasterketa berezia antolatu dutela (federatuta egon edo ez). Hala, edozein gaztetxok parte hartu ahal izango du lasterketa horretan, eta mendiko bizikleta gainean lehiatzea gustatzen zaion

edo ez ikusi. Proba hori lasterketa ofizialak hasi baino ordu bete lehenago egingo dute, 10:00etan hasita. Hala, parte hartu nahi duenak bizikletaz gertu egon beharko du ordu horretan.

11:00etan, berriz, 23 urtez azpikoak, eliteak eta master 30ak irtengo dira, 5 kilometro pasatxoko eta 180 metroko desnibeletako zirkuituari bost itzuli emateko asmoz. Eta bost minutu geroago irtengo dira gazteak, emakumezkoak, master 40 eta 50ak (hiru itzuli zirkuituari, 16,6 km). Azkenik, kadeteek bi itzuli emango dizkiote zirkuituari (11 km).

ESANAK

"Errespetatu komisarioek esandakoak eta utzi mendia lehen zegoen moduan, mesedez"

XABI ZABALETA | GORLA RACING

ESANAK

"Hamar minutu behar dira zirkuituan itzuli bat egiteko"

ASIER BLAZQUEZ | ANTOLATZAILEA

TXIRRINDULARITZA

Emakumezko Txirrindularien Gipuzkoako lehen bira hasiko da hilaren 16an Bergaran

Kadete, gazte, 23 urtez azpiko eta elite mailako ziklistek hartuko dute parte

J.B./M.B. | BERGARARA

Orain arte askotariko txirrindulari lasterketak egin dira Euskal Herrian, baina itzuli moduan inoiz ere ez da egin emakumezkoena. Hilaren 16an Bergaran hasiko dena izango da lehena, eta bertako ziklistez gain, Espainiako eta Portugalgo lasterkariak ere hartuko dute parte. Horretarako, bat egin dute Euskadiko Txirrindulari Federazioak, Irrintzi eta Oria taldeek eta Lokatza Ziklismo Eskolak.

Datorren asteko egubakoitze-tik domekara egingo den itzulia hiru etapa izango ditu Bergaran, Tolosan eta Villabona-Zizurkilen. Bergarako 17:00etan hasiko da, San Martin plazan egingo duten taldeen aurkezpenarekin. 18:30ean kategoriaz kategoriaz joango dira lasterketak egiten; kadeteak, gazteak, 23 urtez azpikoak eta elite mailakoak lehiatuko dira.

Bergarako ibilbidea

Martitzenean egindako aurkezpenean, Lokatza taldeko Iker Sanchezek Bergarako ibilbidearen berezitasunak eman zituen: "Agorrosindik irten eta Ernai eta San Lorentzo artean dagoen biribilgunetik Mugertza aldera egingo dute; Zubietatik Fraizkozurira



Martitzenean egin zuten aurkezpena. | JULEN APERRIBAI

DATUA

1,6

KILOMETRO

Horixe da Bergarako ibilbideak izango duen luzera. Herriko kale nagusietatik pasako dira txirrindulariak.

hartu eta Migel Altunara iristen irala kalerantz abiatuko dira, eta Barrenkale zeharkatuz San Martin plazara helduko dira".

Laguntzaileak behar dira

Lokatza laguntza eskatu du, segurtasuna egon dadin. Hala, batzarra deitu du martitzenerako, hilak 14, 19:00etan, Agorrosin kirolgunean. Probaren gorabeherak argitu eta lanen banatzeak egingo dituzte horretan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Real Union
Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Vasconia
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Hondarribia-Antzuola
Zapatua. 16:30. Ondartza.
Bergara-Getariako
Zapatua. 17:30. Agorrosin.

ERREGIONAL PREFERENTE
Mondra-Eibartarrak
Domeka. 16:30. Mojategi.

OHOREZKO GAZTEAK
Aloña Mendi-Zarautz
Zapatua. 15:30. Azkoagain.
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 15:30. Ipintza.
Kostkas-Mondra
Zapatua. 15:30. Matigoxotegi.

GAZTEAK, IGOERA
Bergara-Beti Ona
Domeka. 16:30. Agorrosin.

OHOREZKO KADETEAK
Arrasate-Reala
Zapatua. 12:00. Mojategi.
Elgoibar-Aretxabaleta
Zapatua. 11:30. Mintxeta.

KADETEAK, IGOERA
Kostkas-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

OHOREZKO INFANTILAK
Arrasate-Real Union
Domeka. 11:30. Mojategi.

INFANTIL TXIKIA, TXAPELKETAKO FASEA
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 09:45. Azpeitia.

INFANTIL TXIKIA, KOPA
Ordizia-Bergara
Zapatua. 12:00. Altamira.

EMAKUMEZKO SENIORRAK
Arizmendi-Mutriku
Zapatua. 15:30. Ibarra.

EMAKUM. KADETEAK
Arizmendi-Luberri STL
Zapatua. 10:00. Almen.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Saltxaleak-Eskoriatza
Zapatua. 16:45. Ermu.

HIRUGARREN MAILA
Mondrate-Aizarnazabal
Zapatua. 20:15. Iturripe.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKETARA IGOERA FASEA
Izarraitz Tab. Aloña-Gaztelueta
Domeka. 12:15. Zubikoa.

GIPUZKOAKO KOPA
Bera Bera-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Donostia.

TERRITORIAL MAILAKO K.
Bergara-Corazonistas B
Zapatua. 17:30. Labegarieta.

GAZTEAK, KOPA
Mondragon Lingua-Ormaiztegi
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Bergara-Arrasate
Zapatua. 16:00. Labegarieta.

SASKIBALOA

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-Bide Bide Donosti
Zapatua. 18:00. Iturripe.

MAILA AUTONOMIKOA
La Salle-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Bilbo.

PILOTA

HERRI ARTEKO TXAPELKETA
Bergara-Errenteria
Egubakoitza. 19:30ean, Bergara.

UDABERRI TXAP. (EGUBAK.)
Bergara-Zestoa (eskuz ban.).
Egubakoitza. 19:30ean, Antzuola
Aloña Mendi-Soral. (infantil).
Aloña Mendi-Aurrera (Infantil)
Aloña Mendi-Arrasate (kadet.)
Egubakoitza. 19:30ean, Ofiatin.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ilunpe-Usturbil (infantil)
LAPKE-Arrasate (infantil)
Zazpi Iturri-Ilunpe (infan.)
Oiarpe-Bergara (Infantil).
Zapatua. 16:00 Angiozarren.

UDABERRI TXAP. (ZAPATUA)
Angiozarren, 18:00etan hasita
Bergara2-Ziotza1
Bergara 1-Murumendi
Bergara-Goierrri
Bergara-Aurrera Saiatz
Aretxabaletan, 18:30ean
Aretxabaleta-Intxurre

AUTOMOBILISMOA

GORLAKO 23. IGOERA
Zapatua. 15:00etan, Bergara.

CROSS-COUNTRY

EUSKADIKO TXAPELKETA
Zapatua. 15:00etan, Bergara.

MIENI BIZIKLETA

EUSKADIKO OPENA
Domeka. 11:00etan, Aramaion.

MUSAKOLAKO MARTXA
Domeka. 09:00etan hasita,
Zior-Ola elkarte parean.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN

ikasLAN
Gipuzkoa

"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN

Ate irekiak:
Maiatzak 21
18:00etan

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22Pk.
20550 ARETXABALETAN
☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com



BERGARAN

Ate irekiak:
Maiatzak 22
18:00etan

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

Ibargarai, 1
20570 BERGARAN
☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com



OÑATIN

Ate irekiak:
Maiatzak 28, 18:00etan
(Larraña egoitzan)

IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g
20560 OÑATI
☎ 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net



AURREMATRIKULA: Maiatzaren 27tik Ekainaren 6ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 9tik 16ra.



Bergara Bizi I. Moda Erakustaldia

Maiatzaren 10ean, 18:00etan, San Martin plazan

PARTE HARTZAILEAK:




A.J. Poltsak
Ibargarai hiribidea 34
943 76 13 23



AINHOA
Erlou denda
Boni Laskurain pasealekua 2
943 76 47 40

alga

ALGA
lurrindegia
Ibargarai hiribidea 10
943 76 00 85



AMPARO
Ile apaindegia
Boni Laskurain pasealekua
943 76 56 05

amua.

AMUA
Jantzi denda
Ibargarai 2
943 54 00 68

Anezka

ANEZKA
Jantzi denda
Espoloia 8
943 76 59 25



ANNKA
Jantzi denda
Herrilagunak 6
943 76 25 31 08



BEGO & MARIJE
ile apaindegia
Telesforo Aranzadi z/g
943 25 37 29

disdira

DISDIRA
Ile apaindegia
Masterreka 7
943 76 00 55



G21 Gizonezkoentzat
oinetako denda
Irala 3 behea
943 76 52 98



GALARRETA
Oinetako denda
Irizar pasealekua 2
943 76 12 39

Igaro

IGARO
Lurrindegia
Barrenkalea 35
943 76 17 27



JAIZKI
Ile apaindegia
Bidekurutzeta kalea 42
943 76 38 95



JAUJA
Kirol denda
Irizar pasealekua 1 behea
943 76 14 95



JEAN LOUIS DAVID
ile apaindegia
Ibargarai hiribidea 43
943 76 22 48



JOKA
Jantzi denda
Domingo Irala kalea 5 behea
943 53 46 16



JOLAS
Jantzi denda
Barrenkalea 27
943 76 46 48



JUNBIJU
Jantzi denda
Barrenkalea 14 behea
943 76 97 56



KB PHOTOESTUDIO
Argazki denda
Barrenkalea 35
943 76 24 12



KILIKA
Jantzi denda
Barrenkalea 18
943 76 34 08



KEIXA
Ile apaindegia
San Lorentzo 21
943 53 24 52



LONBIDE
Oinetako denda
Bidekurutzeta kalea 5
943 76 10 57



MAKA
Oinetako denda
Ibargarai hiribidea 8
943 08 28 68



MANSO
Optika
Irizar pasealekua 2
943 76 27 86



MILUK
Ile apaindegia
Osintxu auzoa 13
943 76 51 82



MUJIKA SASTRERIA
Jantzi denda
Barrenkalea 1
943 76 29 91



NINIKALORADENDA
Ramon Maria Lili kalea 8
943 76 10 01



OSTADAR
Ile apaindegia
Ibargarai hiribidea 42
943 76 72 76



SUBIJAI
Umeendako jantzi denda
Irizar pasealekua 1
943 76 42 41



SUGOI
Bazarra
Irizar pasealekua 2
943 76 59 54



XUXU
Jantzi denda
San Pedro 14 behea
943 76 07 55



ZUBIKUA
Jantzi denda
Barrenkalea 24
943 76 10 16

ANTOLATZAILEAK:



- BEDELKAR
- HERRIKO KOMERTZIOAK
- BERGARAKO UDALA

LAGUNTZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Gipuzkoa
ekintzailea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzako, Landa Garapenerako eta Turismoko Departamentuak
Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo

KULTURA

Elgetan, hamar urte punta-puntako magia gozatzeko

Munduko zortzi mago onenetakoen saioak Espaloian, inoiz baino merkeago

AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA
Gaur hasi eta domeka bitartean, Estatuko zein atzerriko magoen topaleku bilakatuko da, beste behin, Espaloia antzokia, baina baita Elgetako taberna zein kaleak ere. Izan ere, ofizioaz gainera, afizioa dute bete-betean magia, eta edozein toki eta une aprobetxatzen dute magoek elkarrekin trikimailuak egiten gozatu eta, bide batez, elkarrengandik gauza berriak ikasteko.

Egitura bera, artista berriak
Gasteizko Ilusionismo elkarteak izan dute elgetarrek hasieratik mostra antolatzen bidelagun: "Eurak ere magoak dira eta ondo ezagutzen dituzte zeintzuk diren onenak edo interesgarrienak.

Hasiera baten, izen handia zutenak ekartzen genituen; Anthony Blake, esaterako. Baina konturatu ginen izen ezezagunen artean mago oso onak eta saio ezberdinak eta berritzaileak egiten dituztenak daudela, eta baita etengabe ikertzen eta gauza berriak

ikasten dabilen beste hainbat artista ere. Fruitu onak eman dizkigu, bada, elkarlanak", diote Espaloitik.

Orain artekoen egitura bera izango du aurtengoak: Espaloian, artista bakarreko saioa gaur eta zazpi magoren eskutik gala bihar;

eta domekan, berriz, magia kalean, garai bateko komedianteen itxura duen *La Petite caravane* doako ikuskizunaz. Horrez gainera, bihar eta etzi, 7 urtetik gorako hurrendako magia tailerrak egingo dituzte herriko plazan Gasteizko bi magok.

Urteurrenagatik, merkeago
X. urteurrena dela-eta, ahalegin berezia egin dute sarrerak merkatzen; bi eguneko bonua 20 eurotan eskura daiteke. Egunekoak, berriz, gaurkoa 15 eurotan eta biharkoa, 18 eurotan. Leihaitan eta *Espaloia.com* atarian.

EGITARAUA

ESPALOIA ANTZOKIAN

MAIATZAK 9, EGUBAKOITZA

22:30 Woody Aragon.

MAIATZAK 10, ZAPATUA

22:30 X. Magia Gala.

Daniel Ka (Kantabria).

Pablo Canovas (Kordoba).

Rubén Vilagrand (Bartzel.).

Vittorio Marino (Italia).

Jordan Gomez (Frantzia).

Bertox (Frantzia).

HERRIKO PLAZAN

MAIATZAK 10, ZAPATUA

16:00 Hurrendako magia tailerrak, doan.

MAIATZAK 11, DOMEKA

10:30 Hurrendako magia tailerrak, doan.

13:00 Adrian Condek *La Petite caravane* ikuskizuna, doan.

Elgetan asteburuan izango diren magoak



WOODY ARAGON (MADRIL)
UMOREZKO KARTOMAGIA

Elgetako moztan aurrez egondakoa da. Kartak eta umorea osagai nagusi dituela, ordubeteko saio dibertigarria egingo du gaur. Biharko Galan, berriz, aurkezle lanak egingo ditu Aragonek.




JORDAN GOMEZ (FRANTZIA)
CD MANIPULAZIOAZ MAGIA

Atzerrian saio asko egin baditu ere, estreinakoz izango da gurean. CDak manipulatu saio bisualak eta azkarrak egiten ditu. Sari asko eskuratu izan ditu; besteak beste, Frantziako mago gaztearena.



VITTORIO MARINO (ITALIA)
MAGIA KOMIKOA

Eskarmentu eta sona handikoa. Magia komikoa egiten du saio dibertigarri eta originaletan. Blackpool magiaren munduko kongresuan saria eskuratu du. Lehenengoz izango da mago italiarra gurean.



PABLO CANOVAS (KORDOBA)
KARTEN MANIPULAZIOA

13 urte besterik ez duen arren, Estatuko karta manipulaziale onenen artean dago; sari mordo eskuratu du dagoeneko. Kartak ederto maneiatuz, saio berritzaile eta koloretsuak egiten ditu.



Juan Tamariz. | ESPALOIA

Juan Tamariz, ekainean

Ezagutzen du etxea, aurrez izandakoa da-eta moztan. Egin diote berriz etortzeko gonbita, baina zaila da Tamarizen agenda betearekin txertatzea; hala ere, Elgetara etortzeko nahia azaldu du, eta ekainaren 6an eta 7an egingo du saio bana. Gaur jarriko dituzte sarrerak salgai.

Ikur duen *Tantachan* doinuak seguru trikimailu berrien artean abestuko dituela, etengabe ikertzen ari den magoa da-eta.



BERTOX (FRANTZIA)
MAGOA ETA MALABARISTA

PK2 ikuskizuna erakutsi zuen, bikote formatuan, moztako aurreko edizio batean. Bide beretik doa bakarkako saioa ere; hau da, malabarismoaren eta magiaren arteko nahasketa ikusgarria, bada.



RUBEN VILAGRAN (JAEN)
MAGIA ETA MIMOA

Magia eta mimoa elkarrekin uztartuz, umorezko saio dibertigarriak eta berritzaileak egiten ditu. Sari asko jaso izan ditu; besteak beste, iazko Magiako Kongresu Nazionalako hirugarrena eskuratu zuen.



DANIEL KA. (KANTABRIA)
ESZENA-MAGIA

Gaztea den arren, eskarmentu eta ospe handia dauka eta dagoeneko bere tokia egin du punta-puntako magoen artean. Askotariko osagaiak erabiliz eszena-magia egiten du. Sari ugari ditu hark ere.



ADRIAN CONDE (ARGENTINA)
MAGIA ETA ANTZERKIA

XX. mende hasierako antzokiak gogora ekarri, karabana baten barruan 25 ikusleko taldearen aurrean, magia beste hainbat diziplinarekin batuz sortutako hamabi minutuko saioak egiten ditu (antzerkia...).



Azazeta (Sua), Ezpeleta (Mankomunitatea), Morras eta Askazibar (Arrasateko Udala) martitzeneko aurkezpenean. | J.B.

Mundumira, motorrak berotzen hasita dagoeneko

Aurtengo jaialdiak 50.000 euroko behin-behineko aurrekontua du

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Iazko geldialdiaren ostean, maiatzaren 30ean eta 31n eta ekainaren 1ean izango da Mundumira jaialdia, Arrasaten. Debagoieneko Mankomunitatea, Sua argitaletxea eta Ginmusica ekoiztetxea dira jaialdiko antolatzaile nagusiak, besteak beste, eskualdeko enpre-

sa pribatuen, elkartearen, GKEen eta Foru Aldundiaren laguntza badute ere.

Artisautzak, gastronomiak, musikak eta naturaz gozatzeko askotariko proposamenak batuko dituzte, beste behin, Arrasaten, 2005. urteko lehenengo edizioan egin zuten moduan.

Bederatzigarren edizioko behin betiko aurrekontu zehatza oraindik zehazterik ez dago, besteak beste, garraio publikoaren zerbitzua kontratzearen gastuak aztertzen ari dira-eta, baina, bestelako gastuak kontuan hartuta, jaialdiak 50.000 euroko behin-behineko aurrekontua du. Mankomunita-

teko iturrien esanetan, aurreko edizioak izan zuena baino txikiagoa da aurrekontua.

Egitura, lau ardatzetan

Kalea izango du jaialdiak protagonista, bost kontinentetako musika eskaintza egongo da, eskualdeko ondare kulturalak eta naturalak ezagutaraztea eta gizarte ekimenen garrantzia azpimarratzea dira jaialdiaren ardatz nagusiak, Arrasateko Udaleko bozeramaile Maider Morrasedek martitzenean azaldu zuenez.

Munduko kulturen topaleku izateaz gainera, baina, Igor Ezpeletak, Mankomunitateko Garapen Agentziako presidentek, nabarmendu zuen turismo aldetik ekimen garrantzitsua dela Mundumira, Debagoiena ezagutzera emateko erakusleho oso baliagarria. Horregatik, bada, ahalegin berezia egin dute bertako ekoizle, enpresa eta artisauak jaialdian integratzeko.

Bestalde, garraio publiko zerbitzu berezia izango da aurten ere, herrian zein bailaran.

Hiru gunetan banatuta

Arrasateko erdigunea izango du Mundumirak kokaleku nagusi, eta, kale eta plaza asko zipriztinduko dituen arren, jaialdiaren gune nagusiak Herriko Plaza, Biteri plaza eta Seber Altube plaza izango dira.

Aipatutako gunez gainera, Eroski ondoan, Arruena parkean, autokarabanendako aparkalekua kokatuko dute.

Ahalegina egin dute bertako artisau, ekoizle eta enpresak jaialdian egoteko

Kiko Veneno bueltan dator

Askotariko ekitaldiak batu dituzte. Kontzertuei dagokienez, Kiko Venenok eskainiko duen zuzeneko nabarmendu zuten martitzenean. Bigarren izango da andaluziarra Mundumiran, 2007ko edizioan Aretxabaletan izan zen-eta. Zapatuan izango da, Biteri plazan, 23:30ean. Aurretik Iñaki Plazak joko du, 22:00etan.

Kanpotik etorritako musikariez gainera, euskal musikariek ere leku zabala izango dute. Horien artean, nabarmentzekoak dira Damba eta Betagarri –egubakoitza, Biteri plazan, 21:00etan hasita– eta *Heritmo* ikuskizuna, Kukai, Oreka TX eta Kalakan taldeek eskainiko dutena –domekan, Amaia antzokian, 20:00etan–. Azken ikuskizun horretarako sarrerak salgai daude dagoeneko www.arrasate-mondragon.net webgunean. Debagoieneko musikarien emanaldiak ere izango dira; hala nola Mery May eta The Potes arrasatearrak.

Egitarau osoa:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Manu Gomez | Zinegilea; 'Das Kind' zuzendu du

"Film laburren merkatu handiena da Cannes, eta hantxe izango gara"

- Gomezek zuzendu duen 'Das Kind' filma Cannesen erakutsiko dute
- Short Film Corner sailean parte hartuko du, lehiaketatik kanpo

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Pozik dago Manu Gomez zinegile arrasatearra *Das Kind* film laburra izaten dabilen arrakastarekin. Maiatzaren 14tik 25era, Cannesko Zinemaldian izango da bere filma.

Cannesen izango da *Das Kind*, ezta?

Bai. Short Film Corner (film laburren txokoa) izeneko sailean izango da. Munduko film laburren merkatu onena da, eta 800 halako film izaten dira bertan. Nire filmaren gaineko stand bat egongo da eta mundu osoko ekoizleek ikusteko aukera izango dute. Hantxe aurkitzen dute ekoizleek interesatzen zaizkien film asko.

Zeu ere han izango zara?

Nire ekoizleak bai, aste osoan izango dira, eta neu film luze baten lanean hasiko naiz astelehenean Madrilen, beraz, ahal badut bai, egongo naiz Cannesen.

Arrakasta polita izaten dabil *Das Kind*...

Hala da, arrakasta handia. Atzo [astelehena] jakin genuen bes-

te hiru zinemalditarako aukeratu dutela; dagoeneko 26 zinemaldi edo lehiaketarako aukeratu dute. Sei sari irabazi ditu, horietako batzuk nazioartekoak. Eta oraindik ibilbidea gelditzen zaio; izan ere, film laburrek pare bat urte irauten dute zirkuituan eta nireak ekainean urte bete egingo du. Oso emaitza garrantzitsuak lortu ditugu orain arte.

Labur honen filmaketa ezohikoa izan da: alemanez filmatu duzu, nazioarteko aktoreekin... Konta egiguzu!

Bai; Madrilen filmatu nuen, baina aktore protagonista New Yorkekoa da, beste aktore bat Suitzan bizi den galziarra da, eta hirugarren bat, Bartzelonakoa. Eta dena alemanez izan zen; nik neuk ez dut alemanez hitzik ere egiten, baina aktore guztiek menderatzen dute hizkuntza hori eta hala egin genuen; izan ere, XIX. mendeko Austrian dago giroa. Baina, alemanez filmatu arren, gero bikoiztu egin behar



Manu Gomez. | GOIENA

"26 zinemalditan aukeratu dute 'Das Kind', eta sei sari irabazi ditu"

izan nuen, aktore bakoitzak bere modura egiten zuelako eta epaimahaietan egon daitekeelako epaile alemanen bat, entzuterakoan bitxia edo arraroa egingo litzaiokeena. München eta Hamburgon bikoiztu genuen. Neuk gidoia nekien buruz.

Ze laguntza izan zenuen *Das Kind* egiteko?

Madrilen zine-irakasle naiz eta eginda neukan gidoia lantzeko inizatiba sortu zen; izan ere, oso inpresio ona egin zuen gidoiak. Lankide izan ditut departamentuko buruak: Angel Amoros argazki-zuzendaria izan da, eta Pablo Martin, arte-zuzendaria. Norberak ikasle batzuen laguntza izan du, baina oso filmaketa profesionala izan da.

Bergaran egin zen emanaldi bat. Arrasaten, noizko?

Eskaeraren bat jasoko banu oso pozik erakutsiko nuke Arrasaten ere, baina ez dago nire esku. Bergaran eman nuenean oso harrera ona izan zuen eta jendeak galdetzen dit ea Arrasaten noiz emango dudana, eta ni oso pozik egongo nintzateke aukera hori izango balitz.

Beste film bat egiten hasi zarela esan duzu. Zertan da?

Bai; *To kill time* izeneko film luzea da eta zuzendariaren laguntzaile izango naiz bertan; Antonio Hernandezek zuzentzen du. *Das Kind*-eko protagonista Ben Templek egingo du bertan lan, eta nire lehengusu Jon Gonzalez eta Aitor Lunak ere bai.

Hitzaldia, musika eta lau sari, Euspot-en ekitaldian

L.K. | ARETXABALETA

Datorren egunean izango da Euspot euskal spot lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Arteman eta Aretxabaletako Udalaren eskutik, Arkupen, 19:00etan. Parte hartu duten iragarkiak ikusi ondoren, sariak banatuko dira; Ainhoa Vitoria irrati esatariak aurkeztuko du ekitaldia.

Hitzaldi nagusia Arturo Olea madrildarrak egingo du. Musika eskubideen inguruan aditua da eta, batez ere, publicitate eta musika erabilera aztertuko ditu. "Oso interesgarria izango da eta gaur egungo errealitatea irudikatuko digu", esaten du Artemanek. Segidan, Saiatu Berriz taldeak musika joko du. Lehiaketako lau sariak banatuko dira ekitaldian.

Parte-hartzeari dagokionez, oraindik, eta mugaeguna gaur, egubakoitza den arren, lan asko jasotzea espero du Artemanek; denetara, iaz baino gehiago. Gainera, aurten, iaz ez bezala, 16 urte azpikoek egindako lanak ere izango dira lehiaketan.

Asier Gozategiren saioa eta afaria daude gaur Trikitixa Egunaren harira

Gozategik ikastaroa emango du, eta interesa duena entzule gisa joan daiteke

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasatek dauka aurten Debagoieneko Trikitixa Eguna antolatzekeo ardura, eta egun hauetarako zenbait ekintza badaude trikitizaleen gozamenerako.

Hala, gaur, egubakoitza, Asier Gozategi trikitilariaren ikastaroa izango da Arrasateko Trikitixa Eskolan, 17:00etan hasita. Maixa Lizarribar irakasleak azaltzen digunez, Eskolako 12 bat ikasle joango dira ikastarora, baina Gozategik bere pieza batzuk joko ditu hasieran, eta, horregatik, entzule gisa jendeari irekitako saioa da: "Lehenengo solasalditxo egingo du Asier Gozategik, eta gero, kantu batzuk joko ditu; eskatu diogu bere kantuak erakusteko. Berarekin egongo gara 20:00ak arte", esan digu.

Publiko guztiarendako gauza gehiago egongo da gaur bertan:

ikastaroa bukatutakoan, kalejira egingo dute, tabernaz taberna joanez, eta hor ere jendeak parte hartu ahal izango du. Bukatzeko, 21:00ak aldera, Musakolako elkartean afaria izango dute: "Entsailada, saiheskia eta pastela izango ditugu", esan digu Maixa Lizarribarrek. Eurekin afaldu gura duenak izena eman behar du gaur bertan, arrasatetrikixxaeskola@gmail.com helbidera mezua bidalita edo Trikitixa Eskolara joanda. Afarirako txartela 12 eurotan saltzen dute.

Lau auzotan banatuko dira

Debagoieneko 10. Trikitixa Eguna izango da aurten ospatuko dena, eta maiatzaren 24an, zapatua, izango da. Egun horretan egingo duten bazkarian parte hartzeko txartelak ere "lehenbailahehen" erosteko dei egiten dute antolatzaileek, Arrasateko Trikitixa Eskolan. Umeen bazkari-txartela 12 eurokoa da, eta helduena, 16 eurokoa.

Datorren astean prentsaurrekoak egitekoak dira antolatzaileak, eta hor emango dituzte jaiegun

horren gaineko zehaztasun gehiago. Maixa Lizarribarrek ekintza hauek aurreratu dizkigu: "Urtero bezala, Debagoieneko trikiti eskola guztiak gara batzekoak. Azken urteotan nahiko jende bildu izan gara; iaz, 500 lagun batu ginen bazkarian, eta jotzen, 300 baino gehiago ibili ginen. Aurten, Arrasateko lau auzotan banatuko gara; gero, herri erdira etorriko gara denok; eguerdian, jaialdia egingo dugu; segidan, bazkaria, eta erromeria gero".

Azken urteotan, antolatzaile izan diren eskolek testigu bat pasa izan diote batak besteari, eta aurten ere ohitura hori bete dute, datorren urteko jaialdia prestatzea tokatuko zaion eskolari pasatuz.

Modu batera edo bestera, azken urteotan moduan, herritarren parte-hartzea eta babesa espero dute aurten ere Arrasaten.

'Dantzan' egingo dute Txirri, Mirri eta Txiribitonek

L.K. | BERGARA

Aspaldiko partez, Debagoienean izango dira berriz Txirri, Mirri eta Txiribiton, euskal pailazo beteranoenak. Etzi, domeka, *Dantzan* ikuskizuna egingo dute Bergarako pilotalekuan, 18:00etan, Pikupe Produzioen eskutik. Sarrerak salgai daude, 7 eurotan, kultura etxean, Benjamin oinetako-dendan eta Pikupen. Egunean bertan, 9 eurotan salduko dituzte.

Pailazoen euren azaltzen digute zer ekarriko duten Bergarara: "Erromeria bat da *Dantzan* ikuskizuna. Txiribitonek akordeoia joko du eta Mirri, txistua. Umeei dantzak erakutsiko dizkiegu ohiko umore giroan, eta esketxak ere egingo ditugu". Ikuskizunera joaten diren ume eta gurasoek "barre batzuk" egingo dituztela agintzen dute pailazoen.

Hori bai, lotsa alde batera utzi beharko dute; izan ere, "oso ikuskizun parte-hartzailea da", esaten dute pailazoen.

Musika ezaguna

Beraz, musikologia izango da nagusi *Dantzan* emanaldian: Barre Egin, Sudur Gorria, Allakuidaus, Zarata Orkestra, Aiton-Amonak Txapeldun, Pintto Pintto eta Altza Pelipe mitikoak, besteak beste.

Arin-arina, kalejira, aulki dantza, zazpi-jausi, balsa... Denetik dantzatzen dute Txirri, Mirri eta Txiribitonek, eta ez pentsa inor libratuko denik, ipurdi guztientzako deialdia baita *Dantzan* ikuskizuna. Euskal musika, betiko Txirri Mirri eta Txiribitonen abestiak eta betiko hirukote bihurria izango dira Bergaran domekan.



Asier Gozategi trikitilaria, Ofiatin egin zuen emanaldi baten. | ASIER ALKORTA

ESANAK

"Bere kantu batzuk erakusteko eskatu diogu Asier Gozategiri"

"Trikitixa Egunean, kalejira, jaialdia, bazkaria eta erromeria egingo ditugu"

MAIXA LIZARRIBAR | ANTOLATZAILEA

Adopzioaren eta laguntasunaren gaineko antzezlana Aretxabaletan

'Sialuk hartz txikiaren bidaia' ikuskizuna ume eta gurasoendako modukoa da

L.K. | ARETXABALETA

Argentinan elkar ezagutu baina Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten en la Lona taldeko bi lagunek ume eta gurasoendako moduko ikuskizuna egingo dute etzi, domeka, Aretxabaletako Arkupe kultur etxekeo Zaratia aretoan, 17:00etan. *Sialuk hartz txikiaren bidaia* da ikuskizunaren izena, eta hezur-haragizko antzezlak eta txotxongiloak dira bertako protagonistak.

Sialuk hartz marroia da, Ipar Poloan bizi da ama Nannuralu-

rekin batera; Nannuraluk ipar-hartza da, burutik hanketaraino txuri-txuria. Sialuk zoriontsua da, baina bere historia ezagutu nahi du. Horretarako, jaino zen basora bueltan eroango duen bidaia hasiko du. Bertan, bere beldur eta fantasiei egin beharko die aurre. Iragan eta jatorriaz konturatuko da eta hartz arrearren, ama biologikoaren historia ezagutuko du. Azkenean, Ipar Polora itzuliko da Sialuk, amarengana, bihotza oroitzapen gozoz beteta duela.

Sialuk hartz txikiaren bidaia -k adopzioaz, laguntasunaz eta emozioez hitz egiten du.

Aktore eta irakasle

En la Lona Buenos Airesen sortu zuten 1997an Paula Alfierik eta Andres Fesnok. 2000az ezkerre Euskal Herrian bizi dira eta Euskal Herrian eta Espainian zirku teknikak, antzerkia, txotxongiloak, pailazoak eta maskarak bateratzen dituzten antzezlana egiten dituzte eta zirkuko teknikak erakusten dituzte.



Sialuk hartz txikiaren bidaia ikuskizuneko irudi bat. | EN LA LONA



Olatz Etxeberria | Itzulpengintza eta Interpretazioko ikaslea

Argazki nagusian, Olatz Etxeberria keinu hizkuntzan *Kaixo* esaten.

Argazki txikietan (goitik behera) Olatz naiz eta Bergarako naiz esaten.

JON MOÑUX

"Hizkuntza bat ikasten dudanean, mundua ikusteko beste modu bat eskuratzen dut"

JON MOÑUX | BERGARA

Olatz Etxeberria bergarra da eta 23 urte ditu. Itzulpengintza eta Interpretazioko azken urtea egiten dihardu Gasteizen. Euskara, gaztelera, ingelesa, italiara eta alemana ezagutzeaz gain, seigarren hizkuntza bat ikasten hasi zen orain urte batzuk. Astelehenetik eguenera Donostiara joaten da keinu hizkuntza ikastera. Azkenengo kurtsosan dago eta datorren urtean Madrilera joan nahiko luke, keinu hizkuntzako interprete izateko modula ateratzera.

Zergatik erabaki zenuen keinu hizkuntza ikasten hastea?

Osabak errieta egin zidalako. Nire osaba gorra da, eta esan zidan: "Hamar mila hizkuntza ikasten zabilta, baina oraindik

ezin duzu nirekin hitz egin!". Errieta horrek presioa eta gogo piztu zidan keinu hizkuntza ikusteko. Ohartu nintzen ez direla gorak gizartean integratu behar direnak hitz egiten ikasiz, hori oso zaila edo ezinezkoa baita beraientzat. Guk ikasi behar dugu beraien hizkuntza, guk lagundu behar diegu integratzen.

Desberdina da keinu hizkuntza Bergaran, Parisen edo Moskun.

Herrialde bakoitzak bere keinu hizkuntza dauka. Espainiako kasuan, adibidez, bi hizkuntza daude, Espainiako eta Kataluniako. Eta Espainiako hizkuntzaren barruan, Euskal Herrian eta Extremaduran berdin hitz egiten dugun arren, badaude hitz batzuk aldatu egiten direnak, baina oso gutxi.

Zer aldaketa ekarri dizu keinu hizkuntza ikasteak?

Nire osabarekin bere hizkuntzan hitz egin dezaket pixka bat. Lehen, ezpainak irakurtzen komunikatzen ginen. Berak azkenean hitz egiten du; izan ere, lehengo hizkuntzak hitz egiten erakusten zieten gorrei, eta ez keinu hizkuntza. Keinu hizkuntza ikasteak, gainera, beste errealitate batera hurbiltzea dakar. Azken finean, gorak badaude, baina ez da besteak bezain agerikoa den urritasuna. Askotan, ez gara kontzientziaz dituzten oztipoak.

Nola sentitzen zara ahotsa erabili beharrean keinuak eta eskuak erabiltzen dituzunean?

Askotan, oso arraroa egiten zait. Gogorrena, agian, aurpegiko espresioak erabiltzea da, ez bai-

nago ohituta horretara. Eta keinu hizkuntzaren ehuneko handi bat espresioak dira, aurpegiarekin diozuna. Klaseetan, adibidez, teoriarik ezin dugu ahotsarekin hitz egin, baina, azkenean, errazenera jotzen dugu ulertarazteko. Lotsak ere eragin handia dauka hizkuntzaz aldatzeko orduan. Baina polita da.

Jende asko animatzen al da keinu hizkuntza ikastera?

Geroz eta jende gehiago animatzen ari da. Euskal Gorak asoziazioak Gasteizen, Bilbon eta Donostian eskaintzen ditu klaseak, eta Donostian, esaterako, bost edo sei talde egongo dira, eta talde bakoitzean hamar edo hamabi pertsona inguru daude. Hori bai, gehienak emakumeak eta hezkuntza bereziko ikasleak dira.

Keinu hizkuntzarekin lan egin nahi duzu interprete moduan?

Bai. Keinu hizkuntza ikasten hasi nintzenean ez nuen asmo hori,

inolaz ere. Baina denbora pasatu ahala, geroz eta gehiago gustatzen zait. Keinu hizkuntzarekin lan egiten duten itzultzaile edo interpreteek zuzenagoko tratua izan ohi dute jendearrekin. Itzulpengintza nolabait instituzionala ere egiten duten arren, arlo soziala interesgarriagoa iruditzen zait. **Zerk erakartzen zaitu hizkuntzetatik?**

Azken finean, hizkuntza bakoitzak atzean daukan dena gustatzen zait. Hizkuntza horren kulturaren sartzen naiz, eta, hizkuntza bat ikasten dudanean, mundua ikusteko beste modu bat eskuratzen dut. Horregatik gustatzen zaizkit hizkuntza guztiak.

Eta zein da gustukoena?

Ezagutzen ditudanetatik, behintzat, alemana da gehien gustatzen zaidana, eta berriz hasi nahiko nuke ikasten. Inguruko guztiek diote zatarra eta zakarra dela, baina niri asko gustatzen zait.

PERTSONALA

Zure herriko txoko bat: goiko estazioa.

Bizitzeko toki bat: Gasteiz.

Irakurritako azken liburua:

At home, Bill Brysonena.

Esperientzia gogoangarri bat: Erroman urtebete bizi izana.

Amets bat: ametsak sortzen jarraitzea.


Albiste polit bat:

ez da inoiz gehiago hizkuntzarik hilko.

Asteburuko plan perfektua: konpainia ona, leku berri bat eta lasaitasun pixka bat.

Ikasteko daukazu hizkuntza: arabiera.

ASTEAGOIENAN



Leintz Gatzagako alkatea, 'Harira'-n

Eugenio Otsa Leintz Gatzagako alkatea izango da martitzenean Goiena telebistan. Hura izango da *Harira* saiotik pasako den Debagoieneko azken alkatea, eta herriko kontuei buruzko azalpenak emango dizkigu Eneko Azkaratek aurkeztutako saioan. **'Harira'** Martitzena, 22:00



Emakumeek festetan duten rola, tertulian

Emakumeek egungo festetan duten rola eta jai eredu izango dute berba gaur, egubakoitza, Larraitz Zeberio aurkeztutako *Tertulia* saioan. *Festa dezagun gaurdanik geroa* ikus-entzunezkoa ikusi eta horri buruzko gogoe-ta egingo dute solaskideek. **'Tertulia'** Egubakoitza, 19:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 9	ZAPATUA, 10	DOMEKA, 11	ASTELEHENA, 12	MARTITZENA, 13	EGUAZTENA, 14	EGUENA, 15
12:00 Ikusmira	10:00 Kantari	10:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Harmailatik	12:00 Tripa-zorri	12:00 Ikusmira
12:15 Ibilean	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Ikusmira	12:30 Tripa-zorri	12:30 Erreportajea	12:30 Ibilean
13:25 Zorion Agurrak	12:00 Amaia DJ	11:05 7 akorde	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Ibilean	13:15 Zorion Agurrak	12:55 Erreportajea
13:30 Kantari	12:30 Zorion Agurrak	11:35 Ibilean	14:30 Berriak	13:25 Amaia DJ	13:30 Kantari	13:40 Ur eta lur
13:50 Gernika-Lumo XIX duatloia	12:35 Onein	12:10 Amaia DJ	15:00 Tertulia	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari	13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean	13:05 Erreportajea	12:45 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	13:50 Tertulia	12:55 Berriak	16:30 Berriak	15:00 Harmailatik	14:30 Berriak	14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ	13:50 Tertulia	13:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Kantari	15:30 Onein	15:00 Harira	15:00 7 akorde
15:30 Onein	14:50 Zorion Agurrak	14:00 Zorion Agurrak	17:30 Ibilean	15:55 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean	14:55 Berriak	14:05 Tertulia	18:00 Ikusmira	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	15:00 Debagoiena zuzenean	15:05 Kantari	18:25 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	17:00 Kantari	16:30 Berriak
17:00 Klaketa	16:00 Bertso saioa	16:00 Ikusi irratia	18:30 Berriak	16:55 Ikusmira	17:30 Dantzari Eguna	17:00 Ur eta lur
17:45 Ur eta lur	16:00 Bertso saioa	16:50 Tripa-zorri	19:00 Amaia DJ	17:20 Ibilean	18:30 Berriak	17:30 Tertulia
18:25 Zorion Agurrak	18:30 Amaia DJ	17:20 Amaia DJ	19:30 Harmailatik	17:45 Ikusi irratia	19:00 Harira	18:30 Berriak
18:30 Berriak	19:00 Debagoiena zuzenean	17:45 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	18:25 Zorion Agurrak	20:00 Debagoiena zuzenean	19:00 7 akorde
19:00 Tertulia	19:55 Berriak	18:45 Berriak	20:30 Berriak	18:30 Berriak	20:30 Berriak	19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Harira	18:50 7 akorde	21:00 Debagoiena zuzenean	19:00 7 akorde	21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	19:20 Ibilean	21:30 Berriak	19:30 Kantari	21:30 Berriak	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Tertulia	19:50 Amaia DJ	22:00 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	23:00 Berriak	20:20 Zorion Agurrak	22:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	22:00 7 akorde	21:30 Berriak
22:00 Tertulia	23:10 Ikusi irratia	20:25 Berriak	23:00 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Amaia DJ
23:00 Berriak	00:00 7 akorde	20:30 7 akorde	23:30 Gurean gaur	22:00 Harira	23:00 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean
23:30 Gurean gaur	00:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Tertulia	23:50 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:30 Gurean gaur	23:00 Berriak
23:50 Debagoiena zuzenean	00:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Harira	00:20 Harmailatik	23:30 Gurean gaur	23:50 Debagoiena zuzenean	23:30 Gurean gaur
00:20 Tertulia		23:00 Debagoiena zuzenean		23:50 Debagoiena zuzenean	00:20 7 akorde	23:50 Debagoiena zuzenean
		00:00 Bertso saioa		00:20 Harira		00:20 Amaia DJ

ARRASATE IRRATIA

Asteko gainbegiratu egingo dugu zapatu eta domekan

Asteazkenean izan ditugun elkarrizketak entzungai izango dituzue 10:00etatik aurrera. Josu Larrategi MUko entrenatzaileak EBA ligara igotzeko duten aukerei buruz hitz egingo digu eta Iker Barandiaranek, berriz, *Kooltur Ostegunak* egitasmoa nola doan konatatuko digu, 107.7an.

'Aladdin' haur antzerkia ikusteko sarrerak zozketan

Amaia antzokian eskainiko dute hilaren 17an, 17:00etan, Gorakada taldearen *Aladdin* haur antzerkia. Bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu Arrasate Irratian. Zozketa horretan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Zorte on!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 9	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Zapatua, 10	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Domeka, 11	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Astelehena, 12	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Martitzena, 13	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Eguaztena, 14	IRIZAR	Erguin 11	943 79 12 39
Eguena, 15	AMEZUA	Sta. Marina 32	943 79 09 74
BERGARA			
Egubakoitza, 9	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Zapatua, 10	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 11	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 12	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 13	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguaztena, 14	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguena, 15	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
OÑATI			
Egubakoitza, 9	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 10	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 11	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 12	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 13	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 14	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 15	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

EZTEIAK



Alaitz eta Erik

Alaitz Etxeberria eta Erik Lizarralde gaur, egubakoitza, ezkonduko dira, Segurako udaletxean. Ondoren, senideekin bazkaria egingo dute. Zapatuan, aldiz, lagun guztiek Oñatiko Soraluze jatetxean egun borobila ospatuko dute. Lagun guztien partetik, "zorionak, bikote! Primeran ibili Thailandia aldean!"



Josu eta Agurne

Josu Illaramendi eta Agurne Zenitagoia bihar, zapatua, ezkonduko dira, Bergaran. Horren ostean, Azpeitian bazkalduta ospatuko dute. Lagunen eta familiar partetik, "egun ona pasatu eta oso zoriontsu izan zaitzela. Besarkada bat!"



Faustino eta Maria Jesus

Bergarako Faustino Garciak eta Maria Jesus Ruiz de Eginok urrezko ezteiak bete dituzte gaur, maiatzak 9. Zorionak, familiar partetik.



Andoni eta Ane

Andoni Iturbe eta Ane Larreategi aurreko zapatuan ezkonduko ziren Oñatiko udaletxean. "Oso ondo pasatu genuen ospakizunean, bikote! Zuen lagun partetik, zorionak eta poz-poziki bizi aurrerantzean ere!"

ESKER ONA

**Leonor
Erostegi Zubia**

Apirilaren 25ean hil zen, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 10ean, 19:30ean, agustindarren elizan.
Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

**Agueda
Zubia Leibar**

Oñatin hil zen 2014ko apirilaren 20an, 87 urte zituela.

Familiaren partetik, eskerrik asko egunotan ondoan izan zaituztegun guzti-guztioi, hiletara etorri izanagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 10ean, 19:30ean, agustindarren elizan.
Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

**Antonia
Biain Urzelai**


Apirilaren 29an hil zen, Oñatin, 87 urte zituela.

Familiaren partetik, eskerrik asko egunotan ondoan izan zaituztegun guzti-guztioi, hiletara etorri izanagatik eta gure samina zuena egin izanagatik. Mila esker.

Ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 10ean, 19:30ean, agustindarren elizan.
Aldez aurretik eskerrik asko etorriko zareten guztioi.

Oñatin, 2014ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

**Concepcion
Rubiano Bustillo**

Julian Uriarteren alarguna



2014ko apirilaren 25ean hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez, besarkada handi bana familiaren izenean.*Ez zaitugu inoiz ahaztuko
Gure bihotzetan
eramango zaitugu betiko.*

Aretxabaletan, 2014ko maiatzaren 9an.

ESKER ONA

**Juan Bautista
Ruiz de Zarate Ibañez**

2014ko maiatzaren 3an hil zen, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2014ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

**Antonia
Biain Urzelai**

Apirilaren 29an hil zen, Oñatin, 87 urte zituela.

*Isiltasunean maitatu
Isiltasunean lagundu
Isiltasunean beti ondoan izan zaitugun arren
Zure oihartzun handia
gelditu da hemen.*

Amama, non-nahi zaudela ere, beti bihotzean izango zara gurekin.

Bilobak eta birlobak.
Oñatin, 2014ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

**Pili
Orobengoa Urrutia**

2014ko maiatzaren 6an hil zen.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko
Gure bihotzetan
eramango zaitugu betiko.
Mila esker, Pili!*Sorginak, Gatzagako emakume taldea.
Leintz Gatzagan, 2014ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

**Iñaki
Larrañaga Guridi***Gure lankide, gure lagun, jada zure hutsunea nabari dugu...
Agurrik ez dugu esan nahi, gero arte bat baizik.
Gogoan izango zaitugu beti.
Betiko gurekin, Iñaki.*PMG Polmetasako lankideak.
Arrasaten, 2014ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

**Consuelo
Azkargota Lazkano**

Arantzazu Lagunilla lankidearen amaginarreba



2014ko maiatzaren 8an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

arteman
KOMUNIKAZIOAArteman Komunikazioa.
Arrasaten, 2014ko maiatzaren 9an.

OROIGARRIA

**Consuelo
Azkargota Lazkano**

Arantzazu Lagunilla lankidearen amaginarreba



2014ko maiatzaren 8an hil zen.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goienaGoiena Komunikazio Taldea.
Arrasaten, 2014ko maiatzaren 9an.

URTEURRENA

**Joseba
Larrinaga Perea**

2013ko maiatzaren 7an hil zen.

*Harro hadi Kantauri itsasoa
bere betiko loa
betiko kanta zak,
geroari esaiak alatueta
herri-izarrak ez direla itzaltzen...*Kuadrillako lagunak.
Aretxabaletan, 2014ko maiatzaren 9an.

URTEURRENA

**Joseba
Larrinaga Perea**

2013ko maiatzaren 7an hil zen.

*Hilabeteak eta urteak pasa arren
gogo-bihotzetan izango zaitugu betiko.*Zure familia.
Aretxabaletan, 2014ko maiatzaren 9an.

HILDAKOAK

Mariano Elortza Goitia. Oñatin, apirilaren 28an. 83 urte.
Felix Elortza Maortua. Bergaran, apirilaren 28an. 85 urte.
Salvador Gonzalez Santiago. Oñatin, apirilaren 29an. 77 urte.
Antonia Biain Urzelai. Oñatin, apirilaren 29an. 87 urte.
Antonio Flores Sinoga. Eskoriatzan, apirilaren 30ean. 88 urte.
Tomas Goenaga Gaztelu. Bergaran, maiatzaren 1ean. 62 urte.
Florentino Santos Perez. Oñatin, maiatzaren 2an. 86 urte.
Juan Bautista Ruiz de Zarate Ibañez. Arrasaten, maiatzaren 3an. 82 urte.
Iñaki Larrañaga Guridi. Oñatin, maiatzaren 4an. 59 urte.
Cristina Fernandez Pinto. Arrasaten, maiatzaren 4an. 90 urte.
Anparo Oianguren Kortabarria. Bergaran, maiatzaren 6an. 83 urte.
Pili Orobengoa Urrutia. Leintz Gatzagan, maiatzaren 6an.
Consuelo Azkargota Lazkano. Arrasaten, maiatzaren 8an.

URTEURRENA

**Zelestina
Garitano Elkoriribe**

Bergaran hil zen 2013ko maiatzaren 28an, 85 urte zituela.

Lehen urteurrenako meza
domekan izango da, maiatzaren 11n, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokiak.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2014ko maiatzaren 9an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arretoa eta
ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA



GOIENA

ARETXABALETA Joseba Larrinagaren omenezko erakusketa

Juan Armentia argazkilaria- ren argazkiak izango dira ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan hilabete osoan. Joseba Larrinagaren omenezko erakusketa da *Kemenak* delakoa, atleta paralinpiarra hil zela urtebete betetzen den honetan.

Maiatzaren 31ra arte, Arkupen.



MIRARI ALTUBE

BERGARA Txirri, Mirri eta Txiribiton

Pailazo hirukoteak *Dantzan* ikuskizuna egingo du. Sarrerak, alde aurretik, zazpi euro eta leihatilan bederatziz.

Etzi, domeka, pilotalekuan, 18:00etan.

BERGARA Josue Penaren lanak

Josue Penak eskulturak, margo- lanak, argazkiak eta marrazkiak bildu ditu. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa.

Maiatzaren 25era arte, Aroztegi aretoan, martitzenetik domekara.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA Toponimia erakusketa

Udalbatzak leku izenak behin betiko onartu aurretik, jendarean dituzte, egon daitezkeen akatsak zuzentzeko edo ekarpen berriak jasotzeko. Ointza Ezkibel eskoriatzarrak emango ditu azalpenak.

Bihar, zapatua, kultura etxean, 12:00etan.

TOPAKETA

ARAMAIO Lorabarri Astea

Aramaioko Aramailur kontsumo taldeak eta beste zenbait taldek askotariko ekintza egingo dituzte. Lehena bihar: sendabelarrak ezagutzeko ibilbide gidatua Gabi Villalbarekin.

Bihar, zapatua, Bizente Goikoetxean, 10:00etan.

DEIA

OÑATI Odol-ateratzea

Txantxiku Ikastolako aretoan. Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:30ean.

ARRASATE Haurren danborradarako entseguak

Sanjuanetakako haurren danborradako entseguak aste bukaeran hasiko dituzte Arizmendi Ikastolako Gaztelupe gunean.

Bihar, zapatua, Gaztelupe gunean, 11:00etan.

OÑATI Eltzia proiektua

Proiektuan parte hartu duten talde guztien bateratze saioa.

Maiatzaren 14an, Eteon, 19:00etan.

BERGARA Leihoak eta balkoiak apaintzeko tailerra

Alde teorikoan egin daitezkeen lorategi motak, balkoien baldintzatzaileak eta landareen zainketa landuko dituzte. Alde praktikoan, substratu eta ongari ezberdinak ezagutzen, ontzi motak aukeratzeko eta ureztaketa elementuak erakutsiko dituzte.

Maiatzaren 14an, osoko bilkuren gelan, 18:30ean.

HITZALDIA

ARRASATE 'Zuztarra errotuz' hitzaldi zikloa

Gerra karlistak Euskal Herrian (1833-1876) delako berbaldia egingo du Zumalakarregi Museoko zuzendari Mikel Alberdik.

Maiatzaren 14an, Kulturaten, 19:00etan.

da. Herritar xume batzuek, Europako indarkeriazko azken gatazka politikoaren zauri eta banaketa guztien gainetik, misio handi bati ekingo diote: munduan zer izan erabaki ahal izatea. Letra txikiz idatzitako istorio handia kontatzen du Maiak.

Maiatzaren 10ean, Zaraian, 22:00etan.

JAIK

OÑATI San Migel Txiki jaiak

Festak ospatuko dituzte Kale Zaharrea gaurtik. Askotariko ekintzak egingo dituzte. Besteak beste, ardo eta gazta dastatzea eta kontzertua egubakoitzean;

umeendako tailerrak, Esaera Zaharren II. Txapelketa, Potx eta Motxen emanaldia, Behi bi Blus eta Miren, Agur eta Oier, eta Gozo-gozo taldeen kontzertuak zapatuan; eta auzoko emakumeen bazkaria, Ganbara Abesbatzaren kontzertua, Oñatzeko dantzarien emanaldia, karaoke ibiltaria eta bertso saioa domekan.

Gaurtik domekara arte, San Migel Txikietan.

UMEAK

ESKORIATZA Kanpo jolasak

Kanpo jolasak egingo dituzte Tortolis ludotekan.

Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:00etan.



ALMACENES ARRASATE

MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



1000 b/min
6 Kg

A+ Saikapen energetikoa

3TS-853 GARBIGAILUA

265 €



1000 b/min
7 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GC-1071D1 GARBIGAILUA

299 €



1200 b/min
7 Kg

A++ Saikapen energetikoa

EWP-1272 TDW GARBIGAILUA

340 €



1200 b/min
8 Kg

A+++ Saikapen energetikoa

DYN-8124 GARBIGAILUA

375 €



1200 b/min
8 Kg

A+ Saikapen energetikoa

L-62280 GARBIGAILUA

399 €



142
x
55
x
57

A+ Saikapen energetikoa

CFD-2460 HOZKAILUA

299 €



171
x
60
x
60

A+ Saikapen energetikoa

3KF-6400 HOZKAILUA

375 €



139
x
60
x
60

A+ Saikapen energetikoa

WVE-1410 IZOZKAILUA

485 €



A+ Saikapen energetikoa

SMS-41D08EV HONTZI GARBIGAILUA

440 €



HK-633220FD INDUKZIO PLAKA

415 €



Europar Batasunaren arategiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



goiena

2014-05-09

BUKATZEKO

Pennsylvaniako menonitekin, etxean

- ▶ 2012ko udan ezagutu zuen Ainhize Barrainkuak Nolt familia; Aste Santuan han izan da bisitan
- ▶ Biblian eta kristautasunean oinarritutako bizimodua daramate menonitek; oso fededunak dira

MIREN ARREGI | ARETXABALETA

Familia menonita baten etxean pasatu zuen Ainhize Barrainkuak aretxabaletarrak 2012ko uda. 14 urte zituen orduan, eta, ingelesez ikasteaz gain, menoniten mundua ezagutzera ausartu zen. Ez da inoiz damutu; pentsa, pasa berri den Aste Santuan Ameriketako Estatu Batuetako familia bisitatzeko izan da: "Seme zaharrenaren ezkontzara gonbidatu naute eta ezin nuen hutsik egin", dio.

Gaur egun, Afrikan eta Amerikan bizi dira menonita gehienak; aurrerapen teknologikoei uko egiten diete, janzkera berezia dute eta komunitate asko XVI. mendean bezala bizi dira; ez da, baina, hori Nolt familiaren kasua. "Facebook, ordenagailuak... Autoa ere badute", dio Barrainkuak.

Familia handiak izan ohi dira; Nolt familian zortzi seme-alaba dira: "Hori bai, etxean guztiek laguntzen dute. 4 urteko alaba ontzi garbigailutik platerak eta ateratzen ikustea kuriozoso da", dio Barrainkuak.

Biblia, oinarria

Biblia da euren bizimoduaren oinarria, eta elizan ere denbora luzea pasatzen dute. "Gutxienez,



Ainhize Barrainkuak -eskuinetik hirugarrena-, Nolt familiako kideekin. | A.B.



Musikarekiko lotura handia dute menonitek. Argazkian, familia osorik. | A.B.



Alexis Nolt, lorategian lanean. | A.B.

astean bitan joaten dira elizara eta mezak bi ordukoak izaten dira. Bestela ere, egunero irakurtzen da etxean biblia", gaineratu du gazte aretxabaletarrak. Jainkoari eskertzeko, musika oinarritzko elementua da familia menonitetan: "Askok abesten dute, eta primeran, gainera. Sekulako ahotsak dituzte, instrumentuak jotzen dakite... Nolt familiak baditu bi disko grabatuta dagoeneko", dio Barrainkuak.

Ezkontza

Emakume menonita batekin ezkondu da etxeko seme zaharrena, Aste Santuan: "Zeremonia oso polita izan zen; abesti askorekin, ikaragarri polita. 400 gonbidatutik gora izan ginen... Primeran pasatu nuen", dio, irribarez, Barrainkuak.

AZKEN BERBA

AINZANE
OIARBIDE



200 neskatilaren zoritxarra

slamiar hezkuntza ez dena bekatua da", hori omen da Boko Haram talde nigeriar fundamentalistaren izenaren esanahia. Milaka pertsona hil dituzte terrorista hauek; pertsona pobreak denak, bizia besterik ez daukaten pertsonak, eta indarkeria eta fundamentalismoa banderatzat hartu eta Nigeriako bere anai-arrebak akabatzen dabiltza etengabe. Indarkeriak ez dauka sekula justifikaziorik, inor ez baita besteren biziaren jabe. Tristura eta mina ematen dizkirate egoera hauek eta badirudi gure etxeetatik hain urruti gertatzen delako, Nigerian, Afrikan, hirugarren munduan, baditugula gure artean gauza garrantzitsuek. 200 neskatila bahitu dituzte oraingoan, sexu bortxakeria eta indarkeria hizki larriz idazteko moduko zorigaitza. Beharbada, neskatila hauek ez dira emakume egingo, jaiotzerakoan eme jaio zirelako, hori da beraien bekatu bakarra. Emakumeon aurkako bortxakeria eta indarkeriari aurre egiteko inolako tresnarik eta babesik gabeko neskatila hauen etorkizunik ezak bereziki kezkatzen nau, baina tristeena da 200 neskatila berri mediatiko bihurtu bada ere, beste 200 eta askoz gehiago ere badirela munduan egunero horrelakoak jasan behar dituztenak.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

Larunbata 10 denok Donostiara!
18:00etan Konstin

Astelehena 12an EKITALDI POLITIKOA
OÑATI 19:00etan Plazan
Maite Aristegi eta Rebecka Ubera

EMAN BOTOA **ehbildu**
herriek erabakitzen